

Salbador Zapiain

«Ataño»

ETORKIZUNA

Erri-literatura
Auspoa Liburutegia

Nobela



ETOR

ETORKIZUNA

Auspoa Liburutegia

196

Salbador Zapiain

«Ataño»



ETORKIZUNA

(Nobela)

Zuzendari - Antonio Zavala



EDITORIAL

ETOR

ARGITALETXEA

© EUSKO KULTUR ERAGINTZA ETOR S.A.

Juan de Bilbao 13. 20003 DONOSTIA

I.S.B.N.: 84-85527-39-9

D.L.: N.A. 792-1988

Irar-lanak: GRÁFICAS LIZARRA, S.L. - Lizarra

IRU GURASOAK

Erri batean illetak ziran. Gizon sasoiko bat zan illa, ta ezbearrez. Auzoen artean oso ezagun ta maitea gaiñera. Alai, paketsu ta gizarteko gizona. Askotan alkate izana, erriko martxari lotua. Amai-ka lan on egiña. Etzan kaleko gora—beeretan bakarrik geratzen bere ardura. Baserririk geienetara ereki zituen bideak. Urak eraman ta argi—indarra jarri ere bai. Erriko jendeak benetan maite zuen, bada.

Etsaiak ere, jakiña, izango zituen. Denentzat ona danik ez da oraindik sortu.

Eriotzak, olako erri batean, geienak elkarren auzo ta ezagunak baidira, zarratada aundia egingen du. Olako gizon ongille batenak oraindik geiago. Ezbearrez gaiñera, ta mozkor ta drogatua zezon gazte kaxkarin baten lana.

Eliza gaiñezka betea zegoen. Itz batzuek egin zituen apaizak, gizon elizkoi, langille, prestu ta zintzo bat bezela omenduz.

Bukatu zanean, andik ateratako jendea arara onera zabaldu zan, moltsoka—moltsoka ta elkar—izketan, bakoitza bere etxe aldera.

Iru gizon zetozen elkarrekin, baserritarrak, illaren adiskide kutunak, serio—serio, gizonaren bizitzako ondorenak oroitzuz.

— Gizon ezaguna, erritik kanpora ere. Baiña orrekikoak bukatu dituk —zion batek—. Sartu dek joandakoen lerroan. Langaz beste aldean ez badu bere etorkizunik arkitu, beekoak emendik aurrera etziotek irripar goxorik egingo.

— Ori dek gure munduko ondorena. Egun batzutan oroitzuko dek jendea. Baiña aurrean ikusi ezean, bai laxter aztu ere.

— Etxean utzi dituen alargun ta iru seme—alaba gazteak, negar egingo ditek. Baiña an ere gazteak bereala aztuko dituk.

— Alargun gaixoa ez orratik. Arek, bizi dan arte, ez dik aren oroitzik galduko. Bai beti nabaitu ere etxean beraren utsuna.

— Guk ere noski, arek egindako lanak ikustean, aldizka aipatuko diagu.

— Olakoren alkatetzan jaso ziteken zubi au, ta kito.

— Errian bearrezkoa zala uste genduen gizona betiko aldegin duenean, ez dek emen aren utsu-

nik nabaituko, ordezkoa jartzen danean. Ura ibiliko dek erriaren aotan eta bertako artu—emanetan.

— Non zegok orren etorkizuna? Mundu ontan ez beñepein. Emendik joan dek. Laxter aztuko dituk munduak egiten dizkion omenak. Arako ez ditek balio.

— Zer irabaziko likek, ez dagoen tokian aipatua izana, bera bizi dan lekuan zigortzen badute?

— Illetak ospatzen diranean bestetan ez gaituk gu ere emengo ezerez auetzaz oroitzen. Denok gure etorkizuna lurrean jartzen diagu.

— Galdeiok nekazariari zergatik ari dan lanean eta txanponak aurreratzen, eta ala erantzungo diki: lenen, bizitzeko; ta gero, seme—alaben etorkizunerako. Arrantzaleak berdin: zaartzaro on bat irixteko ta bereen aurrerapenerako. Beren kutixi asko utzi ta seme—alabak ikastera bialtzen dituztenak, beste ainbeste erantzungo ditek: «Ondorengoan etorkizunerako. Guk olako aukerik ez bagenduen eduki ere, izan dezatela gure seme—alabak, gu baiño aurreratuxeagoak izan ditezen».

— Sakon—sakon galdezka asten bagera, orduan bai. Baiña bitartean gerokorik ez dik iñork aipatzen, emengoa ain garratza ta eskasa izanik ere. Asko gaztetan ziazik. Geienak zaartu baiño len. Zaartuta il diranak ere, gorriak ikusi ta gero. Ori al dek gizonen etorkizuna?

Elkar—izketan zetozen iru gizon auek, bada, illaren adiskideak ziran. Illetan izanak eta laguna kanposantura eraman ta andik zetozenak. Iruak

baserritarrak eta auzoak gaiñera. Orregatik zetozen elkarrekin, goibel xamar.

Olako lagun baten agurra, ta betikoa gaiñera, samingarria izaten da batetik. Bestetik, berriz, barruraino sartzen zaiguna. Etxekoa bada beiñepein, egun batzutan ezin etsia. Oroimenera askotan datorrena, «Ez ote da ori geiago etxe ontara etorriko?» geron buruari galdetuz.

— Ez. Ez dek azalduko. Alperrik egongo gaituk aren zai. Ori al dek gure etorkizuna? Balio al dik orren atzetik ibiltzeak?

— Beti ere, sinismena degunontzat, berriz ikusiko degun itxaropena.

— Astun zapaltzen gaitun beste oroipen bat ere etortzen zaiguk gure biotzetara: noizbait, ni an utzita etorriko dirala nere lagunak.

— Bai. Mundu au olakoxea dek, eta dan bezelakoa artu bear. Baiña emengo etorkizuna iruzur utsa dek. Negarra ta oiñazea besterik ez.

Goibel—goibel, elkar—izketan sartu ziran, bi-dean zeukaten ardangela batera.

— Egun on, Joxpiñaxi.

— Baita zuei ere.

— Txuri bana atera egizkiguzu, meserez.

— Bereala.

Eskatua sal—maira atereaz, ala galdetu zien:

— Illetatik etorko zerate noski?

— Bai. Lagun maitea genduen. Mingarria izaten da olakoari azken agurra egitea. Au etzan

erri—txuloari bakarrari begira egon. Baserrietara ere zabaldu zuen bere laguntza.

— Bai. Erri ontan gizon zuzenik bazan, orixe genduen bat.

— An utzi degu, bada, lagun gizarajoa. Illetan zuen alarguna ere. Gaixoa urtu da noski negarrez.

— Ori degu mundu ontako legea: etortzen dakinak joan egin bear, geiago ez biurtzeko. •

— Gu ere, bada, Joxpiñaxi, ez gera azitarako geratuko. Gu an utzita datozenak, emen bazaude, zuk, bestela norbaitek emanda, txuriren batzuk artuko dituzte ardangela ontan bertan. Amaika baditugu utziak; eta, zaartzaroan iltzezkeroz, beste batzuk utzi bearko ditugu. Baiña gure ordua ere etorriko da. Alare, mundu onek berdin—berdin jarraituko du.

— Ori ez dago ukatzerik. Egi garratza bada ere, denok aitortzen deguna. Aldez aurretik ez al daukagu, bada, eortziko gaituzten lekua moldatua?

— Alaxe da. Zuk, Joxpiñaxi, ikusiko zenduen ezbear ori?

— Bai, bai. Goazen kanpora ta erakutsiko dizuet.

Ala, atera ziran, nola gertatu zan bere lekuan ikusteko.

— Ildakoa espaloi ontatik aioka ontara zeterren, ardangelara noski. Adiskide betikoa genduen guk ori. Lasai—lasai, pake—pakean, ezeren txarrik pentsatu gabe. Ontan, berebil txiki bat azal-

du zan tximistak egiñez, batean ara, bestean onera, bide zabal guzia neurtuz. Geiago ere baziran larri ibilliak.

— Txoper ori eroa ote da? Agian mozkorra — nion nerekiko. Ontan, txuxen—txuxen espaloi ontara artu zuen. Ildakoa ardangelara sartzerako, gaiñean zeukan, igesbiderik utzi gabe, zekarren abiadura artan indar guziarekin orma onen kontra arrapatu ta lerdekatua utzirik. Gaixoa zerraldo illa geratu zan. Etzuen otx bat esateko ere kemenik izan. Bi oiñak txikitu, beso bat txintxilik, alde guzietatik odol—jario, lertua. Lenengo atzeka bota baizuen, gero ormaren kontra lertzeko. Begiak zabal—zabalik, bizi zala zirudien. Begiraiozute orma ontan egiña dagoen zuloari. Izutua geratu nintzan. Bi gau auetan ez det lo—pulanturik egin. Egunez ere, begi zabaldu aiekin eta txikitua datorkit irudimenera. Txoperrari etzizaion ezer ere gertatu, gomazkoa balitz bezela. Ate au zabaldu ta, txuxenean onera sartu zan. Ezbearra ikusi zutenak gaiñera baizetozkion. Arrapatu balute, bertan txikituko zuten. Onen barrura sartzera zijoazen. Baiña nere gizona emen zegoen. Atea itxi ta kanpoan geratu zan bera.

— Errespeta zazute besteren etxea. Naiko nalgabea berekin zeukak gazte orrek ere.

— Oraindik orren alde ateratzen al aiz?

— Ez, jaunak, ez. Nere eskubideak errespeta itzazute. Gizon bat ezbearrez il dutela—ta, etzazgun beste bat il, lenengoa baiña larriagoa izango uke bigarrena ta.

Jendeak ulertu zuen eta arrazoi eman zioten. Baiña kanpoan arrapatu balute, etzioten ezur bat ere osorik utziko. Sumindua zegoen jendea.

Gaztea zearo burutik joana, berriz. Mozkorra, drogatua. Alare, kopaxka bat koñaka eskatu zigun, gorputz guziak dardar egiten ziola.

— Etzaizu komeni —esan nion—. Berdin odola analizatu gabe etzaituzte utziko.

— Eta ez al zekiten gurasoak ori nola zebillen, berebilla orri uzteko?

— Gaurko egunean gurasoak ez dakigu ezer ere gure seme—alabak nola dabiltzan. Orrek ebatsitako berebilla zebilkien, eta txopertzarako baime-nik gabe zebillen.

— Gazte auek orrela badabiltz, iñor ez gaude seguru. Ai zer etorkizuna daukagun!

— Gure zorionerako, ez dira gazte guziak ola-koak. Jator askoak ezagutzen ditut.

— Arrazoi dezu, Joxpiñaxi. Gure adiñetakoe-tan ere badira biurri askoak.

— Etorri ziran guardia zibillak eta lotuta era-man zuten. Epaillea ere bereala emen genduen, gor-pua jasotzeko agindua emanez. Baiña zarratada gaiztoa egin zidan. Len esan detana: ez dit lorik egiten utzi.

Edan zutena ordainduz:

— Agur, Joxpiñaxi. Gaur iñon ez gaude seguru.

— Zenbaiten aurrean ez beiñepein.

Andik atera orduko, iru gazte, beren semeak, ezin berexiak omen zirala, bixi—bixi igaro ziran auen aurretik.

— Ara or iru eguzki, zein baiño zein ederra-goak. Eta, gu geran bezelaxe, ezin bereziak. Nora ote dijoaz?

— Gorputza bezelakoak ote dauzkate animak? —zion batek.

— Ez daukagu zertan gaizki pentsaturik. Alare, gu aiña izatea aski dute.

— Gorputzez gu baiño ondotxo luzeagoak dizkiagu beiñepein. Animaz, berriz, neurtzen zailla dek. Baiña etzeukagu zertan gaizki epaitu.

— Joxe or joan dan nere seme zaarrenaren aurka, gaur arte beiñepein nik etzeukat ezer. Langille alai ta ondo itzegiña. Esanak txintxo egiten dakiena gaiñera. Gerora, ori etzekit, soldaduskatik nola etorriko dan. Aurten dizkik kinto—urteak. Neurtzeko deia iritxia zeukak. Alare; amak dionez, arro—aize pixar bat ez ote zaion sartzen asi, adin ortan arraixku txarrekoa. Gorputz bikaiñekoa dek baiña.

— Nere seme Iñaki, iru oietan zijoana ere, aurtan dek kinto. Arro xamar zebillek, gizon egin dala—ta. Gorputz ederrekoa, erri ontan bat bada. Ta biotzez ere mazala, gaur beiñepein. Ik esan dekan bezela, emendik onak joan da askotan andik ustelduak etortzen dirala. Beste asko, berriz, obetuak. Emendik iñoxente joan eta an zabaltzen zaizkiek begiak, eta lagun biurriren batzuen ondoan zearo galduak geratzen dituk.

— Bein gure erriko bikarioari entzun niona: «Erne ibilli, gazteak! Lagun galduen artetik iges egizue!». Eta onako arrazoi xeble au eman ziguen: «Sagar onak ez dik egundo ustela pintzen. Onek bai, ordea, piña usteldu». Ogei urte arraixku txarreko adiña, ezer gutxi ikusitako erri auetatik dijoazten gazteentzat.

— Gure bikario jaunak badizkik, bai, olako er-teerak.

Lenengo biak goratu zituzten beren semeak, irugarrena malkoak zerizkiola. Baiña etzan goratzarreka asi:

— Nerea, Santi —semearengatik—. Aita barentzat gaizki esaka jardutea etzegok ondo. Ixildu edo itzegitezkeroz ezin nezakek ondo esan. Iru famelietako berria bazekiagu. Zuek ere onuzkero ikasiko zenduten gurekoa. Emen esaten deguna ere gure artean geratuko dek noski.

— Bai, gizona, bai. Emengo berriketak zabal-tzen ezin ariko gaituk.

— Aingeru bat uan gure semea, emezortzi bat urte arte. Gorputz ederrekoa bera ere, baiña kas-kailtzen asi zaiok. Zoritxarrez, okerbidetik asia zego-k. Etzekit zima luze oiekin nola dabillen. Ortaz oraindik ez gaituk oartu. Baiña bat egiten duenak, zergatik ez beste ori? Zearo lotsagabetu zaiguk. Amaren pitxi aleak —ez noski on oietakoak, ola-korik ez dik eta— ebatsi zizkiok.

— Zertarako dizkik oiek? Andregaiarentzat?

— Berekoiegia dek, besterentzat ebasten ari-tzeko. Orrentzat ez dek gurasorik, ez andregairik.

Lagun artean etzekit nola dabillen. Gaur elkarrekin joan badira ere, pixar bat berex ten asiak dirala uste dit. Onek, arrapatzen duen guzia ez dik aski beretzat. Ditugun sos pixarrak eta zerbait balio duten pitxi aleak, ondo gorde bearrak zeuzkagu. Droga zikin orrekin nastua ibilli bear dik. Jakiña, orrek, anima ezik, gorputza ere laxter ondatuko zio k. Orretarako dirua bear. Auek artzen dituztenak ez dituk oso merkeak izango. Tabakoak ez dik gutxi eramaten. Beste ori, berriz, urrearen truke saltzen dutela uste dit, eta berak ortarako modurik ez. Orregatik, etzegok ezer ere seguru auen tirabidean, dena eskax ditek eta. Mingarria dek oni gertatu zaiona. Asko balio zuen umea zetorreken. Soiñu—mota guziak bazekizkik jotzen. Ikastetxean aurrenekoetan zebileken beti. Jainkoak ez badu mirariren bat egiten, ori galdu diagu. Guretzat nairgabe ta negarra. Beldurrak gabiltzak ez ote dituen gazteagoak kutsatuko.

— Gureak ere ortaratuko dizkik orrek azkenean.

— Ez nitek ezetzik esango. Baiña erortzen badira, onen errua aiña izango ditek berena. Ez dituk umeak. Sagar ustelak bazekik piñak iroitzen, ik esan dekan bezela. Baiña au ez dek zirika ariko. Ortarako ere berekoiegia. Ortatik dirua letorkela antz eman ezker o, orduan bai. Oiek, beren griña gaizto orri jarraitzezker o, erruz bear ditek. Amak bere pitxiakin zer egin zuen galdetu zion batean, sekulako ixkanbillak sortu zizkiguken. Jotzeraiño ere ausartuko uen, ez banintz ni tartean sartu. Olaxe gabiltzak orrekin. Ori dek gure etxe-

ko negarra. Eguzki ori laiño gaiztoak estali zigutek. Ikusiko diagu zer ondoren ekartzen diguten. Beldurra ematen ziguk, semeak ikastetxe oietara bialtzeak. Kutixi asko utzirik, amaika neke baze-ramakiagu semeak gu baiño aurreratuxeagoak ateratzeko, oien etorkizunari begiratu. Etzigutek asko eskertzen. Dijoala soldadu, ea an zuzentzen duten. Azken alde ontan bazebiltik, bai, alako apal—aldi bat, etxekoen tristura nabaituz. Ez dek len bezin arro mintzatzen. Etziguk, len bezela, artz baten antzera arpegi ematen.

— Nik ezer gutxi zekit. Baiña amasei—amazazpi urte oietan okertzen dituk asko, gero soldaduska ondoren bide onean sartzeko. Besteak, berriez, orduan zabartu ta kito.

— Baiña droga zikin orrekin asitakorik zuzentzen danik ez dit entzun.

— Bai, nai balute. Borondatea palta. Berez mozkorra danak ere, badizkik bere ixtilluak. Aurrean jarri ezker, erori egin bear. Baiña nik bat baiño geiago ezagutzen dizkit utzi dutenak. Oso—oso ez badira ere, gutxitan erortzen diranak. Batez ere, sendagilleak agintzen badie. Orregatik ziot bada nik, borondatearen palta dutela oiek.

— Diotenez, asko ari omen dek zabaltzen. Izan ere, saltzailleak egundoko negozioak egiten dituztela.

— Kontzientzi gutxiko jendea.

— Beren kinta—urtean sartu dituk beiñepein, ta irurak urte berekoak gaiñera. Etzebiltzak asarre, gizon egin dirala alegia.

— Bai. Datorren igandean dizkitek neurketak.

— Nola etorriko ote dira soldaduskatik?

— Batzuk ondu ta besteak gaiztotzeko, ori dek soldaduska.

Olaxe, irurak elkar—izketan, iritxi ziran beren etxeetara. Baiña bazeukaten zertaz pentsatua, ta kezka gaizto bat ere bai beren biotzean.

IRU GAZTEAK

Illetatik zetozen iru gizon aien aurretik igarotako gazteak, auzoak ziran eta aien semeak. Beren gurasoak bezela, txikitandik elkarrekin bizi ta aziak. Jakiña, ez fameli batean; baiña iruetako edozeiñen etxera zeukaten sarrera ta ondo artzen zizutzen, beren gurasoak ere alaxe bizi izan ziran ta.

Elkarrekin azi ta soldaduskara arte ala jardun. Inguruko ikastetxe batean beren batxiller bukatu ta karrera aukeratzeko garaira iritxi ziranean, gaur arte baserritarren oitura ala zan ezkerro, eskulanetarako ikasketak egiten diran eskolara bialtzeko asmoan ziran. Goragoko ametsik etzuten egiten.

Baiña beren irakasle izanei naigabe ematen zien, iru gazte aiek, berak ziotenez, beren etorkizunerako ain motz geratu bearrak; eta iru gurasoei aolku au eman zieten:

— Gazte auek benetan argiak datoz. Adimen azkarrekoak. Edozer karrera bukatzeko aiñakoak badira.

— Ori egia izango da —zioten gurasoak—. Baiña ordain bearrak ere ez dira txantxetakoak izango. Gu nekazariak gerala badakizute. Emen, lan asko egin ta gutxi irabazten degu. Zenbait ekaitzek arrapatzen bagaitu, berriz, gure urte batzutako irabaziak aurrean eramango ditu. Seme-alaba geiago ere badauzkagu. Auei dena emanta, nola utzi genezazke besteak esku-utsik?

Au zan gurasoen negarra.

— Urte ona izan edo txarra, orko zorrak ordaindu bearko ditugu.

— Bai. Ori ala da. Baiña emendik bistan daukazute ikastetxe nagusi ori. Semeak etxean bizita mantendu litezke. Jator badabilta, ez det uste zuentzat neke geiegia izango litzakenik.

— Ez da aolku txarra. Denak lur-lanetan ezin jarriko ditugu. Baserri au batek artuko du. Besteak ara-onera, al duten lekuetara, sakabanatu bearko dute. Gu baiño aurreratuxeagoak nai genituzke, berriz, gure semeak. Baiña berak naiko al dute? Ez ote daude len ere ikasten aspertuak?

— Ordaintzeko modurik badezute, ez det uste karga geiegia litzakenik. Alare, ori da zailena. Beste galdera batzuk gai ortaz nik egin dizkiet. Gure gurasoak nai badute, baietz esan didate, irurak gaiñera.

— Ondo dago. Gure zabarkeriz ez dira geratuko. Ez dezaigutela gero guri arpegira esan: zuek nai etzendutelako gabiltza gu emen ukulluko kaka ta pixen artean.

Sartu aurreko moldaketak eginta, irurak ikas-tetxe nagusian asi ziran, bazkaltzera ta apaltzera etxera biltzen ziralarik.

Zer karrera aukeratu, lenengo ikasi egin bear zutela bakoitzak zertarako zuen erreztasun ta egokierarik onena.

Joxe, Iñaki ta Santi ziran iru gazte auen izenak.

Lenengoak injenierotzako zeuzkan bere gogo ta egokierarik aundiena.

Bigarrena, arkiteto, oso marrazki-zalea omen zala ta.

Santi, berriz, sendagille. Au zuten iruetan buruz argiena. Txita txikiak, anka autsita, berak zekien bezela sendatzen omen zituela.

Iñork etzuen apaiz edo prailletarako gogorik, orduan beiñepein.

Gurasoak amets luzeak egin zituzten. Buru argikoak ziran ta ondo zijoazen.

Baiña Santik, soldaduskara aurretik, tongo egin zuen, emezortzitik emeretzi bitarte ortan. Ez ezin zezakelako. Notik onenak berak ateratzen zituen. Ordura arte txintxoena ere bera zebillen. Len esan detana, soldaduskara baiño len okertu zan. Alare, etzuen urterik galdu.

Ezin asmatu zuten gurasoak zer gertatzen zitzaien. Diru asko bear zuela bai. Ez ori bakarra. Bere amaren pitxiak, punta-puntakoak ez baziran ere, banaka-banaka aitutzen ari ziran. Ori semearen lana zala bazekiten, berriz.

Beste bi gazteak ondo ta zuzen zebiltzan.

Orduan, oraindik, drogaren izurrite beldurgarria etzan entzuten, erri txiki ta baserrietan beñe-pein. Sendagilleak noski bazekiten.

— Zer ote du gureak? —zioten gurasoak—. Beste bi oiekin ibillita, nola okertu ziteken au, eta beste biak ez?

Askotan, erdi zorabiotua, arpegiak zoro baten antza artzen zion. Iñozo bat. Par-irudi ergela zerrion, beste mundu batean bizi balitz bezela. Urren-go egunean, berriz, zearo eroria, kokildua, murrizta ta triste benetan.

— Zer du, ordea, gure seme orrek?

— Santi, i ez ago ondo. Beranduegi baiño len, obe dek sendagillearengana joan —esaten zion aitak.

— Nik ez det ezer ere —erantzuten zion.

— Arritzekoa dek. Gorputza kaskailtzen ari zaik. Txoro-arpegia daukak askotan, par-irudi ergel bat dariokela. Gaur alai abil, biar deabru guzien jenioa daukak. Ik artzen dek zerbait, kalte gaiztoa egiten dikena, guk ez dakiguna ta esan nai ez digukena.

Ezin askatu zuten gurasoak korapillo au.

Denak elkarrekin joan ta etortzen ziran. Baiña an etziran ikastetxe batera biltzen; eta, jakiña, an bakoitzak bazituen bere lagunak.

Bein batean, Iñakiri galdetu zion Santiren aitak, ea bere semeari ezer estrañurik nabaitzen zioten.

— Bai, zoritxarrez —erantzun zion—. Atzera-aurrerak elkarrekin egiten baditugu ere, an beste lagunak dauzkagu. Aiek iruzurtu dute. Droga-artzaille egin da ta kostako zaio, bein sartu danean, ortik ateratzen. Ortan jarduteko, berriz, diru asko bear.

— Baiña zer dek droga ori? Nik ez dit olakorik entzun.

— Nik zer esatea nai zenduke? Ezer gutxi dakit. Atzo, ala bear-ta, irakasleak ortaz itzegin zingun. Oraindik lurraren gaiñera etorri zan izurrite-rik gaiztoena bazetorrela. Orain ari zala zabaltzen. Ikastetxean ere badaudela, dagoeneko, kutsatuak.

— Zer izurrite dek, ordea, ori?

— Artzen dutenak jakingo dute. Belar edo igaliren batzuen zumoarekin egiten omen dute. Batzuk, zigarroa bezela erretzen dana noski. Besteak, pastilla bezela. Baiña okerrenak ziztakoak dirala. Indizioa bezela odolera sartzen dana. Amets gozotan jartzen omen du bat, mundu ontan bizi ez balitz bezela. Baiña zoramen ori joatean, zearo eroria, naigabetan, beste alako baten eskari gorputza. Orregatik omen da gaiztoa: bein asi ezkerero, ezin utzi. Ta oso garesti. Ortarako diru asko bear. Ori

esan zigun irakasleak. Ariñenik ere ez artzeko, bestela poliki-poliki garestienetara etorriko giñala ta. Ortaraño eroria dago Santi.

— Orain lenengo entzuten dit.

— Gogotik zabaltzen ari da, bada; ta kalte gaiztoak egiten dituela zion irakasleak.

— Eta zer egin bear diagu guk orrekin?

— Orixe bai dala zailla asmatzen. Len esan dizudan bezela, ez da errexia izango orri bide ori galarazten.

— Eta zuek, lagun bezela, ezin al zenioteke esan uzteko bide ori, bestela bere burua galduko duela? Benetan damutu zaiguk ori ikastetxera bialia.

— Gure sailletik alde egingo luke, ta askoz okerrago beretzat.

— Auxe dek atarramentua! Gazte bikaiña, buru argikoa. Jakiña, alare ez dik urterik galdu. Baiña ikusten diagu ez dabillega ondo ta ezin lezakela orrela luzaro iraun. Amets goxoak egin dizkiagu, baiña leku onean geratu gaituk.

— Gu gabiltzan lekuan, erne ibilli bearra dago zenbait lagunekin, asko irabazten baidute.

— Gizonak ondatzeko tresnak egiten bazebillego kontzientzi gabeko amaika deabru. Salbatzeko ez. Ori egin ta zabaltzen ari danak, errian denen aurrean soka batetik zintzilik urkatzea merezi likek. Gaztedi guzia ondatuko zigutek. Agur, Iñaki. Berri kaxkarrak ekarri dizkidak. Baiña ik gordin-gordin egia diok.

Naigabetua joan zan aita etxera.

— Santi, beraz, droga edo dalakoaren artzaille egin zaiguk. Orrek dion bezelakoa bada, orrenak egin dik. Baserriari ere jipoi ederra emango zioke.

Oraindik asi berriak ziran droga oiek, emen beñepein; ta Santi gaztea arrapatu, iñoxente-iñoxente noski, lenengoan. Norbaitek eskeñiko zion, ona zala esanez, eta arek artu. Gero, gizarajoak bear ta dirurik ez. Orduan asi ziran amaren pitxi aleak bakantzen. Bereala oartu zan ama, gutxi zirala baiña etzirala geiagotzen ari.

— Norbait badabil gure etxe barruan, guk ez dakigula —zion amak.

— Zergatik diozu ori?

— Nere pitxi aleak gutxitzen ari diralako.

— Santi izango da or dabillen lapurra.

— Diru-paltan al dabil?

— Zoritxarrez, bai. Erri ontako guziak bereak balira ere, kastatuko lituzke noski. Bere lagun Iñakirekin itzegin nuen lengoan. Zer gertatzen zitzaion gure semeari galdetu nion. Oso murriz ta basati jarri zala bere gurasoekin, len txistu ta kantu besterik etzuen semea. Narrastua zegoela. Etzuela jan ere pulamentuz egiten. Negar-malkoak asi zitzaizkidan, aren erantzuna artu nuenean: «Santi, zure semea, droga-artzaille egin da».

— Droga? Zer da ori? Oraintxe da lenengo entzuten detana —galdetu zion amak.

— Emendik aurrera entzun bearko degu, bada. Lurraren gaiñera mundua ezkerro etorri dan izurri-terik txarrena dala esaten omen dute zerbait daki-tenak. Nik ez dakit besterik. Baiña semeak eraku-tsiko digu zer dan.

— Ederki geratu gera oraintxe. Etxeko puska on guziak badaramazki. Ortara jarraitzezkeroz, azkenean gu ere salduko gaitu orrek. Gure ametsak lekutan geratuko dira. Ori bai dala etxe guzia ondatzeko martxa.

— Joxepa, ori da, bada, guzia. Goi-beeak jota orretxek utziko gaitu. Gure nekeak ez dira alperrik izan. Beste kezka bat badaukat sartua: ez ote dituen anai-arreba gazteagoak ere kutsatuko.

— Ez det uste, zearo erotzen ez bada, Santi ola-koa danik.

— Itxaropen orrixe elduta bizi naiz ni ere.

— Jainkoak ala nai dezala beiñepain.

— Geronekoan, bakarrik ikusi ta aipatu nion. Alako begiratu zoro bat egin zidan, arrituta beze-la erantzunez:

— Zergatik esaten didazu ori?

— Ez ote dakik nik bezin ongi? Basati biurtu aiz oso. Narrastu ere bai. Aztu zaik jazten ere. Jendearen parregarri azalduagatik, etzaik batere ajolik noski. Ire lengo kolore eder aiek joan zaizkik. Bazirudik tisiko agola. Utziok bein betiko artu dekan bide orri. Bestela gureak egin dik.

— Bide txarren bat artu al det, bada, nik?

— Entzun berri detan droga madarikatu orren artzaille egin aiz. Ori dek guzia.

Burua makurtu zuen eta ala erantzun zidan:

— Nork esan dizu ori? Nere lagunak agian?

— Lagunik bai al dek ik, droga-saltzaillea besterik? Orain artekoak laxter galduko dituk, orrela baabil. Ez dit iñoren salaketa bearrik. Iri arpegira begiratzea aski dit, eta etxeko pusdik onenak daramatan martxa ere bai.

— Zoritxarrez, egia diozu, aita. Baiña ezin det utzi. Alegiñak egiten ditut. Baiña lenago aldegingo nuke etxetik —aitortu zidan; eta, beste galderarik egin baiño len, bixi-bixi aldegin zuen nere aurretik. Naigabez egon nintzaion atzetik begira:

— Garai batean i intzan mutilla. Ta orain narrats-zarpail bat besterik ez aiz. Jainkoak ez badu mirariren bat egiten, semea galdu zaigu. Aurki, onekin dabiltzan lagun oiek ere utziko dute, eta kaleko txakur oiek baiño lotsagabeagoa geratuko da, eguzkia bezin eder zan gure semea. Ta bera ta etxearen etorkizuna ere bai noski. Guk orrekin egin ditugun ametsak!

Orixe zan, bada, Santi, iruetako bat. Berexi eziñak zirala, baiña laxter asiko ziran bakantzen. Au sailleko lotsagarri izango baizuten.

Auek iruak auzoak ziran, elkarren lagunak, ikasleak, urte berean jaioak, kinto urteetara iritxi ziranak. Erriko agoazillak dei txiki bana egin zien: olako igandean, amarretatik asita, udaletxeko aretoan kintoen neurketa izango zala ta utsegiñik gabe joateko.

Poztu ziran, gizon egin ziralako, bein ogei urtera ezker eskubide guziak bazituztela ta.

Ogei urtera baiño lenago irixten gera emendik berrogeitara, urtez berdiñak badira ere. Lenengoa aldapak gora egiten zaigu. Bigarrena, berriz, beerra. Aurrera begiratuta, zerbait badirudite. Igarotakoan, atzera begira jartzen bagera, atzo gertatuak bezela. Dena iruzurra, amets labur baten antzekoa, olaxe joaten da gure bizia, guk gaztetan amesten genduen etorkizuna iritxi baiño lenjoana.

NEURKETA

Igande ori ere iritxi zan. Beren garairako an zeuden erriko kinto guziak. Gure iru gazteak ere bai.

Oraindik pulamentu gutxi ikusten zutela an ta inguruko ardangela batera abiatu ziran. Baiña norbaitek oju egin zien:

— Ez urrutiratu, oraintxe ziazik astera ta.

— Nik etzeukat presik —zion Santik—. Atzenekoa nauk noski. Nere txanda irixterako, ordu bata izango dek. «Z» letrakoa bainauk.

Baiña bereala etorri ziran udaletxera. Gazte-sail bikaiña bildu zan areto artara. Mordoska polita. Denak lerroan jarri zituzten, amak mundura eman zituen bezela. Ta, banaka neurtu-alean, sendagilleak bere azterketa egiten zuen gorputz guzikoa, eta banaka bazijoazen neurtuak.

Joxe izan zan lenengoa. Lúzeran polliki. Zabalera ere bazeukan berea. Gorputz ederrekoa zan. Berak ere bazekien. Ontzat eman zuten.

Iñakik ere bukatu zuen berea. Au ere, an beiñepein, ontzat eman zuten.

Azkenekoa Santi zan. Joxek etzion itxogin nai. Iñaki ta biak ura utzi ta joatea nai zuen. Baiña onek ezetz zion. Elkarrekin etorri zirala, bai, ta joan ere ala egingo zutela. Etzion kontra aundirik egin eta itxogin zioten.

Sendagillea Santiren aitaren laguna zan. Bere abizena esan orduko, ala galdetu zion, arrituta xamarra:

— Santi, i ez al aiz olakoren semea?

— Bai, jauna. Uraxe bera.

— Zer gertatzen zaik?

— Ondatua nagola, alegia?

— Nik azkeneko etxean ikusi iñunetik beiñepein, bai. Tisiko al ago-edo?

— Ez det uste olako gaitzaren jabe naizenik.

— Etzekit, bada, motell. I urtu aiz.

— Ibilli ere asko ibiltzen gera ta...

— Ez, Santi. Ori ez dek ibilliarena.

Besora begiratu zionean, antzeman zion zergatik zegoen ala.

— Onoko ziztako auek zerekin egin dituk?

— Ni neurtzera etorri naiz; ez sendagillearengana. Zuk buka zazu egitekoa, bai, ta utzi neri pakean.

— Sendagillea nauk; eta, beste lan batera etorria izanagatik, ire familia benetan maite dedan oietakoa. Utziok, motell, droga zikin orri.

— Zuk ez daukazu ortan nerekin zer sarturik. Zure lana bete zazu, bai, ta utzi neri pakean.

— Gizatxar, gizatxar! Norbaitek erakutsiko dik erantzun obeak ematen. Ez oa leku txarrera. Ziztako oiek ez badituk uzten, erruki zaituztet i ta ere etxeakoak. Zama ederra izango aiz aientzat. Ni ez nauk ikusi bat egitera bakarrik etorri. Zuen akats ta gaitz guziak nik zuen txartelean jarri bear dizkit. Irea ere bai, beartua nagoen ezkerro. Beste gainerakoa an erakutsiko ditek.

— Esaidazu zer egin bear detan uzteko, eta gaurtik asiko naiz.

— Orrek erremedio bakarra dik: borondatea.

Dena bukatu zanean, ala esan zion neurtzailleak:

— I baiño luzeagoak badituk emen bateonbatzuk. Baiña bularretako inguru ori ik aiñakoa duenik, ez dek bat bakarrik ere. Alako mutil ederra aiz ta utziok betiko ziztako zikin orri.

— Alegiñak egiten ditut, baiña ezin det — esanta, joan zan andik.

— Orren ondatua ote nago ni? —zion berekiko—. Denean galdera berdiña. Onuzkero nere lagunak joanak izango dituk. Aspaldian igesi bezela zebiltzak.

Alare, ez orratik. Zai zeuzkan. Elkarrengana bildu ziranean, ala galdetu zioten biak:

— Sendagilleak-eta, zer esan ditek?

— Ni baiño luzeagoak badirala emen bat edo beste; baiña bular-ingurua nik detala denetan lodiena.

— Eta besterik ezer ez?

— Jakin nai zenduteke zuek ere zerbait noski?

— Ez genikek, betiko lagunak izanta, elkarrengandik berexterik nai.

— Bai. Aspaldian geienak esaten didatena: zer gertatzen zaidan; gaixo al nagoen. Azkenean, besoko ziztako auek zerekin egiñak ditudan. «Dakizun ezker, zergatik galdetzen didazu? Esaidazu zerekin sendatu nezaken» esan ziot. «Sendagai bakarra zegok orrentzat: borondatea» erantzun zidak.

— Egia ziotek, Santi. Lengo kolore eder aiek joan zaizkik; eta, i izan aizenarekin, txoro-arpegia ari zaik jartzen. Begiak dantzan dabilzkik ara ta onera, txoro-txoro ñirñirka. Uztak, motell, bein betiko droga zikin ori.

— Bai. Bazekit zuek diozuten guzia egia dala. Baiña naigabez aitortuko dizutet ezin detala. Alegiñak egiñagatik, dena alperrik. Illabeteak igaro dizkit, erotutako batek bezela, eutsi ta eutsi. Baiña gorputzak ori eskatzen zidak, eta azkenean artu

egiten dit. Erotuko niñuke bestela. Amaika aldiz eskeiñi ta utzi izan dit. Baiña berriro erori. Zenbat bider eziñean negar ez detan egin! Nere burua ondatua, gurasoak naigabetan, nere atzetik begira jarri ta aien begiratu triste errukiorra ikustean, barren guziak nasten zaizkidak; eta bertan belau-niko jarri ta barkazioa eskatzeko zorian jartzen nauk. Baiña zertarako, urrengo egokieran eroriko niñukek berriro ta? Ni naukatek etxeko negarra. Anai-arreba gazteagoak ortara jarriko ote ditudan beldurrak bizi dituk nere gurasoak. Aide, lagun ta adiskide guzien lotsagarri jarri nauk. Denak bazekitek nere berri. Azkenean, aurrean daukagun itxaso ori izango dek nere illobi.

— Itxaso? Zer egiteko daukak ik or?

— Putzu ortara nere burua botatzea izango dek nere azkena. Gorputz zikin onek etzidak orduan drogarik eskatuko. Ezkutatu denen aurretik. Ezin nindekek ni orrela bizi. Dirua bear erosteko ta eduki ez. Gero, tirabidean daukadan guzia ebatsi. Etzazutela egundo oietako ariñenik ere artu, bein asi ezkerro goraka joango zerate ta. Orra nere benetako kalbarioa. Gurasoena ere bai.

Errukiz begiratzen zioten bere lagunak: zertaraiño irixten dan bat, ia erri ontan dan gazterik ederrena bera dek eta!

— Orain etxera joango nauk. Aitak goibel ta serio begiratuko zidak. Baiña ondo, goxo itzegin. Amak zer esanik ez. Losintxa guziak badizkitek neretzat. Baiña nik zekit aien biotzetan zer naiga-

be dagoen eta neregatik nola supritzen ari diran. Purrustadaka ibilliko baniñute, gutxiago suprituko nitek.

Urte artako neurketa bukatu zan. Geienak ontzat eman zituzten, baiña baziran bi edo iru balio etzutenak. Bi motxegiak. Auek, beste bi edo iru urtetan joan bearko zuten neurketara. Bestea, berriz, estuegia.

Beste txuri bana artuta, etxera etorri ziran. Santi, amorruez ernegatua zetorren. Beste bi lagunak triste. Au bidean utzi zutenean, onena baizan lenengo baserria, beste biak ala zioten elkarri:

— Oraintxe arte ain bat ibilli gaituk, eta orain au? Zer joera artu bear diagu orrekin? —galdetu zuen Joxek.

— Aldegiten duen arte, lagundu. Bestela, bere burua galduko dik. Sentimentu onak zeuzkak oraindik. Etziok olakorik iñori opa. Gurasoen nairgabeak benetan samintzen duela ikusia zegok. Jokatuiko nitek nere burua, oraindik droga zikin ori utzi ta gizon-berritzen dala —zion Iñakik.

— Ni ez nauk iritzi ortakoa. Egin dezala nai duena ta kito. Ez gaituk ero batekin orrela ibilliko.

— Erotik ezer gutxi dik orrek. Droga zikin orrek menderatu baitu, eta orain ezin utzi. Ori beste pekaturik etzeukak Santik. Baiña len esan detana: bazeukat itxaropena onek utziko duela.

— Ori ondo pentsatu bearra zeukagu.

— Nik ondo pentsatua zeukat. Nere kontzientziak etzidak agintzen ori bakarrik uztea. Ik nai

dekana egin zak. Berak ez badu aldegiten, nik lagunduko ziot. Zoritxarrean lagun bat orrela uzteko, zer elkartasun geneukaken orduan?

Iruetako nork autsiko ote zuen batasun au?

AGUR-APARIA

Kintoen agur-aparia. Azkeneko urte auetan oitura ori oso sartua dago: gudarozteetara zabaldu baiño len, apari lege batera biltzeko oitura, nai dutenak beiñepein. Orduan berexiko dira, bi urteetarako gutxienez, erriko martxak erabat beste-
rentzat utzita.

Erri bakoitzekoak berean geienetan ospatzen dute agur ori. Beren ixkanbillak ibilliko dituzte. Bai mozkor galantak arrapatu ere. Baiña or geratzen da guzia.

Nere iritzi apalean, ez dago gaizki. Elkartasun ta pakean egiten dana, errirako etorkizun bikaiña. Ez baidira geiago egundo denak batera bilduko. Soldaduska bukatzerako, norbaiteren utsuna nabaituko dute.

Emen ere egiten zuten, bada, apari ori, ta gure iru gazteak eta beren lagunak etzeuden atzera gertatzeko. Txartzat utziak ere an azalduko ziran. Aundi-txikian al dago, bada, gizon baten balioa? Neurketako egunean bertan artu zuten erabaki ori.

Non egin, zer egun ta ordutan, zer apari izango zan, zenbat ordain bearra, denaren kontua aterea zeukaten. Ara zijoanak bazekien, bada, zenbaten kastua egingo zuen apari ortan. Batzuk, aukera gutxi zeukatenak, lendik asi ziran polliki-polliki egun artarako dirua aurreratzen.

Eguna iritxi zanean —ez batzuk nai orduko— denak bazekiten nora joan. Zer apari izango zuten berdin.

Ordua baiño len asi ziran andik-emendik osatu artara biltzen. Au, geienetan, erritik berex zegoena aukeratzen zuten, aien irrintzi, oiu ta ixkanbillakin auzoak etzitezen asarretu. Batzuk, zai zeuden arte, zerbait artuko zuten, diruz ondo zebiltzanak beiñepein. Besteak, kontuz ibilli bearra. Zenbaitzuk, bidean baso erdiren batzuk edanez iritxi ziran, berentzat kalterako agian.

Esandako ordurako kinto geienak bilduak zeuden, bada. Gure iru gazteak ez, ordea. Ta apari osoa izateko bear zituzten. Aietakoa baizan soiñujotzaillea ere. Drogak menderatua zeukana, baiña inguru artan zan jotzailerik onena.

— Nai duena egiten dik orrek soiñu orrekin, itzegin arazi ez besteak.

Ori zan erriko jendearen esana.

Ordua jo ta ageri ez, lagunak zai zeuzkaten. Aiek etorri arte etzuten asi nai, berriz.

— Zer gertatu ote zaie?

— Agian Santi ez dek gauzako.

Erri osoak bai-baizekien aren berri.

— Ori ola bada, epela sartuko zigutek orratik.

— Este soiñu-jotzaillerik etzeukagu saillean. Orain nor billatu? Ondo ordaindu gabe iñor ez dek etorriko.

Garaiz zetozen gure gazteak. Alai asko gaiñera. Santi ere oso jator. Euskal aideak joaz eta txipitixonean, bazetozen aldapak beera ostatu alderuntz.

Zubia igarotzerakoan, oartu ziran an ezbearren bat gertatu zala. Euria egin berri ta lokatz pixar bat bazegoen zubi gaiñean. Estua zan au, erri artako paurrika eder bateko nagusiak beretzako egiña, babes-ormarik gabea. Zubiaren ertzeraiño berebillaren aurreko bi kurpillak sartutako aztarrenak bazeuden; atzeratutakorik ez.

— Emen ezbearren bat gertatu dek.

Zubitik beera begiratu zutenean, berebil bat ikusi zuten erre kara eroria. Bai norena zan ezagutu ere: langille askoren ogia sortzen zuen nagusi batena.

Aztu ziran soiñu-jotzeak eta agur-apariak. Bereala jetxi zan lagun aietako bat, aldapa artako lokatzetan, berebillaren ondoraiño. An ikusi zuenak urrikalduta utzi zuen gure gaztea.

Berebilla urean zegoen, errekan sartua, zubiz mendi aldera eroria. Beera, berriz, ibaia, ia gaiñezka. Urak azitzen ari ziran. Baiña etzeukan ibaira eroriko zan arraixkurik. Bi arkaitz penditzen erdian ondo lotua zegoen. Euri ugari egin ondoren, aziak zetozen urak; eta geienetan erreka xior bat besterik etzana, orain ugalduta indarrean zetorren.

Barruan aita-alabak ikusi zituen, ia leporaiño urean, baiña oraindik biak bizirik eta lotuak. Atea zabaltzeko, berriz, arkaitzak galerazten zien. Berak etzezaketela ezer egin ta norbait azalduko zan itxaropen gutxi, beren biziz etsi xamarak. Ordu-rako illuntzen ari baizuen, eta urak indartzen.

Jetxi zan gazteak, Iñakik, ala ikusi zituenean, urrikaldu ta errekaraiño joanta, kristala jo zuen beatzakin. Biak ezagunak zituen. Lenengo, Maritxu. Beste aldean, bere aita, txoper.

Kristaleko otsa entzun zutenean, biak batera begiratu zuten, baiña etzuten ezagutu. Illun xamar, ta lokatzak zikindua, berriz, kristala.

— Jaungoikoari eskerrak, norbaitek billatu gaitu. Bestela, emen geratuko giñan —zion zoriontsu aitak.

— Neretzat beranduegi noski. Oiek etortzera-ko, otzak jelatuko nau —alabak.

— Ez, Maritxu. Zaude lasai. Oraindik etzau-de orren ondatua.

Beeko gazteak oiua egin zien goikoei:

— Ekatzute lenbailen gure etxeko soka luze ura ta palanketa txikia. Paurrikako nagusia ta alaba

zeudek barruan leporaiño urean, ateratzerik ez daukatela, oraindik bizirik.

Santi, soiñu-jotzaillea, joan zan etxera, ez dakit aidean-edo, baiña atzera-aurrerak laxter egin zituen. Iñork uste baiño len zubian zegoen, Iñakiren aita berekin ekarririk.

Ordurako illundua zan. Baiña etxetik linterna eder bat zekarten. Aren argira, goiko lizar bati lotu zioten soka; ta, ari eutsiz, lokatza ta toki labaiña baizegoen, jetxi ziran laurak lenengo, linternaren argira, oraindik bizi ote ziran ikusteko. Baita, gazteak esan bezela, paurrikako nagusi-alabak zirala ezagutu ere. Oso egoera txarrean, ordea. Etzeukatzen noski oraindik itotzeko beldurrik. Baiña otzak ia ondatuan.

Alde batera iraulia zegoen berebilla. Baiña lauren artean bai zuzendu ere, atea zabaltzeko. Urak zekarren indarrak, etzuen lana ondo egiten uzten. Baiña autsi gabe zabaldu zuten atea. Biak sokatik gora igo zituzten zubira.

— Eskerrik asko, Felix ta gazteak. Bizia zor dizuegu —zian nagusiak.

— Bai. Otzak galduko ziñuzten. Baiña arraixkuan bata besteari ez laguntzekeroz, zertarako gaude munduan?

— Ederki esana. Baiña au ez da ortara geratuko.

— Utziozu orri pakean. Agian gu ere zuentzaz beartu giñezke, ta orduan laguntzea naiko degu. Gaur berandu egingo zaigu ta biar aterako dizugu berebil ori.

— Ez ukuitu, nere langilleak aterako dute ta.

— Obe dezu zubi oni babes-orma bat jasotzea. Arraixku txarrekoa geratzen da au.

— Putzuan gaudela, ta bizirik ateratzen bage-ra, orixe esan diot nere alabari. Berebilla labaindu zait; eta, kargak menderatuta, goitik beera.

Elkarri esku emanetz:

— Agur, Don Antonio ta Maritxu, zuek oztutzen ari zerate ta.

— Agur, Pelix ta gazteak. Eskerrik asko berriro ere.

Andik eun metrora zegoen Don Antonioren txaleta. Bixi-bixi, berotu nairik, Maritxu aitari lotua, joan ziran.

Santik, egindako lanagatik poztua, artu zuen soiñua ta alai, euskal aire batzuk joaz, lagundu zien etxeraiño, andik igaro bear zuten ta.

— Gaur jairen bai al dezute? —galdetu zien Don Antoniok.

— Bai, jauna. Aurtengo kintoak gera ta gaur agur-aparia degu, erriko kinto guziak batera, olako ostatutan. Onuzkero gure zai egongo dira noski, soiñu-jotzaillea gurekin dijoa ta.

— Ez daukazute adin txarra.

— Gazte oiek, norbaitek esango du, lanak gurasoei utzi ta baziazik parrandara. Baiña Jainkoak bedeinkatu egin gaitu. Bestela, etziñuzten gau ontan iñork billatuko. Ez baita iñor bide ontatik ibiltzen.

— Bai. Illak arkituko giñuzten. Baiña orrela, zikindu ta erdi bustiak, joan bear al dezute?

— Zerbait busti ta zikinduak joanagatik, arrats ontan zerekin berotua izango degu. Gaiñera, zer lan egin degun jakitean, denak txaloka artuko gaituzte.

Aita-alabak etziran nai ordurako etxera iritxi. Busti-bustiak eta oztuak baizijoazen. Eun metro aiek luzekak iruditu zitzaizkien, pulmoni txarren bat arrapatzeko beldurrak, otz aundirik etzegoen kanpoan baiña.

Etxera iritxi ziraneko, zai zeuzkaten, alako aire alaiak joaz zijoazenak nor ote ziran jakin nairik.

Aiekin batera zetozen etxekoak ere; ta, bustiak eta berebillik gabe ikusi zituztenean, arritu ziran.

— Zer gertatu zaizute? —galdetu zieten.

— Gero dena esango dizuegu, busti-bustiak gatoz-ta.

— Zuek pixar bat itxogin —esan zien gazteei.

— Zu, berriz, atoz barrura —esan zion emazteari—. Emaizkiezu millana pezeta, bizia zor diegu ta.

Bereala alai-alai atera zan etxekoandrea.

— Torizkizute millana pezeta, nere senarraren partetik. Zuek egin dezuten lanarentzat ez da ezer ori, baiña eskerrik asko biotz-biotzetik. Ederretik salbatu gaituzute.

— Baita ere zuei, etxeoandre. Etzaizkigu aue-
txek gaizki etorriko. Kintoak gera ta gaur degu
aparia.

— Suerte on bat izan dezazutela. Gure etxera
zoriona ekarri diguzute beiñepein.

Etxekoandrea agurtu orduko, asi zan berriro
Santi euskal aireak jotzen. Onek, atzetik begira-
turik, ala zion:

— Zer ote da gazte izatea!

Beren lagun apaldarrak zai zeuden, luzetetsi-
rik, laxter apaltzeko asmoan. Baiña zer jai egin
bear zuten soiñu-jotzaillerik gabe?

Neskatx serbitzari aietako bat orduan sartu zan
eta ala esan zien:

— Palta ziranak badatoz noski, soiñu-otsa en-
tzuten da ta.

Apal-tokira sartu ziranean, ala zioten ba-
rrukoak:

— Zuek erdi busti, zikinduak, zatozte. Burru-
kan ibilli al zerate-edo? Gu, berriz, aspertuak emen,
zuen zai.

— Bai. Naiko burruka izan diagu. Bizi ta zau-
li ibilli geranari eskerrak, Don Antonio ta bere ala-
ba Maritxu salbatu dizkiagu, berebil ta guzi erre-
kara erori ta ezin aterarik, leporaiño urean eta
lotuak.

— Bejondeizuela, mutillak! Etziogu jaiari asie-
ra txarra eman.

Eta txaloka asi ziran denak, parte artu zuten iru gazte aien pozean.

— Maritxu esan dezute? —galdetu zuen norbaitek.

— Bai. Don Antonioren alabarik zaarrena.

— Gurekin dantzan egiteko zergatik ez dezute ekarri?

— Oillo bustia bezela, daldaraka zegoken. Ez dek nai orduko etxean sartu. Dantzak aztuak zeuzkaken gaixoak.

— Egia al dek ori dena? —galdetu zuen batek siniskaitz.

— Olako gezurak asmatzen ezin ariko gaituk.

Iru gazte aiek ekarri zuten jaia. Apaldarrak kontentu ziran etorri ziranean.

Aparia etzan beste mundukoa. Baiña berak eskatu zutena ta aukera. Zer geiago bear zuten? Ari bultzatzeko edariaren paltik ez. Bakarren batzuk arrapatuko zuten ikaragarria. Aietako asko ez baitzeuden zurrutean oituak.

Mai gaiñean zeuden lenengo jaki xixtriñak bukatu zituztenean, asi ziran bi neskatx serbitzariak ekarri ta ekarri. Arkumea zuten nagusi. Andik aukera jan ezkeru, zertarako eskatu besterik?

Aparia aurreratu-alean, ixkanbilla ere goraka zijoan. Ezin zieten serbitzarietara pakean utzi. Baiña aukeratu ez ziran asarretzen, ortara oituak zeuden ta.

Jateak bukatu ta kapeak ekarri aurretik, Santik dotore jotzen zuen soiñua. Belarri erneak eta

beatz zauliak zeuzkan ortarako. Droga zikin ori utziko balu, zenbat jolas ta umore jarriko luken gazte orrek!

Aparia bukatu zan, baiña ez umorea. Soiñua-rekin txandatur, ta onekin batera ere, orduan erriaren aotan zebiltzan abestirik geienak kantatu zituzten. Andik aurrera, ezer artu nai bazuten, beren patrikatik kastatu bearra zeukaten.

Baiña orduan mazal-mazal zutitu ziran iru gazteak, eta Don Antoniok emandako iru milla pezeta aiek bota zituzten maiera, esanez:

— Ez dezala iñork bere patrikatik xentimorik ere kastatu. Gorde ori serbitzari auei eskupeko on bana emateko. Auek denentzako zeudek. Baita neskatxentzat ere. Diru au aitu artean, jarrai dezala gure umoreak.

— Bejondeizuela!

Ta egundoko txalo-erasoa izan zan erantzuna.

Egia esateko, orduan bukatu ere ango jolasa. Andik aurrera etzuten edan besterik egin. Akeita artu ondoren, igo zan ixkanbilla. Gogotsu ari zan soiñu-jotzaillea. Ango jauzi ta dantza! Berdin neskatxak berak etziran atzera geratu. Baziran maia-
ren gaiñera igo ta aritu ziranak ere. Baiña oraindik geienak erne zeuden eta etzieten mai gaiñean uzten.

Dantzarako gogo aundirik gabeak ere bazeuden tartean, geiegi jan da edanak, dantzan zora-biotuak, ainbeste kostatako jan-edanak botatzen ari ziranak, ostatua ixteko ordua iritxi arte.

Aparia bukatu zan. Milla pezetakoak ere bai. Andik erten baiña len, neskatzentzat eskupekoa bildu bear zuten, al zuenak al zuena. Ori borondatezkoa zan, baiña etzuen iñork lotsagarri geratu naiko.

Mutil batek, Iñaki zala uste det, txapela pasa zuen mai inguruan, serbitzarien eskupekoa biltzeko. Ondo eman zuten. Pozik gaiñera.

Tartean bazan, ordea, bat, dirua txapelera bota bearrean, artu zuena. Ez oso gutxi gaiñera. Iñaki ederki oartu zan. Ez dakit besterik. Ixilik gorde zuen. Alako jaialdiari zertarako azken txarra eman?

— Ara gure eskupekoa. Ez dakit asko edo gutxi dan. Baiña bai borondatez emana.

Zenbatu ondoren, ala zioten:

— Eskerrik asko. Orain artekoetan, zuek zerate oparoenak. Noiz egin bear dezute beste olakoren bat?

— Eta zuek ez al zerate ogei urteetara irixten?

— Aizazu, ta egia! Ez giñan oroitzen ere, gure garaia joan zan baiña.

— Zuek, ordea, ogeitara irixtean, iñork esango al du ainbeste dituenik?

— Ez, noski. Urte baten gezurra geienok esango genduke.

— Guk serbituko genizuteke.

— Bai ederki eman ere. Txukun asko noski.

— Nik leku askotan ikusi ditut gizasemeak garbi ta errespetoz serbitzen. Aiek etzeukaten zuen aitzakirik. Alare, guk naiago ditugu neskatxak.

— Errukarriak, emen bi neskatxek ainbeste mutillei serbitu diguzuten bezela, bi mutil joango balira zuetako berrogeiri serbitzera. Gu zirikatzaileak gerala. Baiña etziñateke zuek ere atzetik geratuko.

Bukatu zan dena. Batzuk atera ziran. Eziñean zebiltzanak ere, izaki ordea beren lagunak. Aiek ere, erdi berdoztuak, eraman bear izan zituzten beren etxera.

— Agur. Urrengoa arte.

— Eskupeko ona eman diguzute beiñepein. Gutxitan irixten zaigu olako mauka. Ta eskerrik asko, gu ere zuen jai onetan sartu gaituzutelako. Suerte on bat izan dezazutela.

— Berdin. Bi urte galdu bear orrek min ematen digu. Zerbait geratuko al da! Oien izkuntza berderenik ikasiko degu.

Illun zegoen, baiña bazekiten bidearen berri.

AMONATXO BATEN ERASOA

Ostatuan denei agur egiñez, bero-bero jarriak, ez mozkorrak, atera ziran gure gazteak beren etxetara. Soñua eten gabea, tarteka irrintzi ta oiua, mendi aldera zijoazen. Irurak baserritarrak baiziran.

Berandu zebiltzan. Auzo artako geienak lotarra joanak. Amaika etxetan esango zuten, aien iskanbillara esnatuak:

— Gau-txoriak aleenak! Ez al dakizute gau erdia pasea dala, ta geienak lotan, biar goizean lanera joan bearrak gaiñera?

— Aurtengo kintoak omen dira —erantzungo zion norbaitek.

— Orrela ibiltzeko, ori ez da arrazoia.

— Utzi zaiegun pakean. Ez ditzagun orren gaizki epaitu. Beste bi urtean ez ditugu nabaitu-

ko. Urteroko oitura ori dute kintoak. Guk ere egin genduen.

Baiña Don Antonioren balkoipetik igarotzera-koan, etzituzten orren gaizki epaituko.

— Or dijoaz gure salbatzailleak. Kintoak ez bazuten gaur aparia eduki, onuzkero otzak illak geunden aita-alabak.

— Ez det gogoratu nai —erantzungo zion emazteak.

— Jainkoak bedeinka ditzala.

— Etzaigu betiko negarra sartu, oiei eskerrak.

Gazteak ere umore oneko oiuegin zuten:

— Aupa, Don Antonio ta etxeakoak! Parranda txarra omen dek. Geiegia bai noski. Baiña esker-rrak gaurko gure apari oni, orain negarra besterik etzan fameli bat zorionekoa egin diagu. Gora aurtengo kintoak!

Eta aurrera jarraitu zuten, soiñuarekin euskal aideak joaz ta irrintzika. Arratseko ixiltasun artan, burrundara ona igoko zan inguruko baserri ta mendi-egal aietan barrena.

— Eroak aleenak! —esango zuen norbaitek.

Baiña geienak bazekiten urte artako kintoak ziralara; ta, bi urterako agur bat bezela, etzitzaie gaizki iruditzen olako bat egitea.

Amonatxo bat bazebillen, ordea, etxe barruan urduri, loak ezin arturik; eta soiñu, oiuegin ta irrintzi aiek entzunik, asarre balkoira atera zitzaie purrus-tadaka.

— Auxe ere bada gazte batzuen planta! —eraso zien.

— Ogei urtean orrelako bat ez det uste gaizki dagoenik, amonatxo —erantzun zioten—. Aurten-go kintoak gera. Beste bi urte luzetan pakea izan-go dezu, gure aldetik beintzat. Gaurko au barkatuko al diguzu.

— Orrela ibiltzea etzegok beiñere ondo.

— Zu ere, jakiña, orrelakoak egiña izango zaitugu. Orain, ezin dezunean, besterenik ezin eraman.

— Lotsagabeak aleenak! Etorriko zaizute zuei ere, bai, garai au, Jainkoak ez bazaituzte lenagotik eramaten.

— Gure ezurak nonbait or uzteko ez goaz leku txarrera. Baiña osasunarekin zaartzen bagera, ez degu uste, alai etxera dijoazenei kargu artzera balkoira ertengo geranik. Zuek ere, gaiñera, ez al dituzute tarteka-tarteka olakoak egiten? Nere azkeneko illobaren atsolorrean, bazan atsotik aukera. Etziran denak gu bezin erne geratu.

— Utziazute oitura garbi orri pakean. Auzo-koen onarekin pozten gerala besterik ez dek ori. Atso bat bakarrik ez uan gaiñera. Denak seme-alaben batzuen amak giñun. Jan ta edan genduen guzia eramana uan. Beste gaiñerakoan, uste dit artu genduen ainbeste utzi genduela.

— Guk ere gure-guretik egin degu parranda txiki au, ta ori bera eskatzen dizugu: uzteko guri pakean.

— Bai, bai. Ai zer etorkizuna dakartzuten!

— Eta zer da etorkizun ori?

— Zuek dakartzutena ez beiñepein, zaarrei ere ez diezute begirunerik eta.

— Aizu, amonaxo: ez baziñan balkoi ortara kargu artzera azaldu, etzenduen olako erantzunik artuko. Errespeta itzazu lenen besteak, zuri berdin egitea nai badezu. Pakean bizitzezkeroz, orrek ala bear du.

— Zoazte, zoazte, buruan aizea besterik ez daramazute ta. Gu aiña izatea aski dezute zuek ere. Gazterik asi zerate geiegian.

— Gure poza ez da edanak dakarrena. Igesbiderik gabe galduak zeuden aita-alabak salbatu ditugu, eskerrak gure parrandari.

— Irratiak aizatu dik, bai, zerbait. Lan orren-gatik zorionak. Baiña gaurko oiua ta iskanbillagatik ez dezute olakorik merezi. Bazter guziak aizkatu dituzute, garai ontan gaiñera.

Erantzunik eman gabe, aurrera joan ziran kantari, amonaxoa balkoi gaiñean armonian utzita.

Andik bereala utzi zuten Joxe. Beste biak etzenden konten arekin. Arro xamarra, etzuen eztabaidarik nai izaten. Beti berearekin geratu bearra, utzeziña balitz bezela. Pakearengatik utzi egiten zioten.

— Ikusi al dek gaur zer egin duen Joxek? — galdetu zion Iñakik.

— Nik ez —erantzun zion Santik.

— Serbitzariantzat diru biltzera joan naizean, txapelan zerbait utzi bearrean, artu egin dik, eta ez oso gutxi.

— Eta iñork ikusi ote du?

— Batek bai. Buruari eragiñez, keiñu egin zidak.

— Lotsagarri utzi gaitzik orduan.

— Milla pezetakoak min emango ziokeen.

— Judasen opizioa.

— Etziteken, bada, dirurik gabe bialiko. Etxalde onekoa dek ori.

— Besterenetik bizitzeko griña, ordea.

— Soldaduskarako diru aurreratzen asia izango dek.

— Nik, nere droga zikin ori ta guzi, ez dit olakorik egingo.

— Beti izan dik jenio arroa, ta gero ta nabarmenago.

— Aurki banatuko gaituk; eta, andik etortzean, aurreak erakutsiko ziguk nola dantzatu atzea.

Iñaki ere agurtu zuen bidean; eta, soiñua jo ta jo, iritxi zan bere etxera. Gurasoak bereala nabaitu zuten. Ura baizan etxeko negarra.

— Badator gure Santi.

Amak jeiki ta atea zabaldu zion, eta maitasunez artu zuen.

— Gabon, ama. Berandu xamar noski.

— Baita iri ere. Naiko jolasa egin al dezute?

— Baita geiegi ere.

— Zuen adiñerako ez dek ori ezer. Zerbait artu nai al uke?

— Ez, ama, ez, beteegia nator ta. Alare, gure jaiak ez dira alperrikakoak izan. Lan on bat egin degu, Don Antonio ta bere alaba ia itoan zeuden lekutik guk salbatu ditugu ta.

— Bejondeizuela! Irratiak zerbait esan dik, bai; baiña salbatzailleak nortzuk diranik ez. Sendikoa ezik, erriko negarra ere kendu dezute.

Semea txuxenean oiera joan zan. Amak goibel begiratzen zion, berekiko pentsatuz:

— Ez aiz, bada, i mutil gaiztoa. Ire biotza mazala dek. Droga zikin ori utziko bauke, ai zer pakea gure etxean!

Santiri, amaren ardura ta maitasunez oarturik, itz erditxo bat txarrik etziola esaten, baiña goibel zegoela ta ori beregatik zala, oiñetaraiño erori zitzaion biotza. Bere gurasoen pakea galtzen ari zan bera.

— Ni nauk, ni, etxe ontako negarra. Droga mardarikatua! Ta ezin utzi!

Goizean esnatu zanean, gogora etorri zitzaizkion bezperako gora-beerak. Amonatxoaren itzak durundan zetozkion berriro belarrietara: «Ai zer etorkizuna dakartzuten!» Amar milla bider entzundako itza. Baiña etzitzaion egundo orduan bezela sartu.

— Zer da ori? Nun dago? Munduan bukatzen da guretzat beiñepein, eta amaiera duenari nola etorkizuna deitu? Don Antonio ta bere alaba an ito baziran, zer zan oien etorkizuna?

Buru-auste ikaragarria zebilkien, korapillo ori ezin askaturik.

— Aurrak zertarako bialtzen dituzte ikastera? «Beren etorkizunagatik» erantzungo dizute. Neka-zariak, arrantzaleak, zergatik daude orren lanari lotuak? Berdin erantzungo dizute. Zergatik ezkondu ta ari dira lanean nere gurasoak? «Zorioneko etorkizun orrengatik» erantzungo dizute. Neroni ere ikastera orretxengatik joaten naiz. Baiña ori non dago? Geienak mundu ontan jartzen dute. Au, berriz, bukatzen zaigu, adiñik onenean askotan eta bat-batean, gure amets guziak mozten dituela. Galderak sakontzen asten bazera, orduan norbaitek esango dizu: «Bai. Ondo pentsatu ezker, gure etorkizuna Jainkoa dek. Baiña mundu oni deitzen ziogu, ta or zeukagu gure maitasuna jarria». Baiña egunero begien aurrean ikusten degu orren iruzurra: gudateak, asarreak, ezin ikusiak, elkar iltzeak, ezbearrak. Itz batean bukatzeko, negarra ta miña besterik ez. Obe genduen orduan, kalean dabiltzan txakur oietakoak izan bagiña. Beti amets baten atzetik gabiltza, etorkizuna alegia, ta ezin iritxia.

Goizean jeiki zaneko, zorionak eman zizkionten, Don Antonio-ta salbatu zituztelako. Baiña begiratu triste ta errukiorra. An igertzen zion garbi, sendiak beragatik zeraman kalbarioa.

Bere gurasoak ezkondu ziranean egin zituzten amets gozoak galtzen ari zan, bada. Bazekien zerekin moztu. Baiña borondatea palta zitzaion. Bere burua itxasora botatzeko zorian jartzen zan. Droga madarikatua! Ta ezin utzi!

— Orain ikastetxera joango nauk, eta betikoa ezkutuka urbilduko zaidak, «Bazeukat. Nai alde?» eskeiñika. Orain arte, nere igesbide bakarra au dek: «Etzeukat modurik». Urte bete ontan olaxenabillek eutsi ta eutsi. Baiña alakoren batean eroriko naizen beldurra.

Oldozpen triste auek buruan zebilzkiela joan zan ikastetxera.

JOXE

Asko pozik joaten dira soldaduskara: urte pare baterako erritik urrun, lagun berriakin, etxeko lan guziak utzita; mundu borobil au zerbait ikusi; gurasoen begietatik ere galdu. Benetako morrontza iruditzen baizaie emengoa.

Joan aurretik egiten diran amets goxoak. An begiak zabaltzean, ez dute berdin pentsatuko. Ur ortan paseak orren berri badakigu. Etxekoa baiño okerragoa arkituko dute angoa. Emen, geienetan, maitasunezkoa izango dute. Baiña an indarkeria; ta ezer gutxirengatik zigorra.

Gurasoak, bein seme-alabak adin ortara ezke-ro, ez dakite zigortzen. An bai, ordea; ta pertsonaren begirune aundirik gabe, mando bat balitz bezela. Alare, emengoa gogorra omen da. Ez dute angoa ariñago arkituko.

Asko, alperkerian bizitzera dijoazelako ustetan, alai joaten dira. Bi urte igarotzerako, botako dituzte amets oiek.

Etxean bezelako askatasunik ez diete utziko. Eguneko orduak ongi neurtuak. Ibillera guziak berdin. Jakiña ordu askeak emango dizkietela. Baiña orduan ere obe dute agintari oiekin erne ibilli, ikusi ta ez badituzte agurtzen. Laiñeza aundikoak dira ortan, ez dakit arrokeria edo zer dan ori. Naiz koartelean, naiz karrikan, begirune aundia edukitzea nai izaten dute. Bestela, kalabozo edo zigorzuloko tristurak ikusi bearko dituzu.

Ez; alperkerian bizitzen ere ez diete utziko. Bateko bere ta etxeko garbitasuna. Ematen dieten armarena ere bai. Ez nolanaikoa gaiñera. Gero, goiz ta arratsalde, instruzioak. Dena lotua; eta, ez baidu ondo egiten, zigorra.

Pozik joan ziranak, bi urte luze aietan asper-tuxeak, konten etortzen dira, ta berak uste zuten baiño mundu gutxiago ikusita gaiñera.

Gudatean ibilli ta gero koarteleko bizi-modura sartu zan batek, ala esan zidan: naiago zuela arek, beretzat beiñepein, gudatea, pakean koarteleko bizi-eria baiño. Koartelean gutxitan izango zenduela iltzeko moduko arraixkurik; baiña etzizutela buruan azkure egiten ere utziko. Dena lotua, dena presaka, bazter guzietan agintari oietakoak begira. An etzegoela ezeren askatasunik. Gudatean, berriz, egunen erdiak askatasun osoan. Aurrera joan ta bala batek arrapatu ezkeru, suerte txarra. Baiña euneko gutxi galtzen zirala.

Gure iru gazteei ere iritxi zitzaien, bada, soldadu joateko ordua.

Lengo iruko ezin berexi ura oraindik bat zegoen. Baiña bein agur-aparia egin ezker, ez len bezin elkartua. Lapurretan arrapatu zutela-ta, ori lagunen artean zabaldua. Etzan aitzaki bat besterik. Iñork ikusi ta salatzeke beldurrak zeraman, ezin gordean, azkeneko illabetean artu zuen bizi-modu zikiña. Ori zan okerrena.

Soldadu joaterako geienetan batuak, elkarrekin jarraitzen bazuten ere, aitzaki gutxirekin utziko zituen lagunak Joxe iruetako batek.

Zapuzteko, beste aitzaki bat ere bazegoen: Santiri gazte jendeak, batez ere emakumezkoak, jarraitu egiten ziotela, ta berari ez.

Bera, askatasunera zijoalako, konten joan zan. Beste biak etziran asarre geratu. Bi urteko pakea utziko al zien.

Iñaki ta Santi beti elkarrekin ibilli ziran. Onek bazekien, bere erorikadak izaten bazituen ere, lagun arterako atsegiña zala. Zijoan lekura, beti poza zeraman, eta Iñaki bezelako gazte batentzat alai-garria zan ori. Droga zikiña uzteko egiñalak egiten ari zala bai-baitzekien. Agur-aparia baiño ondotxo lenagotik, ia urte bete etzuela artu.

Auek, soldaduskara joan artean beiñepein, batuak ibilli ziran. Soldaduskara, berriz, banakabanaka biali zituzten, eta urruti bata bestea-rengatik.

Etzuten, ordukoz beiñepein, Joxerekin autsi nai, au askotan beste lagunakin ibilli arren. Esku-bide osoa zeukan. Saillera zetorreanean, bada, beti maitasunez artzen zuten, berak nai bazuen beiñepein, ala jarraitzeko asmoan. Soldaduska ondorean, etzekiten zer joera artuko zuen. Denak etorriko baziran ere ez.

Etziran denak errejimientu batera erori. Orregatik, soldaduskatik etorri arte, lagun berriakin ibilli bearko zuten. Atzeratzeko ere esan zieten, karrerari jarraitzeko. Baiña etzeukaten gogo aundirik.

Joxe Madrid'era joan zan. Anai gazteak lagundu zion geltokiraiño. Aitarekin etzuen naiko noski.

Berak uste zuena etzitzaion agur egitera etorri, lendik abisatua bazeukan ere. Lenengo ipurdikoa lagun arek eman zion. Anaia, Joxe geltokian utzita, etxera etorri zan.

Joaterako, Joxek, etxeko ta kanpoko osaba, izeba, lengusu ta adiskide guziei, dirua eskatu zien, eta ez oso gutxi. Batzuk borondatez eman zioten; besteak, etortzean ordaintzekotan. Patrikak ondo beteakin aldegin zuen, bada. Ta soldaduskan suerte ona, osasun bikaiña, an zegoen bitartean diru-aukera, lagun paltik ez, ori dabillen lekura euli txuri oiek laxter biltzen baidira.

Soldaduskara joan zaneke, ezagutu zuten kapitan ta gaiñerakoak, lenengo tiro-saioak egiten auziranean, begia jartzen zuen lekuan sartzen zala bala.

Errian, bere kirolik maiteena eiza zuen. An zaildu ta zaulitu zan; eta inguru artako eiztaririk one-

netzat bera zeukaten joa. Etzitzaion soldaduskarako gaizki etorri. Zalantzik gabe errejimientu artan bera zala onena, ta agintariak maitasunean artu zuten. Koarteleko gora-beera guzietatik aske geratu zan.

Kapitan batek bere gain artu zituen ura ta beste lau lagun, eta España'ko bazterrik geienak ikusi zituzten. Koartelak zeuden probintzirik geienetara iritxi ziran beiñepein.

Granada'tik lenengo saria ekarri zuten. Donosti'tik, bigarrena. Santander'en, bakarka, bera izan zan denetan irabazle.

Aize aundia omen zebillen, eta Joxek antzeman zion, ainbeste bidean, ziroctara baiño len, txuxen apuntatzen bazuen, aizeak ara orduko okertu egingo zuela. Pixar bat aizearen kontra baztertuak sutu zituen. Biotzean sartu zizkion ia balarik geienak, ortxe ukabil baten barruan.

Egundoko goratzarreak egin zizkioten. Egun batzutarako etxera etortzeko baimena eman ere bai.

Zer egin bear zuen arek etxean? Eramandako diruak ordurako janak zituen. Nori eskatu? Amak zerbait emango zion.

Lengo ikastetxeko euli txuri arengana joan zan. Ura etxera-bidean arkitu zuen, ta bertara lagundu ere bai, nolako sariak atera zituen ta abar. Baiña neskak ala erantzun zion:

— Zer ikusi daukat nik, zuk zere buruari egiten dizkiozun goratzarre oiekin?

— Nik uste nuen len bezela lagun jarraituko genduela.

— Ez, Joxe, ez. Ura joan zan. Etzidazun kalte gutxi egin. Mesedez, etzaitzela nere bidera erten, eta emendik aurrera igaro ere ez. Bestela, aitak ikusten bagaitu, gure bizkarrak ez dute otzik izango.

Beraz, neskak muzin eginta biali zuen bere ondotik.

Jakiña, jai eman zizkioten egun aietan, etxean ere etzuten ezertarako beartu. Lanerako ain gutxi. Baiña asper egiñak igaro zituen. Dirua palta ta iñork emateko gogorik ez. Lagunak ere atzera egin zioten, geienei zor zien ta. Ia iñor agurtu gabe joan zan berriro.

Soldaduska beiñepein ondo igaro zuen; eta, bi urteak bukatutakoan, etxera biali zuten.

IÑAKI

Oni aitak lagundu zion geltokiraiño. Osasuntsu atera zan etxetik, eta gazte jatorra gorputzez eta animaz. Baiña etzan etxera ala biurtuko.

Onek, gizarajoak, etzuen Joxek bezelako suertirik izan. Au Zaragoza'rako aukeratua zegoen. Auxe bakarra zan txuxen ibilli ta gurasoei naigaberik eman gabea. Soldaduska egin alean bere karrerari jarraitu nai zion. Mutil zintzoa izaki bere errian, eta berdin jarraitu gudaroztean, ezbear batek ondatu zuen arte.

Indarpeko pakean bizi ziran. Guda aspaldi bukatua. Baiña guda-lan batean ari zirala mendi batetik bestera probak egiten, sartu zuten obus aundi oietakoa; ta, uste gabean, bertan lertu zitzairen. Aren orrura, su ta burni-puskaz josiak, txiki mi-

lla puska egin zitzaizkion Iñakiri bi aldameneko lagunak. Bera, berriz, zearo zauritua baiña bizi-rik geratu zan, gorra ta itxua ordukoz beiñepein.

Bixi-bixi ospitalera eraman eta Jainkoak bes-tek ez daki zenbat burni-puska atera zizkioten gor-putzetik. Alare, etzion ezurrik autsi.

Polliki-polliki entzumena etorri zitzaion. Ez, ordea, bistarik. Etzuela ikusten ta alegiñak egin ziz-kioten. Bi edo iru aldiz ebakuntza egin ere bai. Bai-ña dena alperrik. Gure Iñakiri etzitzaion begieta-
ra argirik biurtu. Biziko zan urte guzietarako itxua geratu zan. Baiña etzan saiatuaren paltan.

Orra gure gaztearen ametsak. Orra bere etor-
kizuna. Zintzo ibiltzeak, mundu ontarako beintzat, etzion asko balio izan.

Etxean eskutitz bat artu zuten, baiña ez berak egiña: nola beren semeak ezbear bat izan zuen eta olako ospitaletan zegoela. Baiña etzieten itxu ge-
ratu zanik esan.

Irakurri zueneko, amak ala zion:

— Iñaki gaizki samar egongo da.

— Zertan igertzen diozu?

— Ez baida berak idatzitako eskutitza, ta orrenbeste badaki gure semeak. Al izan balu, be-
rak bere eskuz idatziko zigun, guri alperrikako nai-
gaberik ez emateagatik, olakoa da ura ta.

Gurasoak urduri samar joan ziran esandako os-
pitalera. Semeak beren aldetik dena merezi zuen. Etzien egundo naigaberik txikienik eman, solda-
du joan zan bitarte. Ez al zuen ezer askorik izan-

go! Baiña bere eskuz ez idazte orri itxura txarra artzen zion amak.

Bere aurrera eraman zituztenean, semea dena lotua arkitu zuten. Zer gertatu ote zitzaion?

— Kaixo, Iñaki! Zer moduz ago, dena orren lotua? Txikitu egin al aute? —agurtu zuten.

— Ongi etorriak —erantzun zien—. Nere gorputzeko zauri oiek ez dira ezer. Oiek laxter sendatuko zaizkit. Nere gurasoak izango zerate noski?

— Bai, bai! Ez al gaituk ezagutzen-edo?

— Bai; abotsean.

— Eta ez al dek ezer ikusten?

— Ez, zoritxarrez.

— Eta ikusiko dekan itxaropenik ere ez?

— Ez-ta ori ere.

— Ederra marka! Beldurrak etorri gaituk, baiña onenbestekorik ez genian uste.

— Artilleriko obus aundi oietako bat lertu zitzaigun. Bi lagunak gizonaren itxurik gabe utzi zituen. Ni bizirik, munduan supritzeko.

— Eta operatu al aute?

— Bai iru alditaraiño ere. Baiña nere begiak lengoan bezin illun geratu ziran. Azkenean, sendagilleak etsipena eman didate. Nere gorputzeko begietara ixuri dute betiko illuna. Ez det geiago zuen arpegirik ikusiko. Gure inguruko mendi ta baserri eder aiek ere ez. Ori da nik soldaduska ontan irabazi detana.

Amak negar egiten zuen, etzituela geiago ikusiko esan zienean.

— Negarrez zaude noski, ama. Nereak urtu dira. Ortarakoxe gelditu zaizkit: alperrikako malakoak ixuritzeko.

— Zer egingo diagu, negar besterik, i len intzan mutillarekin ta orain orrela ikusita?

— Bai, ama, bai. Ez da arrokeria. Mundu guziaz bezela, nere txirixtadak izango nituen. Baiña ni, Jainkoaren ta zuen aurrean, zuzen ibiltzen egiñalak egin ditut. Orra eman didaten saria.

— Alare, Jainkoaren borondatera makurtzen baaiz, ariñago izango dek mundu ontako ire kalbarioa —esan zion aitak.

— Jaungoikoaren bodondatera... Errex esaten diran itzak. Baiña, aita, betetzen zaillak. Gorpuzteko begiak ezik, sinismenekoak ere itxutuak geratu zaizkit.

— Zer esan nai diguk: sinismeneko begiak ere itzali zaizkikela orrekin? —galdetu zion aitak, erantzuna entzuteko beldurrak.

— Ez detala ezertan ere sinisten, aita.

— Itxua arkituak zearo naigabetuak utzi bagaitu, au ez dek txikiagoa. Etorri zaiken gurutzea nola eraman bear dek geroko itxaropenik gabe, baldin ez badek sinisten? Zer arrazoi daukak ortara pentsatzeko?

— Ni orain arte zuzen ibilli naiz, esan dizutedan bezela, Jainkoaren eta zuen aurrean. Nori kalte egin diot nik, ortara geratzeko? Badakit zuek etzi-

dazutela olakorik egingo, maite nauzutelako. Ta Jainkoa neurri gabeko ona dala ez al digute erakutsi?

— Guri beiñepein bai.

— Baita neri ere. Orregatik, aren aginduak zuzen betetzen saiatu naiz. Zergatik egin dit neri au, bera ain ona izanik? Nere munduko egunak illundu dizkit betiko. Ez det geiago iñor ikusiko. Abotsera edo ukuituz ezagutu bearko zaituztet. Zertarako nago ni munduan? Zergatik ez niñun txikitu, beste aiekin batera? Mundu ontan supri arazteko ni bizirik utzi. Zer etorkizun daukat? Denetan enbarazu besterik ez det egingo. Bestek egiñetik bizi. Jazteko laguna bear. Berdin urrats bat emango badet ere. Itxu-aurreko bat gabe eziña. Ogei ta iru urte ez ditut oraindik. Zaartzaroan il bear badet, nork egingo du nere morroi? Ni beartzen naizenean, nor egongo da nere eskura? Ez, ama, ez. Nere sinismen itxu ura galdu badet ere, nere arrazoiak baditut. Nik ez det esaten Jainkorik ez danik. Ez, ordea, guri erakutsi diguten bezelakoa. Baiña gizonen ajolarik ez diona. Gure ardura aundi gabe, lasai bere zeruan bizi dana. Arek txukatuko omen ditu gure munduko malkoak. Umetxoei erakusteko ez dago gaizki esana ori.

— Iñaki, ago ixilik, olako biraorik esan gabe.

— Barkatu, ama. Ez det zu, ni bezela, sinismenik gabe geratzea nai.

— Ez orren beldurrik eduki, Iñaki. Ez da ik ere esaten dekan ainbesteraño. Ire zapuzkeri ori ere ulertzen diagu. Baiña denborak kenduko dizkik oiek denak.

— Baliteke ala izatea. Nere amets guziak aizeak eramán ditu beñipein. Nere etorkizuna sekulako moztuta geratu da.

— Ori askotan gertatu izan zaiguk guri. Ametsak egitea ondo zegok. Baiña ez aietan, fedeko gauzak balira bezela, sinistea. Zorioneko etorkizun ori etzegok gure esku. Guk ere iregan egin genizkin zaartzaro on bat irixteko ametsak. Baiña dena ankaz gora joan dek. Badakik alako esaera zaar ura: «Gizonak ekin ta Jainkoak egin». Orain arte ala izan dek. Aurrera ere bai. Ire itxaropentan bizi giñun. Orain ik bizi bear ko dek gurean. Guri zaartzaroan lagundu bearrean, guk egin bear ko diagu iri. Orregatik, guk dena pazientzian artzen degun bezela, ar zak ik ere.

— Aolku onak dira oiek. Baiña nork egingo du nere itxu-aurreko?

— Nik egingo dit, ire aurtzaroan ere egin nin ta —erantzun zion amak.

— Eta nork sortuko nere mantenua?

— I ikastetxean abillela, ez al diagu orain artean sortu? Orixe baiño geiago egingo genikek, motell, iregatik gurasoak -erantzun zion aitak.

— Ez al dezute orain artean naikoa egin? Aurrera ere zuen bizkar bizi bear al det nik? Ori al da zor dizutedan ordaiña?

— Utziok orri pakean. Ik zer erru daukak? Gurasoak ire eziñak ornitzeko prest gaudek. Lasaitu adi ta pazientzia ar zak, ire ezbear ori denontzat dek zama ikaragarria ta.

— Eta, ni baiño lenago joaten bazerate, nork artuko nau ni?

— Ortan, Iñaki, arrazoi pixar bat badaukak, baiña gutxi. Guk aginduta utziko diagu. Baiña guk bezela, iñork ez au zainduko. Alare, denean arkituko dituk biotz goxoak, iru arreba ere badauzkak eta.

— Oiek denak beren bizimoduari lotuko zaizkio, ta ni emen geratuko naiz zokoratuta.

— Utziok geroari. Egunak eguneko nekea aski dik. Zertan ari aiz zer gertatuko zaiken pentsatzen? Etorkizunaren berri etzekiagu batere.

— Ez al aiz oroitzen, txikitan, zuek jeiki erazteko, nola esaten nizuten? «Atozte, atozte leiora. Oraintxen ziazik amalau aizpak: Baletoz, Egingo-balute, Asiko-balira eta abar». Beti egunsentian igarotzen ziranak. Zuek laxterka aterako ziñaten leiora aiek ikustera. Baiña zuek azaldu baiño len joanak izaten itun. Amalau aizpa izan zitezkenak, baiña gutxitan ziranak.

— Orrekin zer esan nai didazu, ama?

— Ez gerala gerokoaren jabe. Etorkizuna etzegok gure esku. Alperrik dek orduan «Nork zainduko nau? Non biziko naiz? Zeiñek artuko nau ni?» buru austen ibiltzea. Amalau aizpa aiek bezela dek ori. Gerta litekek edo ez. Agian i joango aiz gure aurretik. Bestela, denean dituk biotz onak.

— Bai, bai. Ori illunpean dago. Obe det ortan ez pentsatu. Bestela ere etzait naigaberik paltako. Baiña ori da nere etorkizuna, luzea edo motxa: tres-

na bat bezela eskutik esku ibilli bearra, ogerleko paltso baten antzera, onek utzi ta arek artu nai ez; askotan aiek neregatik eziñean, egiten didatena ere gogo txarretik, eta nik aien arpegirik ezin ikusi.

— Ori ere amalau aizpa aietako bat besterik ez dek. Zer dakik ik ori?

— Ortan ere arrazoi dezu, ama. Une guzietan batera, agian gertatuko etzaizkidan urte guzi oietako zigorrak supritzen baiño, obe det beste gauzetan pentsatu.

— Jakiña: gaur bagaituk eta biar ez. Zertarako pentsatu orduan, agian gertatuko etzaigun biar-ko txarra?

— Nere burua galtzeko zirikaldi ikaragarriak izaten ditut, eta nere etsipenen batean ez ote detan ori egingo...

— Etzak alako astakeririk esan. Ez pentsatu ere. Guk uste baiño sinismen aulagoa eukan orratik. Amaika milla itxu bizi dituk munduan. Amaika gaixo ere, i baiño okerrago daudenak. Besteren mende urteak daramazkitenak eta oiñazetan. Beren egin bear guziak egiteko ere gauza ez diranak. Errenteria'n ezagutu nin itxu bat, ezkondua, baserritarra gaiñera, bere barrutiak itaitzen zituen, besterenetik ukuitu gabe. Etzioken besterik eskatzen Jainkoari: minutu bateko argia.

— Eta ori zertarako?

— Bere emaztea nolakoa zan ikusteko.

— Olako gutxi izango dira orratik munduan.

— Bai. Baiña beren gaitza pazientziz daramatenak, asko.

— Baiña badakizute zer galtzen detan? Nik nebilzkien ametsak! Orregatik nenbillen ain txintxo ta zuzen.

— Bai. Ametsetan bizi gaituk. Gure buruan sortzen diranak, ordea, ta ezeren eusgarririk gabeak. Orrelakoxea dek mundu au, ta dan bezelakoa artu bear diagu. Zenbat eta pazienti geiagorekin, orduan ta atsegiñago. Emen, zaarrak eta gazteak, denok zeukagu, ik bezela, bizitzeko gogoia.

— Pazientzia... Errex esaten dana ori, zigorrak besteren bizkar datozenean. Baiña norbera ukuitzean...

— Bai. Ori ala dek. Baiña ez au i bakarra ukuitu. Ire jabe egin bear dutenentzat ere, ez dek nolanaiko zigorra. Maitasunak arintzen dizkik oiek denak. Eguneroko pollita ere emango ditek noski, gu palta geranean laguntzeko, bizi baaiz.

— Orrekin zer aurreratzen det nik? Ori norbaitek artuko du, ta maitasun-izpirik gabe dirutruk serbituko naute.

— Munduaren lautatik lau ortxe, diruaren atzetik zebiltzak. Baiña iretik serbituko aute. Ez dek gutxi.

— Baiña ni beti illunpean ta erruki-itzak entzuten. Etorkizun bikaiña neretzat!

Laxter noski etxera joango zala-ta, agurtu zuten semea. Etzuten alakoa zanik uste: ain biotz gogor ta setatia.

Suminduak etorri ziran gurasoak. Etzieten nolanaiko negarra ekarri etxera.

Sendatu zaneke ekarri zuten, eta etxeko balkoian an egoten zan bakar-bakarrik, transistore txiki bat eskuan, eguneroko berriak entzuten, betiko gauan. Bidean zijoazenen oin-urratsak entzuten zituen. Baiña nor zebillen ikusi ez.

AITA-SEMEAK

Soldaduskatik etorri ezkeru, zearo berezia geratu zan gure irukoa. Joan baiño len, ikastetxetik zetozen batean, Joxek Iñakiri asarre eraso zion:

— Bazekit lan txarra egin nuela, dirua bota bearrean, besteak utzia neretzat artzea. Baiña barkatu ta ixilik gorde zitekena, ez uan ondo egin ik ere lau aizeetara ori zabaltzea beste lagunen artean. Geroztik bota zidatek ori arpegira.

— Geiagok ikusi ziteken ori. Nere ondoan zegoenak ala esan zidaken: «Ikusi al dek ori: ire lagun orrek zer egin duen? Milla pezetakoa botatzeak min eman badio, gordetzea al zeukaken. Etziogu eskatu». Baiña nik Santiri bakarrari esan nioken. Etzekit ondo edo gaizki egin nuen. Baiña ori aztua geneukaken aspaldi.

— Nik etziot iñori esan —zion Santik—. Nere lagunen tatzak zabaltzen ezin ariko nauk, bandua jota bezela lau aizeetara zabaldu dizkitek nereak baiña.

Beste biak laxter ulertu zuten norengatik ari zan Santi. Ori orduan ortara geratu zan. Soldaduskarra joan aurreko kontuak.

Joxeren ateraldi garratza bere lagunentzat ulert-errea zan: beste biak serio xamar begiratzen ote zioten bere zalantzak bazituela; lan itxusi ori ez ote zeukaten aztuta. Orregatik, arrazoi baleuka bezela, lagunei aurrea artu zien.

Santi ere, ordea, mindua zegoen. Bai-baizekien nonai ta noiznai droga artzaillea zala zabaltzen zuela, batez ere neskatxen artean. Orregatik bere eztenkada.

Joxe, beraz, kolokan zegoen, lapurtzat joa zeukatela alegia, ta andik aurrera erne ibilliko zirala berarekin; saillean piakaitzena bera zutela.

Sendi onekoa izaki. Baserritarra bazan ere, etxearen jabe. Besteak neketan zebiltzan ikastetxeko zorrak ordaintzeko.

Ezin ikusi pixar bat ere bazuen. Santi, ordu-rarte okerbidetik bazebillen ere, mutil alaia zan. Oso soiñu-jotzaille ona ta iñongo dantza-lekutan gazte lagunenez inguratua. Oietako geienak, neskak. Ori ezin zuen eraman Joxek.

— Ori al dezute maitea? —zien askotan neska-txei, Santiren gordean—. Orrek laxter larrutuko zi-

ñuzteke. Etxe arlote bateko semea da ori. Droga-artzaille amorratua.

— Ez dakigu ori egia dan. Baiña Santi umore-zalea da, ta mutil bikaiña ta alai. Ori dabillen lekuan, beti pesta-giroa degu. Ori da, bada, gazte askeak geran arte, nai deguna. Ezkontzeko asmoak artu ezker, orduan pentsatuko genduke obeto.

Asarre zebillen, bada, gure Joxe, ta lagun berriak billatu nai zituen. Bai aguro arkitu ere. Baiña geienak beste oietakoak: euli txuriak alegia. Oiek dirua dabillen lekura etortzen baidira.

Alare, gudaroztera arte elkarrekin jarraitu zuten. Santi, gero ta jatorrago.

Baiña bein gudaroztetik etorri zanean, Joxe zearo okertu zan. Utzi zion ikasteari ta etxeko lanari. Len, aske zanean, etxean lan egiten zuen. Orain, otorduetan bakarrik ikusten zuten. Ikastetxean ere etzala azaltzen zabaldua zegoen. Non demontre igarotzen ote zuen egun osoa?

Aita asarre zebillen. Kanpotik ikasi baizituen semearen ibillerak. Eta egun batean ortzak erakutsi zizkion:

— Zer asmo dituk, Joxe? —eraso zion—. Ire aurkako salaketak nonaitik bazetozek onera. Guk jakin nai genikek jarraitzeko asmoan aizen edo ez.

— Zer salaketa?

— Maltzurra aiz orratik benetan. Ez nin uste olakoa intzanik. Ez ote dakik ondo ere buruaren berri? Ez aizela ikastetxera ere joaten. Arako aitzakitan txakur bat bezela abillela ta gaiñerakoak.

— Ori kontatu duenari, lepoa biurtuko nioke.

— Motell, ez dek bakarra. Leku askotatik zertorrek salaketa ori. Len, aske intzanetan, etxean lan egiten uan. Ori ere utzi dek. Nor dituk ire lagun oiek? Bat itxu zegok, gizarajoa. Bestea ez dek oraindik etorri. Ire lagun berri oiek ez dizkit eza gutzen nik.

— Beti izaten dira tartean txibatoak.

— Nork esan didan jakin nai badek, bat irekin dabillen neskatx kaxkarin orren aita. Lepoa biurritu nai badiok, asi adi. Bera ere ohea dek ortarako. Sumindua zegoken, biak bide oietan arrapatzeko pozez. Ura neurriak artzeko asmoan zebillela esan zidaken. Aren ikaslanak ainbeste ordaindu bear eta etzala ikastetxean azaltzen. Badakik arek ostatua ere ordaindu bear duela. Orrela jarraitu nai badu, etxera eraman ta, besteak bezela, atera dezala bere bizimodua. Ik ditukela errurik geienak. Ori ere ez dek noski egi osoa. Batek ez badu nai, ez dik iñork ortara jarri eraziko. Benetan pozik eta arro geundenekin. Baiña bein soldaduskatik etorri ezkeru, i ez aiz lengoa. Alare, agur-aparia ezkeru asi uan ire aldaketa. Polliki-polliki, beti okerrera. Ezin gindezkek denok i ezin mantendurik ari.

— Beti gona-pean bizi bear al degu? Ez al ditut ogei ta lau urte?

— Ortan arrazoi ematen dit. Ere buruaren jabe egiteko, badek adiña. Baiña ez orrela ibiltzeko eskubiderik. Amaren gona-petik aterata, okerragokoren batzuen azpian ez ote aizen erori? kutizi asko

uzten dizkiagu, iri etorkizun on bat emateko. Denak ezin sokorra jotzen ariko gaituk. Ikastetxetik piper egiten dek. Etxean, otordu ta lotarako bes-tetarako ez aiz azaltzen. Eten gabe amari diru-eske, gure bizkar alperkerian bizitzeko. Beste euli txuri oiek etzaizkik duan urbilduko.

— Nik, ogei ta lau urterekin, ez ote det andre-gai bat edukitzeko eskubiderik?

— Bai, motell, ortarako ta geiagotarako ere. Ortan ez dik iñork eragozpenik jarriko. Gazterik ezkontzea ohea dek bientzat, zaartuta baiño. Nik ere, soldaduskara joaterako, gaur ire ama dan ori neukaken andregai. Baiña ez nizkin orregatik nere eguneroko egin bearrak uzten. Igande ta jaietan bakarrik ibiltzen giñun gu elkarrekin. Txuxen alare. Bearko! Errespeto ikaragarria genieken gurasoei. Ainbesteraiño ez dit nik eskatzen. Ura ere geiegia uan noski. Baiña gaur dabilkiken ori, ez dek jolas zikiñetarako daukaken lagun bat besterik.

— Soldaduskatik etorri berria ta egun batzuk lasai ezin utzi...

— Alajainkia! Illabeteko jaiak artu bear ote dituk? Soldaduskatik etorri ta urrengo egunean, bi meta belar galantak eginta ospatu nin nik morrontza estu orren bukaera.

— Nere ate guziak badute maratilla.

— Baiña iri ajola gutxi. Zabaltzen badakik.

— Zuen gurasoak zuek gu bezin estu artzen al ziñuzten?

— Len ere esan dit. Nere iritzi apalean, geiegian noski. Guk ez diagu seme-alabarik ortaraiño lotzen. Amaika aldiz entzun genieken: «Gu iltzen geranean, zorriak itoko zaituzte». Jaunari eskerrak, ez dek olakorik gertatu. Orduko bi balio dik gure baserriak. Alare, guk etziogu aiek jarritako marxari jarraitu besterik egin. Gaiñerako aurrerapen ori, geiena beiñepein, tresna berriak egin ditek.

— Beti orrela gurasoen mende bizitzezkeroz, aldegingo det etxetik.

— Ez dek bi aldiz esan bearrik. Ez badaukak etxe ontan lan geiago egiteko gogorik, biali egingo augu. Berdin etzeukagu baserrian lanerako esku-paltik. Ik ezik, geiagok ere aldegin bearko ditek emendik. Batentzat lekua bazegok; birentzat ez. Orregatik nai genin etorkizun on bat ematea.

— Beti sermoia ta sermoia! Naiago nuke ez dakit non banengo!

— Baita guk ere. Ire alperkeriak etxeko gazteak kutsatuko dituen beldurrak gabiltzak. Joaten aizen lekura joaten aizela, emen bezela baabil, ez dek an ere sermoi-paltik izango. Ori esateko, gaiñera, ez daukak arrazoirik. Etzekit amak ezer esan diken. Baiña ni lenengo aldiz natorrek. Ainbeste salaketa andik eta emendik, lepotik gora ere gaiñezka luzaro biotza trinko eduki badet ere, ogei ta lau urteko seme bati orrela itzegin bearra mingarria dek benetan. Ez nabillek nere onaren billa, irea bai-zik: ire etorkizuna. Len ere esan dit: i gabe etzeukagu etxe ontan ezin bizirik. Ez nauk nere gogoz ari, irekin dabillen neska txoro orren aitak bultzata natorrek. Etzeukak arek ere arrazoiaren paltik.

— Or daukazu Santi, ni baiño okerrago dabilena. Gurasoak ondo goxo artzen dute.

— Ori ere, seme, arrazoi baldarra dek. Aixa diok. Joaterako, urtea bazeramaken etzuela artzen. Jokatuko niokek edozeiñi sendatua etortzen dala. Soldadu joan aurretik esan zidaken bere aitak: «Santi, ori dek gure etxeko negarra. Orain soldaduskara ziek. Nola etorriko ote zaigu berriz? Alare, mutil umilla dek. Urte bete ontan ez dala erori esan ziguken geronekoan; eta, al bazuen, andik sendatua etorriko zala». Olako mutillari nork lagundu ez? Naiago nitek olako borondatea baeukake. Au entzun nuenean, ixilik geratu niñun. Baiña nerekiko ala nioken: etzekit gure etxera ez ote datarren okerragoa. Arek bere burua bakarra galduko zin, galtzekeroz. Ik, al dituken guziak. Biok asmatu degula uste dit.

— Laster pentsatuko det zer joera artu.

— Sekula artzekeroz, badek ordu. Ez beiñepein, Santik bezela, ere errua aitortu. Iretzat, gurasoak gaituk gaiztoak. Apaltasun pixka bat geiago ez badaukak, eta «ni pekataria» esan, ireak egin dik.

— Gurasoak bide bat aukeratu badidate, nik zergatik ez det beste bat artu bear, neretzat nai detana?

— Gezurretan ari aiz. Ik edorrek aukeratu uan, eta ez intzan orren umea. Amazazpi urte beteak euzkan. Ori guk ez genin nai, ordaintzeko modurik ez genduela izango ta. Ez orain gurasoen aitzakirik egin. Aukera osoa daukak, nai dekan bi-

dea artu. Baiña guk laguntzezkeroz, izan dedilla zuzena. Nik esan bear nizkianak entzun dituk, bai, ta aske-askea geratzen aiz, nai dekan bidetik joan. Baiña lanik ez badek egiten, guretik ez dek zurrupatuko geiago —esanta, serio-serio aldegin zuen aitak.

Buru makur, zer egin pentsatzen geratu zan semea. Zuzenean errira joan zan. An ikasi zuen, bere lagun batekin egindako kiniela bati, amar milloi erori zitzaizkiola. Etzan luzaroan pentsatzen egon. Asmo bat biurria artu zuen: gurasoak utzi ta aldegitekoa. Baiña bere lagun maitea berekin zuela.

Bost milloi diru-putzu aundia zan. Bere denborako bazeukan naiko dirua. Laguna ere, ziur zegoen berekin joango zala. Ura ere gurasoak estuegi artzen baizuten.

Nola kobratu itzegin ondoren, etxera etorri zan, zeuzkan puskek berekin eramateko asmoan. Be-raizik ere etzan makurtuko aitaren eskarietara.

JOXEREN IGESA

Amak begi zorrotza zeukan: bere semeak arroiRe gaiztoa zeukala ta gero ta nabarmenago azeitzen ari zitzaiola.

Soldaduskara joan zanean, berriz, bertako agintariak benetan omendu zuten, tiralari ona zalako. Len arroa joanta, argi-oillarra bezela etorri zan andik. Etxetik kanpo denak omendua, ta emen ankapean eduki nai?

Asarretu-itxurak egiñez itzuli zan. Baiña aldez aurretik igaro bear zituen urte zoragarriak ausnartuz, amari ala eskatu zion:

— Ama, jarri, soldaduskatik ekarri nuen maleta ortan, nereak diran puskek.

— Zer? Biajeren bat al daukak?

— Bai. Baiña etorrerarik ez duena.

Amak bazekien aitag bereak eta bost esan zizkiola, ta arrazoi osoarekin.

— Bat-bateko zaputz orrek ez dik onik egingo. Obe dek odol otzean ondo pentsatu, berandu izan baiño len. Joan bear ta ere, norako asmoak dituk?

— Ori nere kolkorako, aitag ikaragarriak esan dizkit eta.

— Eta amari ere ez diok esan nai?

— Ez-ta iñori ere. Nere zoriona neretzat.

— Orrela jartzen baaiz, or konpon. Bazekit aitag esatekoak bota dizkikela. Baiña ez arritu. Merzia besterik ez dik esan.

— Arekin al zaude zu ere? Nere adiña badet, eta ez naiz gurasoen lege estu oien azpian biziko.

— Norekin egotea nai uke? Irekin? Aitag esan dizkiken arrazoi guziak egi-egiak dituk. Biok, elkar itzeginta, ontzat artu genin aren aotik entzun uana. Emen etzegok lege esturik. Denontzat berdiñak dituk. Etxean bizitzezkeroz, lan egin zak besteak bezela. Baiña ez aiek egiña jan. Kanpora nai badek, berriz, joan adi. Ortarako eskubide osoa daukak, adiña badek eta. Baiña ez kontatu gero aitag etxetik biali aunik, ori gezurra dek eta. Ere borondatez oa. Soldaduskara joaterako igerri nin, bai, ez intzala iñoren mende egoteko egiña. Iñongo lantegitan artzen baaute, gurekin baiño estuago ibilli bearko dek.

— Len naiko sermoia entzun det, ama. Ez det besterik nai.

Ta kanpora atera zan Joxe, purrustadaka. Amak belauniko jarri ta arren da arren ez aldegi-teko esango ziola usteko zuen. Baiña leporaiño aseak zeuden. Biak bat egiñak. Aldegin nai bazuen, joan zedilla.

Amak alaba biali zuen aitarengana, zer gertatzen zan adieraziz eta zer erabaki artu abisatzeko.

Aitak ala erantzun zion:

— Nai badu, dijoala. Adiña badu. Baiña ez dezala guk bialtzen degunik esan, bere borondatez dijoa ta. Berak ibiltzen dituen puska guziak jartzeko. Dirua eskatzen badu, ez xentimorik eman. Arek utzitako zorrak ordaintzen, badaukagu praktikak bete lan.

Etorri zan Joxe berriro, ta amak maleta aundi bat aurrean jarri zion.

— Ez nuen au besterik?

— Etxe ontan geienok gutxiagorekin bizi gaituk. Bat, ni. Zerbait artuko al uke?

— Ez. Aita etortzen bada, seguru daukat beste sermoia.

— Benetan gaizki ezitako umea aiz i. Ez dek ezagutzen aita. Arek esan bearrak bukatu dizkik eta kito. Ire esku zegok orain erabakitzea.

— Zerbait diru bearko det, bada, nik.

— Ori ez, Joxe, etxe ontan etzegok dirurik eta. Iri emateko, bear-bearrezko puskek saltzen ezin asiko gaituk. Guk ere bazeukagu bizitzeko eskubidea. Gaiñera, ik utzitako zorrak ordaintzen lanikan asko

ere bai. Erri aldera jeixtean, beti norbait bazetorkidak: «Zure semeak, soldadu joan aurretik, onen-beste pezeta eskatu zizkidan —ez oso gutxi, ez—, etortzean ordaintzekotan». Nere xoxak ari emateko izaten dituk. Ori dena gure bizkar utzia daukak.

— Ez det bearrik ere. Nonbaitik aterako det naikoa.

— Zertan eskatu dek orduan? Bejondaikela, asmo oiekin baoa. Baiña emen baiño geiago saiatu bearko dek. I ez aiz gutxirekin konformatzekoa.

Maleta artu ta agurtu ere gabe, aldegin zuen andik.

Semearen aurrean lasai-itxurak egin bazituen ere, ura joandakoan negarrari eman zion —ama izaki—, « Esker gaiztoko umea aleena!» esanez.

Joxe, berriz, maleta eskuan, txuxenean, bai-baizekien len berarekin ibillitako laguna zer garaitan etorriko zan, bidera irten zitzaion.

Onek, larritua, ala esan zion:

— Nola zatoz berriro? Ez al nizun agindu nere bidera ez geiago ateratzeko? Aitak ikusten bagaitu, larrutik pagatuko det nik.

— Bai. Baiña ezin zaitut aztu. Kiniela batean bost milloi erori zaizkit, eta gurasoak utzi ta banoa. Atoz nerekin zu ere, eta emendik urrun askatasunean biziko gera.

— Bost milloi ez da auntzaren gaberdiko ez-tula. Baiña asmo orrekin al zatoz neregana? Torizu nere erantzuna.

Ixtua bota zion arpegira.

— Dena aitari esango diot.

Eta laxterka, atzera begiratu ere gabe, iges joan zan andik.

Joxe, maleta artuta, triste ta lotsatua, laxter ezkutatu zan.

— Bost milloirekin ere muzin? Dijoala! Billa-tuko dizkit berriak.

SANTI

Santi, bere maleta txikia bizkarrean, ezer askorik etzuen eramango an, eskutako soiñua berekin, agurtu zituen etxeakoak. Etzion iñork ere lagundu. Aien begiratu errukiorrak naigabetu zioten biotza. Bere gurasoak, itxaropen ta etsipen, zalantz triste ortan utzirik, atera zan etxetik.

Geltokira iritxi zaneko, an azaldu zitzaion droga-zabaltzaillea, argi-argi itzegiñez. Negozioan dabiltzan oiek, alai ta iztunak izaten dira geienetan.

— Kaixo, Santi. Soldadu omen oa.

— Bai; bi urteko. Gure garaia ere iritxi dek. Etxean pakea utziko diagu. Baiña nork esan dik ni soldadu noala?

— Txori txiki batek.

— Zenbat ote zabilzate zuek, gazteak ondartzeko negozio ortan? Deabrurik bada, zuek zerate gaiztoenak.

— Pozik artzen dituzute, bada...

— Atsegin ematen digun dena ez dek, ordea, ona. Zergatik ez dituzute zerok artzen?

— Lekutara joango uke gure negozioa. An ere artu naiko dituk. Ango neskatx gazte baten bitartez bialiko dizkit.

— Eta ordaindu? Nere diru pixarrak laxter joango dituk.

— Andik atorreanean.

— Nere burua salduta-edo. Droga ori ez badet uzten, ez dik prezio aundirik egingo.

— Ori edorrek ikusi. Asierako torizkik bi.

Eta patrikan sartu zizkion.

Amorruz sumindu zan Santi. Ta, patrikatik aiek atera ta lurrera jauziz, ankapean lerdekatu zituen.

— Ordaintzen badizkidak, neri etzidak ajolik.

— Ordaindu? Nik eskatu al dizkit?

— Ez. Baiña uste nin bearko itula.

— Orduan or konpon. Ez negok zorretan.

— Ez dizkidakela ordainduko?

— Nik deabruari ez. Orain arte ez didak nola-naiko kaltea egin. Ni nauk, aspaldi ontan, gure etxeko negarra.

Biak berotu ziran; eta Santi, maleta ta soiñua lurrean utzirik, erasotzera zijoan. Lagun geiago bazetozela ikusi zuenean, droga-zabaltzailleak atzera egin zuen. Bai-baizekien berak galduko zuela dena.

Bere maleta ta soiñua berriro bizkarrean artuz, txuxenean trenera joan zan Santi, kontentu asko. Garaipen bat irabazi zuen. Ez, gaiñera, nolanaikoa. Asiera ona eman zion. Andik Burgos'era bitarte, soiñua jo ta jo joan zan, bera bezela ara zijoazen laguneren atsegingarri.

Koartelera iritxi zanean, norbaitek ebasteko beldurrak, bere erritik joandako sendi adiskide batean utzi zuen soiñua, eta Santi koarteleko bizi-modura sartu zan buruzpera.

Ara joan ta ango martxa artuta, illebeta baiño len, neskatx bat omen zebillela Santiren billa esan zioten.

— Ez dek nolanaiko suertea. Neskatx pollita dek eta diru asko dabilkiena —esan zion soldadu zegoen burgostar batek.

— Itxura txarra artzen ziot nik orri. Koarteleko soldadu artean dabillen neskatxa, uzteko ohea izango dek, artzeko baiño. Etorri ta koarteleetik ateratzen ez dan mutil baserritar baten eske? Sinisteak lan dik. Dirua eman egiten dik edo kendu?

Nor zan erakutsi ziotenean, urbildu zitzaion, ea zer nai ote zuen, aurrean biali zuen droga-saltzaille aren adiskideren bat izango zala ta.

Elkar ikusi zutenean, esku emateko orde, musu eman zion. Santik ez, ordea. Billauegia iru-

ditu zitzaion. Neskatz pollita zan, bai. Orregatik, arraixku txarrekoa. Aren irriparrak maltzurra zirudien.

— Ezagutzen al dezu olako?

— Bai, zoritxarrez.

— Aren aldetik nator, zure soldaduska nekegarri au atsegintzeko asmoan.

— Orduan zu, arek zabaltzen didan sarea zera?

— Orrenbesteraíño ez nuke esango.

— Asko arrapatzen al dituzu?

— Len oituta datozenak denak.

— Ez dezu, bada, urrengoan ori esango.

— Ori gero ikusiko degu.

— Ez dago sarea gaizki jarria. Neskatz lilluragarria zera; ta denak, ni bezela, musuka artzen badituzu, ez dezu lagunaren paltik izango. Baiña ni ez naiz ereriko. Ez ote dauzkazu gero irripar goxoa ezpaiñetan ta billaukeria biotzean?

— Zer arrazoi dezu, iseka ori egiteko?

— Aski det noren partetik zatozen jakitea. Esan baizidan adiskide orrek, bear banituen, neskatx batek ekarriko zizkidala, deabru bera ausartuko ez litzaken droga zikin oietakoak. Zu izango zera noski ori.

— Len an artzen zenituela ta, emen bear banituen, nik ekarriko nizkizula. Ortan geratu giñan.

— Eta ez al zizun esan, azkeneko agurra nola egin genduen?

— Neri ez dit zurekin itzegiteko besterik esan.

— Onuntz nentorrela, geltokira aterata, bi droga sartu zizkidan patrikan. Nik ez nuela alakoren bearrik; ordaintzeko dirurik ez nuela esan nion. «Etortzean ordainduko dizkidak» berak. Bere aurrean, patrikatik aterata, ankapean txikitu nituen, eta aurrean biali nuen. Bestela, belarri aundi aiek berotuko nizkion.

— Ori ez nekien, Santi.

— Ez nauzu zure edertasun orrekin lilluratu-ko. Gezurra dirudi, Jainkoak emandako doai eder oiek mutil gazteak galtzeko erabiltzea. Nola liteke, zu bezelako neskatx batek mutillak, irizurtuz bereganatu ta pezeta zikin batzuk irabazteko, droga zikin oiek emanez betiko ondatuta uztea?

— Ondo dago. Ez dezu orduan lagunik nai.

— Lagunak bai; baiña deabrurik ez.

— Zure lagunaren partetik zuri goraintziak eman eta, ezer palta badezu, laguntza eskeintzera datorren neskatx bati esateko arrazoiak al dira oiek?

— Ez dizkizut, neskatxa zeralako ta laguntza eskeintzera zatozelako, arrazoi oiek ematen. Bai-baidakit ni betiko ondatzeko asmoan zatozela. Ura, droga-zabaltzaillea. Zu ere bai, arek esan zidanez. Oiek, berriz, benetako deabruak dira.

Ori esan ondoren, bertan utzi ta aldegin zuen andik Santik.

Bigarren garaipena; ta oraingo au, lengoa baiño arraixku txarragokoa noski.

Etzuen oraindik neskatzak etsi. Ikusten zuen guzietan etortzen zitzaion, goxo-goxo itzegiñez, zertan proba, baiña drogarik eskeiñi gabe. Santik ere ondo artuko zuen. Baiña ortan geratuko zan guzia.

Illero bere gurasoak bialtzen zioten eskeiñi ziotena. Zeraman martxan, etzuen besteren bearrik.

Aske ziranetan, umore ona jartzen zuen bere lagunen artean.

Iru lagun euskaldunekin ibiltzen zan askotan. Abertzale amorratuak irurak. Aiek itsatsi zioten aberri-maitasuna. Drogari gogor egiteko, etzuen nolanaiko laguna ori.

Kapitanak, itxuraz beiñepein, oso maitea zuen. Baiña azkenean asarretu egin zitzaion, ta ondoren txarrak ekarri zizkion orrek.

Joandako gudaren oiñazeak oraindik bizi-bizirik zeuden. Santi zegoen gudaroztean, berriz, ez dakit zer egun zan, baiña jaiak ziran, ta kapitanak-eta aundikiro ospatu nai zituzten; eta, ortarako, ankapean zeuzkaten euskaldunen laguntza bear, ezer jatorrik egingo bazan. Santi aukuratu zuen, berriz, buru.

Onek etzuen urte batzue lenago *El Coro Vasco*'k bezela pentsatzen. Jakiña, denok ez gera iritzi berdiñekoak.

Badakit España'ko espetxeetan argitaratu ta zabaltzen zutela asteroko nazkagarri bat, presoak be-

rak idatzia ta espetxeetan usteltzen zeudenei askotan iseka egiñaz. *Redención* zeukan izena. Zigor gutxi emandako baituak egiten zuten ori. Berak laxter aterako baiziran. Oiek, geienak, gorrien mende erorita an serbitzu egin zutenak, baiña iritziz beste aldekoak.

Garai aietan sortu zan *El Coro Vasco*, euskaldun zigortuak osatzen zuten eusko abesbatza.

Gure aberria su ta garretan zapaldua, espetxeak euskaldun baituz leporaiño beteak, Kastilla alde ortan ainbeste apaiz euskaldun zigortuak... An da emen oraindik pusillatzen, euskaldun asko ari zan erortzen. Millaka fameli, biziko baziran, Euskadi utzi ta aldegiñak, non kokatu etzekitela zebiltzan. Euskeraz itzegitea galerazia. Ta gure *El Coro Vasco*, zapaltzailleen eder egiñaz, etsaiari arrazoi ematen, euskal abesti goxo ta alaiez aien belarriak atsegin-tzen, kaiolan dagoen birigarroa bezela. Ori dena, saririk gabe. Baituak ondo zeuzkatela, etsaiak egin nai zuten zabalkundeari laguntzen.

Espetxeetan ere batzuk ondo artuko zuten; besteak ez. Alare, badu orrek neretzat bere alde aringarría. Etzuten beren nortasunik galdu. Beti euskaldun zigortuak bezela azaldu ziran; eta, beste lurretako baituak baiño aurreratuagoak zeudela alegia, zabalkunde bat gure alde. Ta, kristauak ziran ezkerro, politika guzien gañetik beren sinismena jartzen zutela. Oiek ukatu edo ez, zapaltzailleak berdin-berdin jarraituko zuten beren lanean. Bi-

tartean, abeslariak orrela zebiltzala, ariñagoa izan-go zan beren zigorra, iñori kalte egin gabe gaiñera.

Baiña badakit batzuk suminduak geratzen zira-
rala, oien ibilleren berri irakurtzean. Denen iritzia
ez da berdiña. Nai duenak, epai dezala.

Santiri ere orixe eskatu zioten. Batez ere kapi-
tana zan tartean zebillena.

Etzion on aundirik egin. Etzuen gure mutillak
ez baietzik eta ezetzik esan. Alako juduen salmo
ura gogoratu erazi zion. Gutxi gora-beera, ondo-
ren datorren au:

Babiloni'ko ibai-ertzean
itzalpean exeririk,
erdian zeuden sarats batzutan
zitarak txintxil utzirik,
egoten giñan atsekabetan
gure ezpaiñak itxirik,
zutzaz oroituz, Sion maitea,
ezin txukatuz begirik.

Katibu geunden lekuan, gure
etsaiak abesti-eske,
lotuta eraman giñuzten aiek
zioten: «Poztu zaitezte!»
Atzerri ontan, erritik urrun,
ta ez gaudelarik aske,
zure abesti goxoak, Yabe,
nola kanta genezazke?

Iñoiz aztuko bazinduzket nik,
o Jerusalem bikaiña,
aztua izan nadilla ni're,
pekatu orren ordaiña.
Ez bazenduke zuk edukiko
nere poz guzien gaiña,
ao-sapaian itsatsi bekit
betiko nere mingaiña.

Oroitu zaitez Edontarrentzaz,
eman merezia, Jauna,
ez aztu, erre, kixkali oiuz
ori zioten eguna.
Babel iltzaille, zorionsua
ordain ematen dizuna,
zorionsua arkaitz joka
aurrak txikitzen dituna.

Orduan juduak gaurko gure antzera zeuden. Nabukodonosor'ek ondatu zuen Israel. Ezin kontala ziran illak. Erabat bertako jendea atzerrira eramana. Aberria etsaien mende. Maite zuten guzia ondatua. Berdiñik gabeko Eliz arrigarri ura zearo txikitua. Alare, etsaiak abesteko eskatzen zieten, ango kantu goxo aiekin beren belarriak atsegin-tzeko, kaiolako xoxoak lotuta daukan nagusiarenak bezela.

Juduak arritu egin ziran, eskari ori egin zietelako; ta, jakiña, ukatu egin zieten.

Orixe aipatu zion, bada, Santik kapitanari, erdi broman gaiñera.

Entzun zueneko, amorru bizi batek lotu zuen kapitana, ta bere itxurazko maitasuna gorroto biurtu zitzaion. Eta, itzik trukatu gabe, bi masailleko ozenak eman zizkion, oiu batean:

— *Vete al calabozo, idiota. Ya estás para rato.*

Santi, kapitanari begiratu ere gabe, itxuraz serio, baiña bere biotza alai, txuxenean zigor-zulora joan zan.

Zortzi illabete igaro zituen. Soldaduskako bi urteak beteta, beste bi illabeteko zigorra eman zioten. Baiña onek etzuen zapaltzailleen belarririk atsegindu.

Santik etzuen eskutitzik egiten. Baiña gurasoak bazekiten zigortua zeukatela. Zergatik, ez. Bi urte pasa ta etzala etortzen ikusi zutenean, izutu ziran ta Don Antoniorengana jo zuten.

Non zegoen ta nor zan ikasi zuenean, ango koronela, ezaguna zuena, jakiñaren gaiñean jarri zuen. Onek kapitanari ala agindu zion:

— Atera zazu mutil ori ortik.

— Nere partetik or ustelduko litzake.

— Orren utsagatik ez da iñor zigortu bear.

Kapitana bera etorri zitzaion:

— Oa emendik, esker gaiztoko ori.

— Armiamak euliari saretik iges egiten utzi? Nola liteke?

— Nere partetik emen ustelduko intzake.

— Ez naiz batere arritzen. Baiña ez nuen uste maitasunetik gorrotora orren neurri txikia zegoenik.

Bere traste pixarrak artuta, koarteleko ateetan oiñetako autsa astintzen ari zala, neskatx musularia etorri zitzaion.

— Agur, Santi. Len oitutako, zu ez besteak, erori dira. Ez daukazu nolanaiko borondatea. Zergatik eman dizute orrenbesteko zigorra?

— Egia esan nuelako —esanta, bere bidean joan zan.

Bere errira zaneko, an zuen berriz, aruntzakoan aurrean bialitako ura, Burgos'ko neskak esanta noski. Etzeukaten, gazteak ondatzeko sarea nolanai antolatua. Urbilduz, maltzur-maltzur:

— Kaixo, Santi. Etorri al aiz?

— Kaixo, Txomin. Ongi arkitua. Zertara ator?

— Zor didakena kobratzera.

Santik, maleta lurrean utzita, bere sakela guziak azpikoz gaiñera jarri zituen.

— Ikusten al dek zer diru-putzua atera dan ortik? Olaxe natorrek.

— Baiña ez aiz beti orrelako ibilliko.

— Ez dit uste. Baiña millonario egiten banaiz ere, ez nik aiek ordaintzeko itxaropenetan bizi. Eta, ez badek tximistak egiñez nere aurretik aldegiten, laxter kobratuko dituk, beren interes ta guzi gaiñera.

— Aixa esaten dek ik ori. Asko balio ziteken.

— Etzekit ori egia dan. Baiña bai lenagotik ederki kobratuak itula. Nik ez nizkin eskatu. Eta egin didaken kaltea, noiz ordaindu bear didak? Ordurako zikinkeri ori utzia neukaken, eta ez nin aien bearrik. Mesedez aldegin zak nere aurretik, eta ez geiago bidean jarri. Bestela, salatu egingo aut — esanta, aurrera bere bidean jarraitu zuen.

Amabiak inguru ori zan etorri zanean. Etzekien batere bere bi lagunen berri. Joxeren etxe aurretik igarotzerakoan, etzuen iñor somatu. Bide artan bertan, urrengoa Iñakirena zan. Azkenekoa berea.

Etxe aurretik zijoala, balkoian ikusi zuen norbait, aulki batean exerita, transistore bat eskuan, betaurreko beltz batzuekin. Arrituta geratu zan. Nor izan ote ziteken ura? Gaztea iruditu zitzaion. Joan zanean, etxe artan etzan alakorik.

— Ez dek, bada, ori Iñaki izango! Soldaduska zikin ortatik itxutua etorria?

Laxter ikasiko zuen. Soldaduskara joan baiño len, ate ondoan deitzeko jotzen zuen doiñua jo zion.

Entzun zueneko, zutitu zan Iñaki.

— Santi! Santi! —asi zan oiuka.

— Bai, bai. Ala nauk.

— Eta soldaduskatik al ator?

— Alaxe dek. Baiña bi illabete beranduago. Eta ik, zer egiten dek balkoi ortan?

— Bestetarako gauza al nauk? Itxutu, motell, itxutu. Ixuri ditek nere begietara betiko illuna. Negar egiteko balio ditek; ikusteko ez.

— Soldaduskan gertatu al zaik ori?

— Bai. Argi joan niñun etxetik, eta itxu biali niotek andik.

— Ederra egin ditek. Txoria baiño alaiago nentorreen, soldaduska bukatutako pozean, Arantzazu'ko Amari elkarrekin ikertxo bat egiteko asmoan, ondo etorri gerala-ta eskerrak emanez. Auxen dek uste gabekoa!

— Bai, Santi, bai. Etorkizun pollita eman zidatek.

— Oraintxe natorrek andik. Oraindik ez nauk etxean izan. Nai badek beiñepein, arratsaldean etorri ta itz aspertu bat egingo diagu.

— Naiko ez dik, bada? Baiña nik ez aut ikusiko. Ordu aspergarriak dituk auek.

— Ez didak bi aldiz esan bearrik. Ulert-errea dek ori neretzat. Agur, agur, Iñaki. Benetan lagun-tzen dit naigabeen.

— Eskerrik asko, Santi —erantzun zion onek.

Abotsean ezagutu zuen besteak, negarrez ari zala.

GURASOEN ARTEAN

Iñakiren berri ikasi zuenean, oso naigabetua geratu zan Santi. Soldaduska arteko lagunik maiteena ura zuen, eta etzekarren berexteko asmorik. Egundo billaukeri txikienik egin gabekoa. Orain, berriz, itxu. Iñorako ta ezertarako gauza ez. Ezin zezaken ura bere lagunen artean kontatu. Beti ere bere bixitak maiz egingo zizkion, ango ta emengo berriak jakitea atsegiña izango baizitzaion. Gizarajoa! Soldadu joan baiño len egindako amets aiek uxatuko zitzaizkion. Etorkizun oparo baten pozetan eta itxutu. Orra bere mundua galdu.

Oldozpen illun auek buruan zebilzkiela, ikusi zuen txokon batean bere baserria, zelai ederren erdian, ke jario, intxaur aundi bat aurre-aurrean zeukala. Bi urteren buruan, zoragarria iruditu zitzaion.

— Ez dago iñon ere baserri auetan bezelako pakerik. Lana bai, ta etxeari lotua bizi bearra. Baiña baserriak baditu bere ordu atsegiñak.

Berak urrundik ikusi zuen etxea. Baiña beste norbaitek ere bai, bizkarrean maleta zekarrela. Ezin zitekela ura Santi besterik izan. Amar bat urteko arrebatxo bat bazuen, jolasa besterik etzuen umea. Alaia ta ezin egona. Joan zanean, azken agurra arek eman zion; etorreran ere bai aurrena. Pinpilpauxa bezela, arin-arin urbildu zitzaion, «Santi! Santi!» deika.

— Egun on, Arantxa! Usaia artu al didazu? — galdetu zion Santik, maleta lurrean utzi ta muxu bat emanik.

— Ez. Ikusi egin zaitut, maleta bizkarrean, joan ziñan bezela; ta ezin zitekela zu besterik izan. Amak ez du besterik esaten: «Noiz etorriko ote da Santi?»

Baiña etzan bertan geratu. Laxterka batean baratzara joan zan —an ariko ziran lanean bere gurasoak— mezulari, Santi bazetorrela abisatzera.

Amak, ikusi zueneko, ala esan zion aitari:

— Arantxak berri onen bat badakar. Egingo nuke apostu Santi datorrela.

— Ez litzaiguke gaizki etorriko. Gutxiagotan aipatutako norbait onuzkero azalduko zitzaigun.

Berengana urbildu ere baiño lenago, esan zien Arantxak:

— Santi badator!

— A, bai? Ikusi al dezu?

— Bai itzegin ere.

Beren atxurrak baratzan utzita, etxe aldera artu zuten biak. Arantxa berriro laxterka Santiren bidera atera zan.

Urrengo ongi-etorria etxeko txakurrak egingo zion. Ikusi orduko, ezagutu zuen. Isatsari eragiñez ta bi eskuak milixkatuz —au etzan iñora joan— bere inguruan zebilkien, jauzi ta jolas, bere atsegiña erakutsi nairik.

Batera bildu ziran etxeko atarian, gurasoak baratzatik eta Santi bidetik.

— Kaixo, aspaldikoa! Ainbeste aldiz aipatutako Santi! Zai geundeken. Ongi etorria!

— Egun on denoi, ta ondo arkituak! Ez naiz arritzen zai egotea, besteak baiño bi illabetez beranduago bainator.

— Berriz ez joatekotan izango dek noski?

— Bai, bai. Bestela, iges egingo nuke.

— Zer? Gaizki ibilli al aute?

— Bi urte bi urte zirala ta pozik artu nuen ango martxa. Baiña kapitana asarretu zitzaidan. Geroztik zigortua eduki naute. Orregatik nator bi illabete beranduago.

Denak arpegira begiratzen zioten, eta urduri samar, drogaren aztarren gaiztorik bai ote zekarren. Zortzi illabete itzalean pasata, kolore eskaxak bai-zekarzkien.

— Orduan soldaduska kaxkarra izan dek iretztat? —galdetu zion amak, bizkarrean zekarren maleta artuz.

Arrebatxoak kendu zion, berriz, eskutako soiñua.

— Itxura txarrik ez dakark.

— Kolore txarrak dauzkadala alegia?

— Bai. Egia diok.

— Gaur zortzi illabete bikaiñak neuzkan. Gero, itzal luzeak txuritu dizkit. Baiña lasai zaitetze ta poztu nerekin, sendatua nator ta.

— Benetan egia ote dek ori?

— Bai, aita, bai. Olako gezurrik ez nizuteke esango. Eraso gaiztoak izan ditut. Baiña denak menderatuta nator.

— Bejondeikela, motell. Eta zorionak iretztat eta gureztat. Garbi esango dit, ik ere igerriko ion, i intzala gure etxeko negarra.

— Bai. Zuen begiratu tristea ikusita, benetan naigabetua gertatzen nintzan ni ere, eta griña gaizto ura ezin kendu.

— Ator, ator barrura, aurki bazkal-ordua diagu ta. Egun berri bat argitu dek gaur gure etxean.

Bazkaltzeko mai inguruan exeri ziranean, kontatu zituen bere ibillera guziak, bere burrukak, eta zigorra zergatik eman zioten.

— Aizak —erantzun zion aita—: gu ere ortik paseak gaituk. Urte-mordoska bat igaro dan

arren, etzidaken onik egiten, euskaldunak negar-garrizko egoera artan geundelarik, galdu nai zizkiguten doairik onenakin aien belarriak atsegin-tzea. Nik ez nin egundo parterik artu. Ori, gure burua saltzea iruditzen zitzaidaken beti. Zigor ederra eman ziteken. Baiña nere iritzian ondo egin uan.

— Droga-zabaltzaille urde oiek ez daukate sarea gaizki zabaldua. Emengoa aurrean biali ta koartelera joan nintzanean, neskatx bat, ortxe emezortzi-ogei urtekoa, zebillela nere billa esan zidaten. Neskatx polita zan. Irripar eraxkorra. Koartetik aske nituen orduetan, berak lagunduko zidala. Iruzurtuko niñuen. Noren partetik zetorren ez bazidan esan ere, emengo droga-saltzaillearen sarea, ala zankoa! Olako baten adiskidetasuna etzan nolanaiko arraixkua, soldaduskan aspertua bizi dan gazte batentzat. Eta ori dena billaukeria, droga zikin oiek saltzeko.

— Gure garaian etziteken oraindik olako zikin-keririk sortu, emen beiñepein. Guk ez genin eza-gutzen.

— Ni, Jaunari eskerrak, osasuntsu etorri naiz. Iñakik ez du olako suerterik izan.

— Eman al ditek aren berri? —galdetu zioten.

— Ez. Natorrela, balkoian ikusi det norbait exerita, betaurreko beltz batzuekin. Ura iruditu zait. Len norabait joateko deitzen nion aidea bera jo diot. Bai arek laxter antz eman ere. Zutitu ta «Santi! Santi!» deika asi zait. Arratsaldean arixe bixitatxo bat egitekotan geratu naiz. Gizarajoa! Ez diote nolanaiko gurutzea bizkarrera bota.

— Ez, motell! Adin ortan eta orrek daukan osasunarekin orrela geratu bearra ere...

— Eta Joxeren berririk bai al dezute?

— Ik ondo dakiken bezela, joan zaneko ere nastua zegoken, eta andik zearo galdua etorri dek. Len gu irekin bezela zebiltzak orain arekin, balio duen puska guzia ezkututzen. Soldadu joaterakoan, andik etortzean ordaintzekotan amaika diru izan bear dik kendua. Batzuk barkatu ziotek; besteak ez, ordea. Pakeak egitezkeroz, gurasoak ordaindu ditek guzia. Kinielan bost milloi tokatu ta etxetik iges egiña dek. Aste osoa espetxean zeramak.

— Espetxean sartzeraíño erori al da? Droga-artzaille egin ote da?

— Ez uke batere arritzekoa noski. I zirikatze-ra etorri zan alakoren batek arrapatuko zin ta kito. Zearo borondaterik gabea geratu dek. Noiznai geiegi edana. Gaur neskatx batekin, biar bestearekin. Bost milloiak tokatu zitzaizkionean, zeuzkan zor guziak gurasoei utzi ta etxetik aldegin zin. Baiña irabaziagatik, kobratzen zailla; ta, biziko bazan, lapurretara jo bear.

— Bere gurasoentzat ai zer lotsakizuna!

— Orrela ibiltzeko diru asko bear. Lanik egin gabe etzeturrek ori, eta lapurretan arrapatu ziteken etxe barruan. Batean baiño geiagotan egiña izan bear dik. Keja ugari badek aspaldi ontan. Denbora asko ez dik pasako noski. Oiek ez dituk espetxerako egiñak.

— Beti izan da arroa. Bere jatorria gurea baiño aupagarriagotzat zeukan. Etzan bein ere beste

bion iritzi apalekoa izan. Ni oien lotsakizuna nintzala-ta, Iñaki neregandik berexteko alegiñak egin zituen, bera lapurretan arrapatu genduen arte. Agur-aparian, Iñaki serbitzariantzat txapel batekin diru biltzen ari zala-ta, orrek, utzi bearrean, artu egin zuen; eta, agidanez, berari norbaitek arpegira bota zion pekatu ori. Bixitatxo bat egin bear diot.

— Esango dizkik esatekoak.

— Ez dakit zergatik.

— Oso jenio kaxkarrekoa dabillega uste dit. Nik bidean topatu ta bein baiño geiagotan agurtu arren, ez niok bein ere aitzakotzat artu. Zakur-zakur, begiratu ere gabe, aldegiten dik.

— Ea neri ere ori egiten didan: nor dan jakitean bixita ukatu.

— Orrenbesteraíño ez al dek ausartuko. Baiña erretxiña zebillek.

— Etxean ez diote ezer emango ta...

— Nola emango ziotek? Ez diagu esan etxetik iges egiña dala? Non dizkik milloiak?

— Dana dala, onenbeste urtean elkar ikusi gabe, soldaduskatik etorri ta bixitatzera dijoan bati, gaizki esaka erasoko ote dio, bada? Bereak entzungo ditu berak. Nola-ala erantzungo diot. Len ere izaten genituen guk olako eztabaidak. Gure iruko berexi eziña autsi da orduan betiko.

— Bai. Nai ta nai ezkoa. Iñaki etzegok iñorako. Joxerekin ez daukak kontatzerik. Arek, bere iritzikoa ez danik, ez dik saillean artuko.

— Iñaki ta ni, ez badaukagu elkarrekin ibiltzerik ere, beti lagun izango generala uste det. Bestearekin nekez. Ura aspaldi berexi zan.

— Eta ik zer asmo dakark? Lengo karrerari jarraitzeko gogorik bai ote daukak?

— Sendagille izatea ez da nere gogozkoa.

— Orduan ez dek ikasten jarraitzeko asmorik?

— Ez nuke beste orrenbeste esango. Berrero lengo lekura sartu bearra arraixku aundikoa iruditzen zait neri.

— Aizak: ez genin ortan pentsatu. Arrazoi osoa daukak.

— Asko pentsatu det zortzi illabeteko bakar-dade ortan. Sendagilletza utzi ta nere etorkizuneko bide berri obeak artzeko asmoak ekarri ditut. Ate asko dauzkat jo bearrak oietan sartzeko. Oso me ariltzen baidute oiek. Irekitzen badizkide, garaiz emango dizutet nere berri. Bitartean bego ezkutuan.

— Eskubide osoa daukak ortarako. Etxe ontara beiñepein zoriona ekarri dek. Beste guraso oiek ez ditek olakorik esango.

— Gaixo joan ta osasuntsu biurtu naiz, bai, ta ni kontentu nago.

ITXUA ARGITU NAIRIK

Arratsaldeko laurak alde ortan joan zan Santi bere lagun maitea ikustera. Ordurako bazekien amak; eta, bidean gora ikusi zuenean, atarira er-ten zitzaion, bera zetorrenerako.

— Arratsalde on, Anttoni —agur egin zion Santik.

— Baita zuri ere. Mutil bikaiña zatoz.

— Eskerrik asko. Kolore txuri xamarrek dauz- kadala noski...

— Noizbait utzi al dizute etortzen?

— Bai. Ez det soldaduska atsegiña pasa. Bai- ña, Jaunari eskerrak, ez naute ondatua biali.

— Gurea ala biali digute, bada. Pazientzian eraman bearko degu, berak, gizarajoak, ez du orren errurik eta.

— Ez orixe. Arma gaizto oiekin dabiltzanei, maiz gertatzen zaizkie olakoak. Eta bera ezkorra edo baikorra dago?

— Ospitalera ikustera joan giñanean, zearo amorratua zegoen Jainkoaren aurka. Orain zerbait apaldu da ta lasaitu. Igerri baidio orrela bere illunpea asko arinduko zaiola. Balkoian dago ta zure zai.

Ama aurretik etxe-barrua igarota, balkoira eram zuen. Atea zabaltzerakoan, ala esan zion onek:

— Emen dek, Santi, ire aspaldiko laguna.

Bat-batean zutitu zan ta bi aspaldikoak besarkatu ziran.

Bi gazteen begietatik malkoak ixurtzen ikusi zituenean, amak ezin eraman izan zuen ura ta negarrez joan zan andik.

Santik eta Iñakik, beren sarrerako malkoak txukatu ondoren:

— Kaixo, Iñaki! —agurtu zuen, malkoei ezin eutsirik.

— Ongi etorria, Santi! Abotsean ezagutu bear ko, baiña ez ikusita. Baneukaken irekin itz asper tu bat egiteko gogo. Zer moduz igaro dek soldaduska madarikatu ori?

— Luze xamarra. Baiña ezin nintekek kejatu, i ortara ikusita. Osasun bikaiña zeukat. Etxekoak ondo arkitu dizkit. Iri gertatua, ori dek nere negarra.

— Pozten nauk benetan, Santi. Baiña ni, nere illunpe ontan eroria, zearo itxua. Zer egingo diagu? Pazientzian eraman, au ere neretzat egongo uan ta.

— Naigabeen laguntzen dizutet iri ta ire etxe-koei. Au ez dek ire kaltea bakarrik. Etxeko guziak ere or sartzen dizkit. Au denen negarra baita. Alare, bejondeikela, motell! Ez dek gutxi, ire egoera ontan, dena pazientzian eramatea.

— Nori eraso bear ziot? Lertu zan bonbari? Edo Jainkoaren aurka asi? Oroituko aiz noski San Pablori zer esan zion: «Gogorra dek, motell, eztenaren aurka ostikoka jardutea». Bazter guziak nastuagatik, ni ez nauk argituko. Lenengo egunetan errea geratu niñun. Kixkali nizkin zeru ta lurrak. Baiña nere burua ondatu besterik ez. Amaika milla itxu, elbarri ta gaixo bizi dituk munduan. Ni baiño okerrago asko, beren oiñazeak ezin buruturik, karraxika. Nik, Jaunari eskerrak, etzeukat oiñazerik. Betiko illunpea, ori bai. Ez al dezute egunaren erdia ia illunpean igarotzen?

— Bai. Lotan gaudenean, illunaren mende gaudek.

— Ordua etorri arte, zenbat eta lasaiago bizi, ura ta ohea neretzako. «Askoren gaitza, eroen atsegiña» ziotek. Bearbada ala izango dek. Aiek, beren ondoeza eramateko, kemena badaukate. Zergatik ez nik? Aiek ainbeste banaizela uste dit.

— Motell, ez didak nolanaiko atsegiña ematen. Eroa, zakarra, zearo eroria egongo intzala-ta, kezka etorri nauk.

— Bai. Tarteka nere biotzean alako amorru bat sortzen dek. Baiña ari leku emango banio, ezer irabazi ez ta dena galduko nitek.

— Zoratzen nenbilleken, soldaduskatik ondo etorri giñalako, Arantzazu alde ortara txango bat egiteko asmoan. Gure Amari ikertxo bat egin nai nioken, eskerrak emateko.

— Ez dizkik nereak merezi. Ez niñun agurtzera ere joan.

— Ni ere ez niñun oroitu. Orain bakarrik joan bearko. Bestela, ik nai badek beiñepein, nik eramango aut.

— Oraindik ez. Geiago lasaitzen naizenean balitekek. Baiña ez ari eskerrak ematera, ikusi ere ez dit egingo ta.

— Eta zergatik ez ire illunpe ori pazientzian eramateko laguntza eskatu, argitu dezaiken barrun beltz ori?

— Bai. Egia diok. Gorputza ezik, anima ere beltza ta illuna zeukat. Etzaidak bonba arek itzalitako argia berriro pizten.

— I agon egoeran, asko poztuko iñuke sinismen bero batek.

— Gaurkoz utzi zaiogun orri, oraindik geiagotan etorriko aiz ta.

— Nik bezela Jainkoak nai badu, bai beiñepein.

— Ire berri ere jakin nai nitek. Utzi al ion droga zikin ari?

— Zai nengoken noiz galdera ori egingo. Ne-reak eta bost supritu nizkin. Baiña noizbait moztu dit. Nere burruka ta ordu gaiztoak igaro dizkit. Ez dituk neretzat alperrikakoak izan. Soldaduskan ere eraso zidateken. Neskatx eder bat neukaken nere saretzat jarria. Denak atzera geratu dituk. Zuek ez baziñaten orrela geratu, ai zer jolasak egin bear genituen orain! Ori uzteko asmoak artu dizkit.

— Orduan ire gurasoak kontentu geratuko itun?

— Eztaietan, motell.

— Irea dek orain, irea, etorkizuna!

— Zer dek etorkizun ori? Non zegok eta zertan? Orren ametsetan biziko intzan, ba, i ere,

— Bai, motell. Ogei ta lau urtetan, zer besterik?

— Eta iritxi al dek?

— Geroko ametsetan bizitzeko itxaropenak moztu zizkidaken bonba zikin arek.

— Arraixku berean nabillek, bada, ni ere. Orain denak irripar egiten zidak. Ire ezbear orrek naigabetzen niok. Benetan, lagunik gabe geratu nauk.

— Utziok pakean orri. Il arte nonbait biziko al gaituk. Joxeren berririk bai al dek? Etorriko uan, bada, onuzkero.

— Ni baiño bi illabetez lenago. Zortzi illabetez kalabojoan eduki niotek.

— Eta zergatik?

— Ango jaiak antolatzeko, ni aukeratu nioteken eta uko egin nieken. Orregatik etorri nauk besteak baiño bi illabetez beranduago.

— Nola ote dabil ori?

— Eta iri ez dik bixitarik egin?

— Emen ez dek azaldu.

— Ez nauk batere arritzen. Berri gaiztoak zetozek nere belarrietara: bere karrera utzi duela; txakur bat bezela dabillega; lapurretari emana gaiñera. Bost milloiren saria artzeko omen zeukak, kinielan irabazita. Etxetik aldegiña, berriz.

— Ortaraiño erori al da? Bost milloi? Alajainkia! Etzeukak suerte makala.

— Bai; ortaraiñoxe. Soldaduska baiño lenago ere, zearo galdua zegoken ori. Ez uan ik lapurretan arrapatu? Daraman martxan, bost milloi oiek laxter jango dizkik.

— Bai. Andik lapurretan asi zanak, etzin ura lenengoa izango.

— Al badet, biar bixitatxo bat egin nai niokek.

— Edozer astakeri esanta utziko au.

— Alamoduzko erantzunak artuko dizkik.

— Nere gurasoak ixilik eduki zidatek noski, ni ez naigabetzeagatik.

— Arek ire berri jakingo zin. Eta, etorri ez danean, agerian zegok, lengo lagunak utzi ta bere antzeko berriak egin dituela.

— Espetxean baiño, alde-alde naiago dit etxean itxu bizi.

— Izen garbiagoa beiñepein. Ez al ditek egunerokorik ematen?

— Nere burua mantentzeko aiña bai. Orrekin asko lasaitu nauk. Nere gurasoen babesean bizi bearko dit, baiña neretik mantenduko niotek. Ez dek beste munduko mauka. Nere bearrak ere alakoak dituk. Ni ez bainaiz parrandan ibilliko, eta gure irabazi erdia orrek eramaten ziguk. Baiña nere burua mantentzeko ta tarteka zigarro batzuk erretzeko aiña, lasai.

— Bai. Tristeia izango uke benetan iretzat, ik ezer egiterik ez eta gurasoak neketan, i ezin mantendurik.

— Nik orain arte ez nekiken ama zer zan. Bazirudik nere eder egiteko bestetarako ez dala bizi.

— Bai. Ama geienak orrelakoak dituk. Asper-tuko aiz, bada, emen egun guzian, ezer ikusten ez dekala, balkoi ontan exerita jarririk.

— Aspergarria zaidak benetan. Etxe barruan ibiltzeko ez dit iñoren bearrak. Eskuarekin astakatu-tuz, estropoz egiteko beldurrik gabe, noranai niekek. Kanporako, nai ta nai ez, itxu-aurreko bat bear.

— Amak, berriz, naiko lana edukiko dik, gaixoak?

— Amak nerekin egiten duena, naikoa ta geiegi ere badek. Ezin lezakek geiago. Badit, ordea, aingeru guardako gaztetxo bat: nere arreba Katalin-

txo. Onuzkero laxter etorriko dek. Bere suspergarrria artuta, txuxenean neregana: «Iñaki, goazen kanpora, oso giro pollita dago ta». «Goazen, bada, Katalintxo, goazen». Besotik artuta nere andregaiia balitz bezela, baratzik-baratz ibilliko niok. Orain udara dek; eta, sagarra dala, udareak dirala, biltzen dituen onenak neretzat izango dituk. Ama ni baiño lenago joaten bada, badit noski bizi naitzen arteraiñoko babesa.

— Bejondeiola Katalintxori. Neskatz atsegiña zetorrek orduan.

— Bi urte badituk laxter ez detala ikusten gorputzez. Baiña biotz goxoa zeukak.

— Oraintxe, Iñaki, joan bearko dit. Bi ordu bazeramakiagu, eta gure zer esanak ere bukatu dituk.

— Eskerrik asko, Santi. Len esan bezela, baneukaken irekin itz aspertu bat egiteko gogoa. Oraindik lagun geratzen gaituk noski.

— Len bezelako txangorik ez diagu elkarrekin egingo. Baiña al badet, maiz etorriko nauk. Luzatu gabe ekarriko dizkit Joxeren berriak ere.

— Azaldu, bai, al badek, maiz xamar. Bi ordu esan dek? Bakarrik nagoenean, amar minutu luzeagoak egiten zaizkidak.

Esku emanez:

— Agur, bada, Iñaki. Laxter arte. Ez pazientzirik galdu.

— Agur, agur, Santi. I baoa...

Alako tristura batean geratu zan gure Iñaki balakoian, itxua ta bakarrik, pentsakizunez betea.

SEME GALDUA

Bixitak izaten ziran garaian, an azaldu zan Santi espetxean. Joxerekin itzegiteko eskea egin zuen, eta bereala iritxi ere baimena.

An agertu zan Joxe, alanbre-sarearen beste aldetik. Lenengo, arrera txarra egin zion Santiri. Oni, berriz, zaartua ta txartua iruditu zitzaion.

— Nor izango ta Santi! —ekin zion.

— Bai. Uraxe bera nauk. Atzo etorria, zuek baiño bi illabete beranduago. Arratsaldean Iñakirekin egon niñun. Gizarajoari ederra sartu ziotek. Itxutua biali ditek. Ire berri jakin detanean, berriz, emen nauk.

— Gurasoak esan al ditek ni espetxean nagoela?

— Ez. Oraindik ez dit aiekin itzezin. Nere etxean esan zidatek.

— Eta zertara ator: nere bizkar par egitera?

— Banekiken olako astakeriren batekin artuko niñukela. Orren parregarritzat al daukak ere burua? Par egiteko baiño, negar egiteko egokiera obean ago i. Askotan entzunak izango dituk ebanjelioko itz aiek: «Espetxean nengoen ta ikustera etorri ziñaten». Ire lagun bat bezela natorrek, eta ez daukak nere aurrean zertan lotsaturik. Nik ere zortzi illabete igaro dizkit kalabozoan.

— Neretzat soldaduska erromeri bat besterik ez dek izan. Pestatik pestara pasa dit.

— Jakiña: tiralari ona intzalako.

— Eta Iñaki itxua dagoela esan ez didak?

— Bai. Bonba txar batek lertuta, bere bi lagunak il ta bera itxu geratu uan.

— Obe zin gizarajoak an bertan il balitz, besteak bezela.

— Alde-alde bai. Baiña bizia maitagarria dek. Gurasoak etortzen al zaizkik?

— Ez-ta nai ere. Ez nizekik artuko. Etxetik iges egin nin. Ta banekiken, gaiñera, sermoia besterik ez nuela entzungo.

— Eta emen zer moduz ago?

— Ementxe jaten ematen zigutek. Gure jolasaldiak izaten dizkiagu. Beste gaiñerakoan, begi zabalik ametsetan. Orain zekit zer dan askatasuna.

— Bai, Joxe, bai. Bein aldapak beera asi ezke-ro, zailla dek geratzen. Orren berri ederki ikasia nauk. Amaika negar ta burruka egiña, baiña az-

kenean moztu dizkit eragozpen guziak. Zergatik ez dek ik ere olako proba txiki bat egiten?

— Zer: sermoira al ator?

— Maite autelako natorrek. Nik bazekit egoera orren garraztasuna zer dan. Nai izatea aski, irabazteko.

— Onuzkero nereak ala bearko dik.

— Nola, ogei ta lau urte besterik ez dauzkak eta?

— Bai; gurasoen ankapean bizitzeko.

— Aldegiña ez aiz, bada? Ik gurasoei gorroto gaitza diek. Mundu ontan nork merezi dik gure maitasuna? Lan-toki bat billa zak eta kito. Oraindik aiek nastuko auten beldurra badaukak, oa beste norabait, nai dekan martxa artzeko.

— Utziok pakean orri. Nik lantokian ez nitek illabeterik igaroko. Gaur edo biar aterako niotek. Ik dioken bezela, beste lurretara joango nauk. Emen, barru ontan, ni bezelako asko zegok, noiz espetxea utziko zai ta oraindanik moldaketak egiten, nork zer arrapatuko. Oiek diotenez, ori omen dek bizitzea. Askatasuna ere bai. Nik arrazoi ematen ziet. Lantokian sartzen baaiz, emen ta soldaduskan bezela, urrats guziak neurtuak. Or etxez etxe eskatu ta ematen dutenetik bizi diranak dituk askeak.

— Joxe: ortara pentsatzen badek, eta martxa ortan bizi, ez daukak gauz onik. Gure osasuna ez dek altzairuzkoa. I orrela bizitzeko, norbaitek egin bearko dik.

— Gure mundu onen erdia ortara bizi dek. Txuxen ibiltzeak zer aurrerapen ekarriko zidak neri? Or zegok Iñaki, txuxen asko ibilli dana ta orain itxua. Ori al dek orrek merezi zuen etorbizuna?

— Noraiño erori aizen, Joxe! Erruki aut. Bost milloi ez itun, bada, artu? Nola arrapatu aute lapurretan?

— Irabaziak zeuzkat; baiña oraindik ez dizkit kobratu. Bizitezkeoz, berriz, zerbait bear eta lengoan erori gaiñera. Baiña milloi oiek kobratzean, nik zeukat Amerika. Neskatx bat billatuko dit; eta, iñork ezagutzen ez gaituzten lekura joanta, aupa, motell!

— Alako seme galgarri ura bezela, diruak aitzuztean, txerri-kontu.

— Bost milloiko pilla, aitzutzen ez dana dek, motell.

Ordua iritxi zan eta abian ala esan zion Santik:

— Diru pixar bat utzi dit iretzat or atean.

— Nork eman dik ori: nere amak?

— Len ere esan dit ez detala aiekin itzegin. Nere patrikatik emana dek ori.

— Eskerrik asko. Mundu ontan orrek bakarrak balio dik. Griñen eskeak betetzeko, nai ta nai ez, ori bear.

— Klean dabiltzan txakur oiek bezela jarria ago.

— Neretzat, berriz, bizitzea ori dek.

Naigabetua atera zan andik Santi. Etzekien berari adarra jotzen aritu zitzaion, sentimenturik etzeukan abere batek bezela pentsatzen zuen ta. Aldaketaren itxaropen gutxi zeukan Santik.

AZOKAN

«Peria, alper askoren aitzakia» norbaitek esan zuen. Neronek irakurri nuen guda aurreko egunero batean. Bai jendeak aguro asko jaso ere. Nere iritzi apalean, arrazoi askorekin.

Irakurri nueneko, alako nazka bat eman zidan neri ere. Badakit nolako ixkanbilla sortu zuen esatera kaxkar orrek. Baserritarrak beiñepein oso gaizki artu zuten, nor baizan ere iseka ori egiten zuena.

Zertarako egiten dituzte orduan, alper batzuk besterik ez joatezkeroz? Antolatzen dutenak, joatea naiko dute, bada... Jaiak ipintzen diranean, jendea zenbat eta geiago joan, ura ta ohea. Iñork ez du esaten nagi batzuen aitzakia danik. Baiña azokara joatea bai.

Baserritarrak an egiten dituzte beren erosketak. Joera aundia dute, berentzat antolatzen dituzte gaiñera ta.

Astean bein ortarako arratsalde bat aukeratzea pekatu ote da? An erosten dituzte geienak beren bear dituzten landareak, oiñetakoak, beste lanerako beste tresna asko ere bai. Naiz bei, beor, asto, txerri, askotan beiñepein, andik ekartzen dituzte. Nekazariak ura dute beren lekua.

Auek ara joaten diralako alperrak badira, saltzailleengatik ere beste orrenbeste esan gentzake. Bitartean, auen negozioa ortan dago. Ez dute baserritarrengatik orrela itzegingo, ez. Gauzak eta diruak an korritzen dute, ta erri askoren etorkizuna ere ortan dago.

Langilleak larunbata jai daukate. Igandea ere bai; ordainduta gaiñera. Iñork esaten al du alperrak dirala? Oiek atsedeen merezi badute, eta etzait gaizki iruditzen, zergatik ez besteak? Edo auen lana aiena baiño gogorragoa da?

Baserritar gizarajoak astearen zazpi egunak lanerako ditu, igandean ere ezin bailezake erabat lana utzi. Noizbeinka arratsalde bat, gaiñera azokarako, aukeratzen badu, alperra da. Eta ori ez dio iñork ordaintzen.

Len esan degunez, saltzailleari bizia eman ezik, lagunarte artan komeni zaizkion arazo askoren berri ikasten du. Beti lanpean lotua dagoen bati, olako atsedeen txiki bat etzaio gaizki etorriko. Ezin li-teke erriko jenderik langilleena orren arin ta gaizki epaitu.

Liburu ontan aipatzen ditugun gure iru gazte aien gurasoak, auzoak berak, txikitatik elkarren lagunak eta berexi eziñak, zaartu ta gerora ere joaten ziran azokara, ez beti denak eta elkarrekin. Emazteak ere gutxitan, baiña urtean bi edo iru aldiz bai beiñepein. Egiten zituzten beren parranda txikiak, perira joanta, ez gizonak bakarrik, baita emazteak ere.

Ez det uste ejenplu txarra danik ori: senar-emazteak biak batera ta iru auzoak elkarrekin. Urtean arratsalde bat edo beste olakoak egitea ez ote dute merezi? Bakarka ibiltzea baiña ohea da, bai, ori.

Orri alperkeria deitzen dionak, ez du bururik. Urte guzian lan da lan etxeko ixillean ari dan emakumeak, mezetara ta bere tratu pixarrak saltzera bestetarako ateratzen ez danak, atsegin ori ondo irabazia dauka. Pentsatu gero ez dutela amabostaldiko jairik artzen. Joango badira ere, saritu ga-beak. Kastu guziak beren bizkar, eta urte guzian lanean, igande ta aste.

Elkarren auzoak, iru bikote zaarrak, edo oraindik beiñepein sasoikoak, txikitandik lagunak, joan ziran, bada, azokara, ezer gogozkorik arkitzen bazuten erosi.

Baiña aien asmoa etzan perirakoa. Betiko baserri-lan aspergarri ura utzi ta arratsalde atsegin bat beren kideko nekazarien artean igaro, ta etxe-txuloko kutsua zerbait kendu. Alderik-alde, dena ikusiko zuten iru emakumeak elkarrekin. Aiek bazituzten beren kontuak, geienak etxe ba-

rrukoak. Gizonak ere, emazteengandik berex. Auei ere berei tokatzen zaizkien arazoetaz itzegingo zuten.

Iru emakumeak, beren poltxak eskuan, itza ta putza:

— Dirua duenarentzat, bazegon emen aukera —zioru batek.

— Bai. Nik sukalderako laban bat bear diñat. Lengoa, ni ezkontzerako, an arkitu niñan. Amutsa ez den, baiña aituxea zegon.

— Zugaizpe artan dagoenak saltzen dizkin bikaiñak. Nik geronekoan an erosi niñan. Jakiña: bere balioa badin. Baiña etzeukanat erositako damurik.

Ara joan ziran txuxenean. Amaika eskatueskein egin ondoren, erosi zuen:

— Pezeta zorritsu baten gora-beeragatik, datorren urtean berdintsu izango gaitun.

Besteak, berak zeraman bezelako poltxa bat erosi zuen alabarentzat.

Beren kideko beste emakume ara-onera salerosketan zebiltzanakin, laxter jarriko ziran elkarizketan. Aien algara lasaia bai zala biotz garbitik jaiotzen zana. Ez, zenbaitena bezelako irripar ximurra.

Ezagun batzuekin topo egin zuten.

— Emakumezkoak bakarrik? Non dituzute gizonak? —galdetu zien.

— Ez al gaitun, bada, azokara etorri?

— Baiña gizonak etxean utzita?

— Ez. Elkarrekin etorri gaitun; eta, orko asto ta beor oiek bezela, salgai jarri dizkiñagu. Bai aguro saldu ere. Prezio onean gaiñera.

Olaxe igaro zuten arratsalde atsegin bat.

— Joxepa, begiraion elizako erlojuari.

— Goazen bixi-bixi. Ordua pasea den. Onuzkero gure zai zeuden.

— Daudela! Noizbait itxogin bear ziguten oiek ere.

Baiña aguro joan ziran, bestela agian urrengoan etxean utziko zituzten ta.

Gizonak ere berdintsu ibilli ziran. Batek, sega erosi nai zuela, larogei ta amarrekoa gaiñera.

— Orrek indar asko eskatzen dik, motell — esan zion batek.

— Ez, motell. Gure soroetako belarra ebakirrexa dek. Oso modu onean zeuzkak gaiñera. Onen aurrekoa garextiagoa erosi nin.

— Bai. Ortan arrazoi dek. Nik ere erosi bear dit beste bat.

Aiek baiño gutxiago ez izateagatik, irugarrenak ere artu zuen, ta neurri berekoa. Besteak baiño eskaxagoa al zan, bada, bera?

Uztarri batzuk bazeuden egiñak salgai; ta, trantuan atera zijoala, esan zion lagunak:

— Utziok pakean uztarriari. Datorren asteleanean etorriko dek gure etxera uztargillea. Gairik

badaukak beiñepein, etxean bertan egingo likek neurrira.

Biak artan geratu ziran.

Baiña baxo erdia gora ta beera, itz onekin, itz arekin, ordua bere martxan. Batek, begiratu zue-nean, ala zion:

— Onuzkero gure atsoak asarre egongo dituk, mutillak.

— Len ere oituak zeudek, eta bat geiago.

Alare, tabernara baiño len, topo egin zuten denak, bidean presaka zijoazela, berandua zalako. Emakumeei benetako grazia egin zien onek, eta al-garan asi ziran. Gizonak, arrituta:

— Baiña burutik egin al zaizute-edo?

— Berandua zalako, laxterka gentozen gu. Ikusten degunez, zuek ere bai. Jaunari eskerrak, tabernara baiño len topo egin degu; ta, iñori aitzakirik eman gabe, orain lasai meriendatu genezake.

Denak kontentu. Ta, oitura zuten bezela, taberna txiki batera sartu ziran, meriendatxo bat egiteko asmoan. Aspaldian ezagunak zituzten ango nagusi ta etxekoandrea.

Azokan gizonak batera eta emazteak bestera ibilli baziran ere, tabernan ez. Saiets-ezur bakoi-tza bere saietsaren ondoan exeri ziran.

Merienda-legea, ez izugarria gaiñera, aurreratua-lean, bizitu zan beren elkar-izketa. Biotzeko auke-ratik itzegiten omen du mingaiñak. Emen ere ala

gertatu zan. Lagunartean zebiltzala, aztu-edo zitzazkien beren biotzeko naigabeak. Baiña laxter berritu ziran emen.

Uste gabeko ta azken orduko ezbearrak zebiltzan airean. Ixilik usteltzen edukita okerrago noski; ta, lagunartean zerbait lasaitzeko asmoan, eraso zion Joxeren aitak:

— Oroituko zerate noski, bein, gure lagun maitate baten illetatik gentozela, gure iru semeak, urte artako kintoak, jendeak zionez berexi eziñak, aurretik igarotzerakoan, norbaitek esan zuela: «Ara: or ziazik iru eguzki».

— Bai. Neronek esan nin ori —erantzun zion Iñakiren aitak—. Beren adin ortan, arin eta zauli, ala ziruditeken orduan.

— Leku onean geratu gaituk. Laiño beltzak estalia gurea beiñepein, eta geiago argituko dan itxaropenik gabe.

— Ori benetan ezkorra izatea dek —erantzun zion Santiren aitak—. Nik semearen itxaropenak erdi galduak neuzkaken. Aingeru bat egiña etorri dek. Ez etsi, adiskide, ire semearen etorkizunean.

— Etsitzea azkenekoa dek, bai. Baiña soldaduskara joaterako ere, galdua zegoken nere semea. Andik etorri zanean, ordea, zearo ondatua. Ez lanik, ez ikasi, beti diru-eske. Azkenean, biotza negarrez neukala, esan nioken: «Asi lanean. Bestela iretzat etzegok lekurik emen». Ez genin etxetik bialli. Aukera jarri. Bost milloiko ura erori zitzaionean, arrotu uan eta aldegin ziguken, bazter guzietan zorrak utzita. Nere emaztea polliki-polliki ari dek de-

nak ordaintzen. Ainbeste diru izaki ta zorretan utzi dena. Leku onean geratu dek gure eguzkia. Zoritarrez, noski, betiko estalia. Norbaitek esan zidaken, alai ta zoriontsu esaten zuela: «Au dek nere etorkizuna!» Jainkoak jakingo dik non eta nola dabillen. Mundu ontan deabru guziak baditek suertea. Soldaduska guzian omendua izan uan, tiralarri ona zalako. Ortarako bai; begi ona zeukaken. Semea diagu ta min ematen ziguk. Baiña arekin etzegoken bizitzerik. «Ama, ekatzu dirua», ta lanik ez. Txanpona dabilkien arte, bilduko zaizkiok lagunak. Gero izango dituk kontuak. Laxter zorritz josi ta gaitz kutsakorren bat arrapatuko dik.

— Oraindik, diru oiek bukatzean, etorriko dek ura etxera —zion Iñakiren aitak.

— Balitekek. Damutua badator, ondo artua izango dek. Santik bixitatxo bat egin zioken. Arixek bakarrari kaso egiten zioke. Baiña oso etsia etorri uan andik. Gu joan giñun espexera ikusi bat egitera, eta ez gaitziken artu, alegia sermoiren bat egitera joango giñala-ta. Arro-arro ori kontatu omen zioken Santiri. Ura, beiñepein, zearo etsia etorria uan, bere ustetan bera bide zuzenetik zi-jovala sinistua omen zegoken ta.

— Lan bikaiña egin zigun beiñepein. Soldadu joaterako, amaika diru eskatu zuen bere adiskideen artean, etortzean ordainduko zituela ta. Azkenean, pakeak egitezkeroz, gure bizkar geratu zan dena. Berak, berriz, bost milloiak artu ta alde —zion nairagabek bere amak.

— Joan dalako etzidak penik ematen. Esku-bide osoa zeukaken ortarako. Eraman dituen diru

oiengatik ere ez. Bereak zizkin. Baiña aldegin duen bezela bai, semea diagu ta. Lanerako emen baiño gogo geiago ez badauka, lapurretatik bizi bearko dik. Eraman dituen diruak laxter aituko dizkik. Ortatik daramala ikustean, euli txuriak goxoak ur-bilduko zaizkiok. Alare, orregatik ez dek gure baserriaren etorkizunik galduko. Orain soldadu dijoan semea, baratzuria baiño piñagoa diagu. Auxe dek, bada, gure etxeko negarra. Dirua dabilkien arte, non etzana etzaiok paltako. Amaika lekutara abisua biali diagu, baiña etzigutek erantzuten.

Ondoren, Iñakiren aitak artu zuen itza:

— Gure semearengatik gaizki itzegiteko arrazoirik etzeukagu. Beti izan dek gazte zuzena ta esanekoa. Ezbear ori etorri zaiok eta or zegok betiko illunpean. Pausorik emango badu, beti norbait bear ondoan.

— Etxe-barruan ez du laguntza bearrik. Ondo antolatzen da. Barrutik kanpora ateratzezkeroz, nai ta nai ezkoa. Gizarajoak ez darama nolanaiko gurutzea, adin ortan oiek edukiko zituzten ametsakin —zion triste bere amak.

— Eguneroko pollita jarri ziotek. Ez dek nolanaiko alibioa guretzat. Ez beretzat ere. Jazteko ta mantenurako bear duan aiña bai noski. Ez dala, alegia, besterenetik bizi. Bestela, bere burua ondatzeraiño etorriko uke gaixoa —zion aitak.

— Santik tarteka-tarteka bixita batzuk egiten dizkio. Zai egoten da, ura noiz etorriko. Oiek biak

batuak jarraitzen dute. Baiña orrek, gizarajoak, ez dauka besteak bezelako etorkizunik.

Iruetatik Santi bakarra etorri zan ondo ta sendatua. Len amaika naigabe bere gurasoei emana droga zikin arekin. Bera ere bai, galbide ori ezin utzirik, amaika ixtilu igaroa. Azkenean, lotura guziak etenta, gazte bikaiña azaldu zan etxera. Joan baiño len, ura zuten sailleko ardi beltza.

Santiren aitak artu zuen itza:

— Norbaiti entzuna zeukat, itzaldi batean beren erriko bikario jaunak esana: «Etzaitezuela lagun gaiztoakin ibilli. Badakizute sagar gordiñak ez duela ustela pintzen; ustelak bai, ordea, piña iroitu». Esaera onek bere egi-muturra izango dik. Baiña ez osoa. Nere semea ustela joan uan, eta piña etorri. Ez dik lengo karrerari jarraitzeko asmorik. Guretzat ere ez uan oso gogozkoa. Orain beste bat ohea artu dik: kaputxino joan zaiguk. Ez ditek errex artu. Amaika ate jo ta gero, droga artzaillea zala-ta, eragozpen ugari jarri zizkiotek. Baiña azkenean denak garaitu dizkik.

— Iñakik dionez, aiengatik sartu omen dek, bere amets guziak utzita. Ea orrela, bere burua Jaungoikoari eskeiñiz, bide zuzenera ekartzen ote dituen.

— Bejondeiola! —oiu egin zuen Joxeren aitak, maia ukabillarekin joaz—. Kaputxino! Naiago nin nere semeak olako buruzbide bat izan balu. Ori, guk bezela bost seme-alaba ditugunentzat, gora-garria dek. Arrotzekoa. Ez, semea galdu degula errenkuraka aritzekoa. Bere droga ta guzi, nerea

ez dan arren, beti begizko izan dit nik ori: apala, ondo itzegiña.

— Bai, bai. Ez diagu semea galdutzat jotzen. Sei badizkiagu; ta bat Jaunari eskeintzeak poz ematen ziguk. Berak esan ziguk, ainbeste ixillutan bide gaizto ori ezin utzirik ibillita, berriro lengo lekura sartzeak beldur ematen ziola.

— Baita mundu ontan ere, bizitzarik lasaiena oiena dek. Ezkondu gabe geratuak, seme-alaben gora-beerakin ez dizkitek, guk bezela, ixilluak pasako. Aske-askeak, diruaren morrontzik ez ditek. Beste griña txar asko utzita bizi diranak, guk baiño askoz askeagoak dituk mundu ontan bertan ere. Oiena dek etorkizunik seguruen.

Merienda bukatuta, izketan ere aspertu ziran noski. Burutik ezin kendu zituzten negargarrizko gertakari aiek berritzeak, berriz, buruko miña egiten zien; eta, elkarrengana bildu ezker, ezin utzi.

Emakumezkoak asi ziran lenengo:

— Illuna gaiñean degu. Joan gaitezen emendik.

— Bai. Arrazoi dezute. Zuei etxeko gora-beerak gogoratzen zaizkizute, ta joateko presa. Gu, berriz, ortara oituak gaude ta...

— Ez al degu arratsalde atsegiña pasa? —zion batek.

— Bai. Ta laxter beste olako bat egiteko gogoarekin goaz.

— Nere partetik, nik ez det utsegingo —artu zuen erantzuna.

Kastuak ordaindu zituzten, gizonak alegia; eta pakean etxera joan ziran, beste alako bat laxter egiteko irrikaz.

Bakoitzak bere pozak eta naigabeak ixuri zituzten. Bai ederki ulertu bata besteari, ta elkarri laguntzeko prest.

Ez gazte aiek, ez. Zaarrak ziran berexi eziñak.

BEGIA LUZE

Iñakik betiko martxa zeraman: balkoian asper-asper egiña, eguna ezin pasarik, bere transistore txikia eskuan, nekatzen zanean lo-kuluxkaren batzuk egiñez, zeraman kalbarioa ezin burutuz.

Len esan bezela, etxe barruan ibiltzeko etzuen itxu-aurreko bearrik. Baiña kanpora ateratzeko, nai ta naiezkoa. Orretarako, Katalintxo arrebatxoa zuen aukera-aukerakoa. Ura eskolatik etorri zai egoten zan, egun ona zanean beiñepein, baratz-alde aiek barrena bere arratsalderoko txangoa egiteko.

Bere amak askotan zirikatzen zuen, berebillan artu ta elizara eramango zuela. Baiña oraindik Jainkoarekin mutur zegoen. Ezbearra ezker, sinismena erdi galdua zeukan, itxurak egiten zituela esaten bazion ere amak. Baiña bere eskariari beti muzin, entzungor.

Osasuna, berriz, saltzeko ere bazeukan. Itxu egoteak, orrek ondatzen zuen. Amak erdi broman askotan esan ere:

— Naiago nitek gure txerriak i bezin gizenkorak balira. Ematen zaien guzia irensten ditek, eta bakalloa baiño igarrago zeuzkagu.

— Zer nai zenduke: daukadan osasun onekin, jaten dedan bezela jan ta ezer egin gabe ez gizontzea?

Santi, berriz, bere gaztetako ametsak utzi ta gizon berri egiña, konbentu batean ikasi bearrak burutzen, apaiz egin ta meza berrirako.

Al zuenean, tarteka-tarteka, bixitatxoren bat egiten zion Iñakiri. Beti maitasunez artzen zuten etxe artan.

Itxua, berriz, zorutzen ura noiz etorriko, sermoiren bat egingo ziola jakinta ere. Onen erantzuna betikoa zan:

— Elizara? Zertarako? An ez dit ezer galdu.

Joxe, berriz, nonbait ibilliko zan, etxetik aldegin ezkerero. Baiña bere gurasoak ezin zuten arkitu. Aren aztarren guziak galdu zituzten. Itxasoz aruntz joana izango zala; ori zan geienen iritzia. Baiña España aldean zebillen.

Eraman zituen bost milloi aiek aitu bitarte, etzuen lagun-paltik izango. Gero ibilliko zituen itxilluak. Pillik aundiena, jarri ez ta kendu, aitu egiten da. Gure Joxeri ere orixe gertatu zitzaion. Bere lagunak ere aizkatu zitzaizkion. Emen ederki dator Ovidio Erroma'ko olerkari baten bertsoa:

*Donec eris felix, multos numerabis amicos;
tempora si fuerint nubila, solus eris.*

«Ospetsu edo aberats zeran arte, ez dezu lagun-paltik izango; baiña eguraldi goibelak etortzean,

bakarrik geratuko zera». Orixe gertatu zitzaion Joxeri ere.

Antzaldatua zebillen, iñork ez ezagutzearren. Lotsarik gabe, ijito baten martxa zebilkien. Al zue-
nean, lapurtu. Bestela, eskean biltzen zuenarekin,
arkupeatan, txabola zaarretan, zubi azpian, ar-
zuloetan berdin, zorritz josia, lo egiten zuela. Otzak
eta beroak ajola aundi gabe igaroaz, España'ko es-
petxerik geienetan itxogin-aldiak egin zituen. Orre-
la pasa zuen dena, mutur batetik besteraíño.

Arritzekoa zan aren buruzbidea, ta ori omen
zala arentzat egitazko askatasuna. Ez etxe batean,
fameli bati lotua edo ukulluan dauden beien an-
tzera. Askok erotzat artzen zuten. Baiña aren an-
tzeko geiago bazebillen baztarretan, lanik ez egi-
teagatik esketik bizi zana.

Urrikaldu ta an ta emen zerbait ematen zioten,
buru gabeko bati bezela. Larru gorria estali ezke-
ro eta otzari gogor egin, dena ona zuen, etxean
markes bat bezela jantzita ibilli nai zuenak.

Baiña Santik espetxean esan ziona ari zitzaion
gertatzen: altzairuzko osasuna bearko zuela, zera-
man bizimoduari eusteko. Ta, aldegin ta laugarren
urterako, jan zituen eramanak eta arratoi zaar bat
baiño arloteago geratu zan, beti otza janez, arrats
askotan estalkirik gabe, zearo auldua ta nora arri-
maturik ez. Lagun guziak bere antzekoak, etxerik
gabeak, gaur emen biar an zebiltzanak, zutenean
ponpon, etzutenean or konpon. Baiña egiten zuen
guzia etxe aldera. Etzeukan nonbait bere bizia ar-
zuloren batean uzteko gogorik.

Kataluña aldean ia urte bete igaro omen zuen.
Gero, berak zionez, Aragoi-alde ori pasata, Napa-

rro'ra sartu zan, erririk-erri bere etxe aldera ur-bilduz.

Inguru artan lapurreta koxkor bat egin ta gero, diru-mordoxka bat bazeukala-ta, laguna billatu zuen bere antzekoa, baiña txima-luze oietakoa.

Neska narratx onek bazuen lengusu bat Aita kaputxinoa. Aren bitartez ikasi ere Santik non ze-billen bere garai bateko laguna. Beraren bidez es-kutitz bat biali zion. Neskak berak eman ere es-kura Joxeri.

Iru edo lau aldiz irakurri omen zuen; eta, gaz-tetako oroitz guziak burura etorri zitzaizkionean, malko ixillak asi zitzaizkiola.

— Zarratada bizia egin dizu noski? —galdetu zion neskak.

— Bai. Ezin ukatu, idatzi didana ere alakoa da neretzat eta.

— Neskaxen bat alegia?

— Ez. Gaztetako lagun maite bat, orain kapu-txino dagoena.

— Oiekin al zabilta oraindik zu ere?

— Ez nabil oiekin. Au bestelakoa da. Nik or-duan gorroto nion oni. Baiña ikusten danez, ez da nitzaz aztutzen. Droga-artzaillea zan garai batean. Dena menderatu ta kaputxino egin da. Benetan maitagarria da. Obe nuen orren bideak artu banitu.

Eman zionaren bitartez biali zion erantzuna Joxek.

Santik, lagunaren eskutitza artu zuenean, arro xamar egiña bazegoen ere, andik apaltasunera oso bide gutxi zegoela uste zuen. Egundoko goratza-

rreak egiten zizkion bere bizi-moduari. Baiña azkenean garbi-garbi azaltzen zuen artan jarraitu eziña. Diruak jan zituen ta gaixo zegoela. Bere bizi-moduak ez omen zeukala beste akatsik. Santiren iritzian, osasunik gabe dena palta zuen.

Andik laxter beste bat egin zion, baiña argazki oroigarri bat bialita. Amazazpi urte zituztela, Azpeiti'ko Loiola'n egin zituzten gogo-jardunak. Orduan argazki bat atera zuten irurak batera ango elizaren aurrean. Ura biali zion, atzean idatzi txiki bat jarritz: «Oroitzen al aiz Jainkoari zer eskeiñi genion?».

Artu zuenean, lau puska egiteko asmoan asizan. Biotzeraiño sartu baizitzaion. Baiña neskak etzion utzi.

— Ekatzu, ekatzu neretzat ori. Argazki zoragarria da au. Etzazula autsi.

— Zergatik biali ote dit arek neri au?

— Gaztetako oroitzak al dituzu?

— Bai; nere gaztetakoak, goxoak gaiñera, iru lagunok ezin berexiak giñan ta. Orain, berriz, betiko galduak. Aingeru bat baiño garbiago nintzan ni orduan. Orain deabru bat egiña nago.

Neska ere, zearo eroria bizi bazan ere, gaztetan ondo erakutsia. Ala galdetu zion:

— Kezkak asten al zaizkizu, kezkak?

— Ez banego gaixo, ajola lidake neri ipui oiek guziengatik. Ura badakit zeren billa dabillen.

Berriro argazki ura autsi nairik asten zan. Baiña etzan ausartzen. Bein ta berriz begiratzen zion, ta orduan ta oroitz biziagoak zetozkion. Azkenean

sakelean ezkutatu zuen. Jainkoak jakin zenbat aldiz ez ote zion begiratu gero, bere bakardadean.

— Gaixo nagola esan nioken, eta orain etzidak pakean utziko, etxera eraman arte. Ortan alper-alperrik saiatuko dek, bada. Naiago dit ar-zulo batean bakarrik il, berriro gurasoen artera bildu baiño. Ez litekek gaizki par egingo. Ni ez nauk ortaraiño makurtuko.

Arratsaren erdia lo, bestea esna igaroko zuen, oroitz aiek ausnartuz. Bere bidean jarraitzeko kalte egiten ziotela bazekien; baiña ezin burutik kendu. Urrengo egunean lagunaren ondoan aztuko zitzaion guzia.

Bi eskutitz auekin, Santik, bere buruan zebilkien beste asmo bat betetzeko bideak zabaldu zituen. Non zebillen bazekien ta bixitatxo bat egin bear zion. Ta, aitzaki bat artuz, ara joan zan.

Ango kaputxinoak erakutsi zion nontsu arkituko zituen neska-mutillak.

Urdai-azpikoz egindako tortilla eder bana ta litro bat ardo suspergarrizat berekin zituela, joan zan esandako lekura. Eguzkitan muiño baten gainean exerita, biak gozo-gozo izketan arkitu zituen.

Arritu ziran biak, baiña Joxe geiena, bizar aundiarekin kaputxino-jantzian, parrez-parrez, urbiltzen ikusita.

— Iñondik ere, i Santi aiz!

— Ez dik oraindik auleriak bixta auldu. Bai; uraxe berbera nauk.

— Nola billatu gaituk?

— Sudur onak zeuzkat nik, lengo lagunak billatzeko.

Neskarengatik erderaz itzegin zuten. Aien ondoan exeri zan Santi, ta neska orduan eskubira pasa, kaputxinoa erdian artuz.

Santik atera zuen zorrotik zeramana. Biei bana eman zien, botil ardoa aurrean utzirik. Laxter eraso zioten lanari. Biak ere goseak zeuden.

— Mingaiña katuak jan al dik, Joxe, edo ez daukak nerekin itzegiteko gogorik?

— Arrituta negok. Zer ikusi daukak ik nerekin? Etxera eraman nai al nauk?

— Lagunak ez gaituk, bada? Edo izan giñun. Orain ere bai noski. Nik etzekarret beste zer egiñik: bixitatxo bat egin ta irekin itzegin tarteka-tarteka, Iñakirekin bezela. Zer moduz abil?

— Zeruan, motell, zeruan. Au dek nik nai detan askatasuna.

— Ortara baabil, uraxe dek betiko galduko dekana.

— Utziogun sermoiari. Nik bizi-modu oni jarraitu nai ziot.

— Bai; baiña bukatzen dijoana.

— Bai, zoritxarrez. Etzeukat dirurik eta gaixo nabillek. Oiek bukatutakoan, lagunak laxter aldegingo zidak.

— Bai, Joxe. Eta barkatu: i zearo errea ago.

— Errea? Otza besterik ez dit jaten ta...

— Bai. Ori aoko zulotik. Zergatik ez dek bide au uzten? Oraindik sendatuko intzake.

— Ez dit uste. Gaitz gaiztoren bat arrapatu dit.

Ordu bete inguru an aritu ziran biak, ezin asperturik, lengo ta oraingo kontuak berritzen.

— Joxe, joan bearco dit. Egun osoan egongo niñukek zuekin. Baiña berriro laxter etorriko nauk.

— Baiña zertara?

— Gaur bezelako itz aspertu bat egitera.

— Ik gurasoetara eramateko sarea jarri nai al didak?

— Ez dek nere burutik olakorik pasa. Ik orain an ez daukak lekurik. Etziet esango ere irekin itze-gin detanik.

— Eta Iñaki zer moduz?

— Beti bezela balkoian, orduak ezin pasarik.

— Gizarajoa! Etzin, bada, arek orixe merezi.

— Bai. Gizarajoak ura ta i, biak. Begia luze eukan ik. Urruna joan nai ta biderik jakin ez. Esan nin altzairuzko osasuna bearco uala orrela ibiltzeko. Agur, bada, Joxe, nere lagun maitea. Agur zuri ere, neskatxa.

Biei esku emanez, pauso luzean urrundu zan andik. Biak begira egon zitzaizkion.

— Ori da gizona —zion neskak.

— Bai. Biotza besterik ez du orrek.

Eta biak ixilik geratu ziran.

ZUBI GAIÑEAN

Santirekin itzegin da bereala, Erribera'ko beste erri polit batera etorri ziran. Neska an ere ezaguna zan. Iru bat illabete bazeramazkiten an gure bi uxapalak. Aurrera jarraitzeko borondaterik gabe, ezkurra zeukan arte lagunduko zion arek. Baiña laxter bakarrik geratu bearko zuen.

Araiño iritxi zan, ordea, nola Errenderi'ko fameli bat, lau urte aietan palta zitzaien seme bat billatu nairik zebillela.

Erriko bikarioa, norbaitek esanta, oartu zan ezagutzen etzuten eskale bat bazebillela, oraindik gaztea, bertako neska narratx erdi ijito batekin, eta egokiera-billa zebillen arekin itzegiteko.

Illunabar batean, bada, abisatuta edo bikario jauna gaixo bati bixita eginta zetorrela, ibai gai-

ñeko zubi batetik urak zeraman abiadurari begira zeudela ta bero-bero biak eztabaidan ari zirala, arrapatu zituen.

Neskak, bikario jauna ikusi zueneko, aldegin zuen andik bixi-bixi.

— Dijoala —zion berekiko.

Etzebillen aren billa. Izen txarreko emakumea omen zala ta errian naiko ezaguna. Mutilla nai zuen, ta bazeukan arekin itzegiteko gogo. Modu artan bizi zan mutil gazteak zer pentsatua ematen zion. Esan zioten zer izen zuen. Euskalduna zala gaiñera.

Neskak iges eginta, Joxe, nor zetorrenik oartu gabe, bere baitan bildua zegoela, iñondik ere ura izango zala fameli arek billatu nai zuen galdutako mutilla, uste gabe urbildu zitzaion bikario jauna. Bizkarrean ukuituz:

— Kaixo, Joxe! —agurtu zuen, bere izen ta guzi—. Zer egiten dek emen bakar-bakarrik eta garai ontan?

— Apaiza, alajainkia! Nondik ikasi dezu nere izena?

— Erri ontan besterik itzegiten al dek?

— Eta iñori kalterik egiten al diot emen?

— Nork esan dik ori? Ez, motell, ere buruari besteri. Bide au denena dek. Ibai ori ere bai. Baiña garai ontan, i bezelako gazte bat, ijito-jantzian, erri guzian dan emakumerik ustelenarekin, oso itxura kaxkarra ematen dek. Bazekit etorri berria aizela, Joxe deitzen ditekela, ta euskalduna gaiñera.

— Asko dakizu.

— Emengo esamesak oiek dituk. Alare, ez nai ainbeste. Erri koxkor auetan geienok ezagunak baigaituk.

— Emendik gure aldera joaten dira, ta andik onera etortzea ere ez da arritzekoa.

— Ori dek. Mundu au denontzako egin zin Jaungoikoak.

— Orduan, zuk zer ikusi daukazu nerekin?

— Emengo bikarioa naizen ezkerro, onera etortzen diran guziakin zeukat zer ikusia, nere parrokkiko barrutian bizi dituk eta. Zer egiten zin neskatx ergel ta narratx orrek emen?

— Nik nere burua ibaira bota ta nola itotzen naizen ikustera etorria zan.

— Ire azkeneko sos pixarrak kentzera bai. Elementu ona dek ori.

— Egun goxoak pasa ditugu biok beiñepein. Ta, orain nere burua ibaira bota nai badet, askeaskea naiz.

— Mingain ori, beiñepein, gezur-jarioa daukak. Begira-begira ikusi aut, bai; baiña orko ura otzegia ziek iretzat.

— Otzagoetan ibillia naiz.

— Eta gerokoan berotzeko asmoak.

— Berrogei milla duroan salduko nuke nere geroko zeru-partea.

— Aixa diok ori. Irabazi al dek, saltzeko?

— Ez dakit ori. Baiña saltzailleak obeto billatuko nituzke, erostunak baiño.

Bikario jaunak igerri zion arro ta ajola gabe mintzatzen zala, baiña gazte arek bere biotzean kezka ugari bazebilkiela. Alako lotsagabekeriak etzekiela egin zituen edo ez, baiña kontatzen zituela. Alare etzegoela txoil galdua; sinismenik gabekoa, alegia.

— Nik lagundu egin nai dit —esan zion—, erztzaiñak arrapatu ta espexera eraman baiño len. Ire atzetik dabiltzala jakin dit. Eta, ire emengo egoera au garbitzeko asmoan, oiek ez ditek muxurik emango.

— Len ere, bein baiño geiagotan, etxe oietan ibillia naiz. Beste proba txiki bat egiteak ez dit batiere beldurrik ematen.

— Ire askatasunak lekutara joango ituke.

— Nik urte zoragarriak igaro ditut, batean aske, bestean lotuta, ez beti fameli bati erantsita.

— Joandakoak atsegiñak izan bazaizkik ere, aurretik datozenak ez dituk alakoak izango. Ire gorputz orrek atsegiñik artzeko etzeukak indarririk. Arpegi ori zurbilla zegok. Gaixo ago noski.

— Ortan arrazoi daukazu, apaiz jauna. Bestela ez nintzan onera etorriko.

— Orduan, etxe aldera egiten al dek, al dekan pixarra?

— Ez didazu ulertu. Ez da ori nere asmoa. Diru pixar bat nai nuke. Nerekin zegoen neskatx orri eskatu diot eta iseka eginta joan zait.

— Bai. Onarekin asi aiz. Artzeko ohea dek ori, emateko baiño. Zertarako nai uke dirua?

— Gaixo nago, zuk antzeman diozun bezela; ta sendagillea ordaintzeko dirurik ez daukat. Onera, berriz, an baiño oparoagoak diralakoan etorri naiz.

— «Oraintxe nerea aut —zion apaizak berekiko—. Au ortaraiño makurtu danean, gaixo zegok benetan.»

— Ator nerekin. Gaur onuzkero berandua dek medikutara joateko. Biar egingo diagu ori. Nik ordainduko dit. Nongoa augu?

— Saldu egin nai al nauzu?

— Zertarako ator orduan etxe aldera?

— Asmo ortan bazabiltz, banoa emendik.

— Ez, motell. Olako asmorik etzebilkit. Ori sendagilleak esan bear dik. Bestela, zertan joango gaituk arengana? Aren esanera makurtu nai ez badek, alperrik dirua kastatzea.

— Ortan arrazoi dezu.

— Nongoa augu? —galdetu zion berriz.

— Ni Errenderi'koa, jauna.

— I aiz orduan, orain lau bat urte iges egin ta gurasoak ezin billatu duten gazte ajola gabeko biurri ura?

— Biurria naizen edo ez, ori ez dakit. Nere gurasoak non nabillen badakitela ere, ziur nago ortan.

— Errenderi, erri egoskorra.

— Bai. Ango jendeak odol beroa dauka.

— Ez dik ire itxurik. I pipiak jota ago.

— Erri ontan, beiñepein, ez dago borondate aundirik. Sartu naizen ezkerro, ate bat baiño geiagotan eskatu det zer jana Denetan ala erantzun didate: «*Dios te ampare*».

— Neska txirtxil orrekin ikusi baaute, zalan-tzik gabe. Naikoa egin ditek biak aurrean arrika ez bialtzea.

— Orduan emen berrogei ta amar urtez atzeratuak bizi zerate. Garai artan ematen zioten an edozeiñi arrika.

— Utziogun orri. Gurasoak bizi al zaizkik?

— Orain berriro lagun batek esan zidanez, bai. Osasuntsu gaiñera. Aspaldi ontan nitzaz aztuta biziko dira noski.

— Badakit gezurra diokela. Ire adiñeko seme bat non ta nola dabillen jakin arte, gurasoak ez dituk lasai biziko. Ez dek oraindik illabeterik, ango bikarioaren eskutitza artu nuela itzaz galdetuz. Emaizkiok ere buruari erruak. Baiña iregatik ainbeste egin duten gurasoei ez.

Bikario jaunak, elkar-izketa luzean, mutillaren astakeri guziei goxo erantzunez, irabazi zuen gaztearen biotza.

Joxek antz eman zion arian-arian sarean lotu zuela. Etzuen bere gurasoetara bildu nai, ez makurtzearren. Baiña zegoen egoeran, nora joango zan, gero ta okerrago zijoan ta?

— Ator, ator nerekin. Emen alperrik ari gaituk izketan.

Etzion ezetzik esan, ezin bizitzeraiño etorria zegoen ta.

Bere etxera eramán zuen. Apari-lege bero bat emanik, aspaldi artan etzuela alakorik artu, an geratu zan urrengo goiza arte.

Bitarte ortan, gure bikario jauna etzan lo egon. Errenderi'koari itzegin zion:

Nola erri artako gazte bat, Joxe izenekoa, bere burua ibaira botatzeko zorian arrapatu zuen, ta etxera ekarri. Ijito bat bezela jantzia. Bizi ere berdintsu. Urrengo egunean sendagillearengana eramateko asmoan zala, gaixo xamar zegoela ta. Zer gaitz zuen jakitean, abisatuko ziola berriz.

Bere erriaren izena eman zion. Urrutizkiñaren zenbakia ere bai.

— Joxe, bai. Ezaguna nuen. Ogei bat urteetara arte zintzoa. Erri ontako baserriko sendi onradu bateko semea. Gurasoak etzeukaten noski bere aztarrenik. Urduri bizi dira, bere berri ezin ikasirik. Orduan biar, zure abisoa artzean, itzegingo diet etzekoei.

Ortan geratu ziran.

Urrengo goizean sendagilleak aztertu zuen; eta, aren iritzian, gaitzik txarrenetako bat zeukan Joxek: leuzemia omen zuela. Aurreratu xamarra ta oso denbora gutxiko bizia.

Ori apaizari esan zion, gaztearen ixillean.

Joxek ere jakin nai zuen eta ala galdetu:

— Sendagille jauna, zer da, bada, nere gaitza?

— Jakin nai badu, esaiozu —zion medikuak bikarioari.

— Eddorrek nai dekan ezkeru, or zia: leuzemia omen daukak.

— Odoleko min bizia ez da ori?

— Bai. Alatsu. Baiña sendatzen ez dana. Alderdi bat zeukak ona: oiñazerik gabea.

— Etorkizun bikaiña orduan neretzat. Zenbat urteko bizia ematen didazu?

— Urteetakoa gaiñera! Iru illabete irauten baidituk, ez dek gutxi egingo.

Moztua geratu zan Joxe, bere kasa ziola:

— Iru illabete besterik ez. Ez nuen asko galduko, nere burua ibaira bota banu.

— Olaxe dek, Joxe, mundu au. Ta dan bezelakoa artu bear. Ere burua il? Etzak olako astakeririk esan ere. Au galdu ta bestea ere bai. An zegok gure etorkizuna; ez emen. Berandu damutzeak ez dik balio.

— Ikusten ez ditudan espiritu oietan sinismen gutxi daukat nik. Ageri zaigun au naiago nuke.

— Gaitzaren xomorroak ere ez dituk ikusten. Baiña oiek lanean ari dituk. Osasunarekin etzegok jolasik, al degun ondoena zainduta ere galtzen diagu ta. I bezela ibillita, altzairuzkoa bear batek.

— Nerea beiñepein laxter erori da, ain ondo bizi nintzana.

— Ator nere etxera, bazkari bero bat artu ta atsedentzera.

— Zuk ni gurasoetara eramateko sarea jarri didazu noski.

— Bai: etxera edo ospitalera. Txakur bat bezela kalean iltzen ez augu utziko. Nere parroki-barrutian agon ezkeru, nere eginkizuna dek ori. Kontzientziak etzidak agintzen i bakarrik uztea.

Berriro itzegin zuen Errenderi'ko bikarioarekin:

Joxe oso gaizki zegoela. Leuzemia omen zeukala, eta bereala egin bear zituztela gaztea etxera edo ospitalera eramateko moduak.

Berri au artu orduko, bazkaltzea geroko utzita, txuxenean basarrira joan zan.

Argi ta garbi esan zien, Jose, beren semea, Napparroa'ko erri txiki batean zegoela, ta oso gaizki, sendagillearen iritzian.

Entzun orduko, «Gizarajoa!» zion amak.

— Zer egingo degu orduan: ospitalera eraman edo etxera ekarri? —galdetu zuen bikario jaunak, lenbailen erabaki bat artzeko asmoan.

— Berak nai badu, ta al bada, etxera ekarri — zion aitak—. Semea degu ta kristauak gera. Ezin genezake besteren esku utzi.

— Eta nola ekarriko degu?

— Arek ez badu nai, indarrean ezin asiko gera. Lenago egingo ditugu ospitalera eramateko moduak. Ara bai indarrean joan bearko duela. Orre-la dagoenik ezin genezake kale gorrian utzi.

— Zu joaten bazera —zioten bikarioari gurasoak—, ez du etorri naiko. Gu joaten bagera, ain gutxi. Olakoxea da gure semea. Bakarra da inguru ontan, ura ondo esanean ekarri lezakena: Santi.

— Kaputxino joandako gazte ori?

— Iñori egitezkeroz, orri egingo dio kaso.

— Lenbailen erabaki bear degun lana au. Ango bikarioak etxean dauka, ta ari ere enbarazu egingo dio zuen mutillak.

BIGARREN BIXITA

Abisu txiki bat biali zioten Santiri urrutizkifnez: non ta nola zegoen Joxe, ta ekarri nai luteke-la etxera. Baiña onez—onean, bere borondatera, indarrean beartu gabe. Ura besterik etzala izango erri guzian, aren biotza samurtuko zuenik.

Iñork esan gabe ere, Santik bazekien ura: non zebillen. Benetan gaixo zegoela ere bai. Aren urratsak ondo zaintzen zituen. Zeleta egiten zion.

Gaixo non zegoen ikasi zuenean, arengan alako konfiantza zeukatelako eskerrik asko eman ondoren, lagun baten berebillan eta nagusiaren baimenarekin, ara joan zan, bakar-bakarrik, bere eginkizuna ondo bete zezan ikasle lagunei otoitz egiteko eskatuz.

Laxter bigarren bixita egingo ziola agindu zion. Orra ordu ori iritxi.

Erri artara orduko, parrokira joan zan bikario jaunarekin itzegitera, Joxe non zegoen jakin ta ekartzen ote zuten alegiñak egiteko.

Bikarioa bera joan zitzaion aurretik, Joxe eguzkia artzen zegoen lekura. Itzegin zion Errenderi'ko bere lagun gazte bat nola etorri zan bere billa, onez-onean eramateko, berak nai bazuen beiñepein, bere gurasoak bialita.

— Eta nere berri gabe nola egin dezu ori?

— Zer nai uke: nik emen zaitzea? Ori ezin nezake. Ospitalera ere nola bialiko augu gurasoen berririk gabe?

— Ta badakizu nor dan gazte ori?

— Ez. Etziot galdetu. Ire gurasoak beren ordezt bialtzen dutenean, ire garai bateko adiskide kuttonen bat izango dek.

— Onera sartzetako jakin nai nuke nor dan.

— Itxogin. Galdetuko ziot.

Kanpora atera ta ala esan zion:

— Piakaitz zegok oso Joxe. Sartzetako jakin nai likek nor aizen.

— Esaiozu Santi naizela, bi lagun aietako bat.

— Santi dala esan zidak, ire bi lagunetakoa.

— Esaiozu sartzeko. Andik oneraiño etorrita, nerekin itzegin gabe ezin joango da.

Ikusi zueneko, Santiren agurrari erantzun bearean, sube gorria bezela biurritu zitzaion:

— Zertarako ator i onera?

Orduan antz eman zion Santik, garai bateko bere lagun maite arek denbora gutxiko bizia zeukala. Ezur ta larru egiña zegoen.

— Denbora pasa ez beiñepain. Urrea balio dik neretzat.

— Ez diok nere galderari erantzun.

— Arrazoi dek. Oraintxe illabete batzuk esan ez nin, bada, berriro laxter etorriko nintzala bixitatxo bat egitera? Ni, agindua bete gabe ez nauk geratzen.

— Ori baiño garrantzi aundiagoko egitekoren bat badakark ik.

— Ez dit gezurrik esango, Joxe. Ire billa natorrek. Etxera eraman edo ospitalera sartu, ez daukak beste biderik. Aitak etorri nai zin nerekin batera. Baiña ondo pentsatu ta gero, atzera egin dik. Indarrean eramateko asmoan gentozela-ta, ez uala ondo artuko. Ez ditek iri askatasunik kendu nai. Dena ire borondatera utzi ditek, eta neregan jarri konfiantza guzia. Neri bakarrari kaso egingo didakela-ta, ni biali niotek. Ez nazak leku txarrean utzi, Joxe. I beti askatasun-zalea izan aiz. Aukera zak nai dekan bidea.

— Eta nik ez badet joan nai?

— Ixilik, utsik, bakarrik eta buru-makur joan bearko nitek, nere lagun maite batek iseka gaizto bat egin didala-ta naigabetan.

— Etzeukat aien aurrean makurtzeko gogo aundirik.

— Benetan maite auten gurasoen aurrera joateko kezketan abil? Ori aien aurrean ire burua ma-kurtzea litzakela uste al dek? Joxe, zuzenago epaitu itzik. Ire egoera triste ontan, nora joan bear dek bestela?

— Etzekit, bada, nik zer egin, gaitz madarikatu onek zearo ondatu niok eta.

— Ara ez badek nai, orduan emengo bikarioaren mende geratuko intzake, ta ziur baagoke ez aula kalera bialiko. Orrek ere badik bere kontzientzia, ta ospitalera eramango iñuke ta indarrean, ik nai badek eta nai ez badek. Ire gurasoak ordaindu bearko litekek orko ire kastu guzia, illabetekoak agian, azken aldi ontan ire arrokeri txoro ori ez apaltzeagatik. Ez al dituk gurasoak zor-pean utziko! Jakiña, aiek maite aute ta dena egingo litekek.

— Etxean ere ez dit nik enbarazu besterik egingo.

— Iñaki gizarajoak ere ez dik besterik egiten. Baiña nonbait bizi bearra zeukak. Ik, gaiñera, badauzkak ama ta iru arreba. Nork zaindurik ez dek palta.

— Eta nere gurasoak nai al ditek?

— Galdera xelebrea dek orratik ori. Ez niñun bestela ni etorriko. Esan ez dit, bada, aitak etorri nai zuela? Aien aginduz nabillek ni. Maitasun pi-xar bat badaukak oraindik ire biotzean, goazen etxera, Joxe. Bestela, ire ama negarrez itoko dek. Ez duela egun bat igaro i joan intzan bide artara begiratu gabe esan zidaken, bein i etxera biurtzen ikusteko itxaropenetan: «Esaio, Santi, etortzeko.

Bestela, ni naigabez ilko naizela. Ekatzak, ekatzak, al badek beiñepein. Joxe gure semearen oroitza beti bizirik egon dek, eta zegok oraindik, gure biotzetan. Otordurik ez diagu egin, artaz oroitu gabe. Lagunarte, guzietan beti galdetzen zidatek: bai al dezute Joxeren berririk? Eta naigabez ezetz esan bear». Jaungoikoak bakarrik zekik, onuzkero amak zenbat meza atera dituen. «Ura an utzia txakur bat bezela ilko balitz, ez genikek gurasook egun bat onik igaroko. Al badek beiñepein, ekatzak. Mantxa gaiztoa izango uke ori bestela gure familiarrentzat. Baiña ez indarrean. Ez uke atsegin izango». Ori dek ire aitaren eskari larria. Len ere esan dit: ez badek joan nai etxera, ospitalera eramango aute ta indarrean. Eta, illabete batzuk igaroko baituke, gurasoak lur jota utziko ituke. Maite aute-nei ez umiltzeagatik ori egitea, deabrukeri bat geiago izango uke iretzat.

Santi karga ta tira ari zan. Arian-arian urtantak arri gogorra zulatzen duen gisara, aren biotz gogor ura asi zan polliki-polliki biguintzen.

— Ez. Emandako naigabeak ere badituk zerbait —erantzun zion.

— Ori dek itzegitea. Ez ditek olakorik merezi.

— Apaiza emendik eta andik, etzidatek pakean utziko.

— Orren beldurrik ez eduki, Joxe. Iñor ez dek ortan ariko. Amak agian maitasunez gogora eraztea balitekek. Beste gaiñerakoan, ez dek iñor sartuko. Sinismena ez bazaik galdu beiñepein, ori ire

egitekoa dek. Egiaren orduan arazo auek beste ertz batetik ikusten baidira.

— Eta nere urrengo anaia etxean ote zegok?

— Ez; soldadu joan berria. Baiña etzeukatek esku-laguntzaren paltik.

— Epela sartu zaidak, bai, neri: adiñik onean ezertarako gauza ez naizela geratu, beti janari otza ta legorra artu eta otz-beroak agirian igaroaz. Baiña askatasun ortan oso kontentu bizi niñun.

— Begia luze, Joxe. Urrunera begiratzen uan ik, baiña langa itxi. Esan nin altzairuzko osasuna bear zuela batek, ire asmoak betetzezkeroz. Gobernu txarrak azkenean ori ekartzen dik. Ez uan, bada, diruaren paltik.

— Bai. Gizarte onean sartu niñun, diruak irauteko! Arrapazka denak nere atzetik zebiltzaken. Orain, berriz, lotsa ematen zidak etxera joateak; ez beldurra. Bazekit ondo artuko nautela. Baita zaindu ere. Baiña gibela bear dik batek, nik ainbeste dirurekin alde ta aiek nere zorrak ezin ordaindurik.

— Kezka oiek utzi itzak eta goazen. Beren nai-gabe guzien artean, ez diek nolanaiko atsegiña emango. Onuzkero asi dituk, ba ote goazen, goiko bide aldera begira. Ta gu emen elkar-izketan.

Luzaroan malkoak zerizkiola pentsatzen egon ondoren, ala esan zion:

— Ori izango dek, bai, neretzat onena.

— Bai, gizona, bai.

— I bialiarekin etzidatek sarea gaizki zabaldu. Bai. Joango nauk. Ez aut leku txarrean utzi nai. Amaika oker bazeuzkat zuzendu bearrak.

— Eskerrik asko, Joxe. Baneukaken orren itxaropena. Ondoena, gaiñera, maite autenak zainduko aute. Baiña ire biotz ori xamurtzea ez dek erreza izan. Aurrenetik etsi ere egin dit, alperrik etorria izango nintzala.

— Bi kopeta bear dizkik orain batek, kalte bes-terik egin ez ta, ezertarako gauza ez naizenean, aien aurrera azaltzeko.

— Denak beso zabalik artuko aute.

Bikario jauna aldamenean zeukaten. Entzun bai, baiña etzuen ezer ulertzen, euskeraz ari baiziran. Alare, antzeman zion, asarre asi bazan ere, xamurtzen ari zala, ta lasaitzen Joxeren ta Santiren arpegia, eta ala galdetu zion oni:

— Joateko asmoan al da?

— Bai, jauna. Badijoa.

— Beldur nintzan, asarre eraso dizu ta.

— Beti izan da olakoa.

Joxe jazten utzita, bikarioa ta Santi kanpora erten ziran; eta urduri xamar ala galdetu zion oni:

— Piatzen al zera bakarrik orrekin joatea?

— Bai, jauna, bai. Au beti ni baiño eskaxagoa izan da. Orain, berriz, baterez. Joxek, gaiñera, ez lidake neri olako billaukeririk egingo.

— Naiago nuke onen ango gora-beeren berri bialiko balidazuteke, au billatu ta bere gurasoeta-

ra bialtze ortan parte aundia artu baidet. Eta jakin nai nuke ondo asia berdin bukatzen ote dan. Il dala garaiz abisatzen badidazute, illetara joango naiz. Maitasuna artu diot gazte gizarajo oni.

— Ori, bikario jauna, zure esku daukazu. Aski dezu angoari urrutizkiñez itzegitea. Arek ez du au bere eskutik utziko.

Berebilla Santik atarira ekarri zuen; eta, abian bikario jauna agurtuz, etxerako bidea artu zuten.

Itxaropentsu zetorren Santi. Joxek arro ta zakar itzegiten bazuen ere, aren onera biurtzea etzegoela oso urruti, batez ere etxera zetorrelako.

Illunabarrean iritxi ziran.

— Ara, Joxe: ageri dek zuen baserria.

— Ni ibilli naizen lurraldeak ez bezelakoa dek au. Obe nin ez banuen emendik aldegin. Orain itzera etorri bear.

— Jaiotzen geranon azkena ori dek, bada; ta dan bezelakoa artu bearko.

Bere guraso ta anai-arrebak zai zeuden, baiña zalantzan, ez ote zuen etorri naiko, argirik ikusten edo berebillaren burrundarik entzuten ote zuten.

Ukulloko lanak egiten ari zala, atera zan aita kanpora, ta bi argi ikusi zituen aldapak beera, bere etxe aldera zetozela.

— Santi badator, bakarrik edo semearekin — esan zien etxekoei.

— Semea berekin ez badakar, ez leukake oneraiño zertan etorririk.

— Arrazoi orrek badu bere indarra. Baiña denok urduri gaude.

Atarian geratu orduko, Santik atea zabaldu ta eskutik artuz atera zuen.

Arritu ziran bere guraso ta anai-arrebak, ain ondatua arkitu zutenean. Amak negarrez besarkatu zuen.

— Amaika otoitz ta negar egin dit iregatik. Azkenean Jainkoak entzun zizkidak.

Bere arrebak ere besarkatu zuten. Baiña aita eta anaiak ez. Etzeuden ortara oituak. Baiña maitte, beste edozeiñek aiña.

Aiek beren musuketak bukatu zituztenean, aitak, esku emanaz, ala esan zion:

— Eskerrik asko, Joxe, entzun digukelako. Etxean baiño obeto iñon ez aute zainduko. Jarraiok amari. I ez baintzan etorri, etzekit ez ote zan nairgabez ilko.

Joxek, serio-serio, etzuen itzik atera. Arpegira begiratzea ere etzan ausartzen. Egin zituenak egin-ta, bizia zor baliote bezela artu zuten. Amak berekin eraman zuen barrura.

Etzeukaten aren itxaropenik, sendatzekorik beñepein. Bazekiten iltzera zetorrela. Baiña etzuen beste iñon etxeko maitasun ori arkituko. Amaika klinika ta gaixo-etxeetatik etortzen dira beren etxeko maiteen artera, azken arnasa emateko. Joxe bera

ere maitasun orrek ekarri erazi zuen noski. Bera ospitalera eraman ta etzitzaion gurasoak goi-beeak jota uztea ondo iruditzen. Orregatik umildu zan.

Amak, berriz, etzekien non zegoen.

— Joxe, sar adi gelara. Ijito-erropa oiek kendu ta garbi adi. Ura berotua zeukat. Eta jantzi gero soiñeko txukun oiek.

Joxe ezkutatu zanean, onen aitak maitasunez Santiri esku emanaz:

— Eskerrik asko, ekarri dekalako. Garai batean i iñuten auzo ontako ardi beltza. Orain, berriz, i aiz emengo aingerua.

— Ango bikarioak merezi ditu eskerrik geienak. Dena moldatua zeukan. Alare, arengatik etzan etorriko. Neregatik ere ez, osasun ona eduki balu. Ni ikusi nauenean, goxoa jarri da. Baiña dena itxura. Beti izan da Joxe olakoa: zakar mintzatzen dana, baiña ez zenbaitek uste bezin artoa. Badaki arrazoiak entzuten. Konbentuko nere lagun guziak ere bazekiten eta otoitz egiten zuten. Nik banekien au non zebillen. Bi eskutitz egin nizekion. Baita berak erantzun ere. Ikertxo bat ere egin nion. Beraz, bagenekien elkarren berri. Ez nizuten zuei esan, ori jakin ta iges egin etzezan. Orduan igerri nion benetan gaixo zegoela. Nik esan nionean bera ekartzeko asmoan joan nintzala, bestela ospitalera bialiko zutela, «Ezkekit, motell, zer egin — erantzun zidan—. Bitan batera joan bearra, ez nauk bestetarako gauza ta». Alaxe, ospitalera joan ta etxeakoak zor-pean utziko zituela esan nionean, makurtu zan. Oraindik maite zaituzte.

— Eskerrik asko berriro ere, biotz-biotzez. Bazekit semea galdu degula. Baiña non ez dakigula, txakur bat bezela iltzea, ori lotsagarria izango uan guretzat.

— Etxean zer arrera egingo ote dioten beldurak ez da etorri. Bazekien ondo artuko zutela.

— Amarekin konponduko dek. Etziok, al badu, ezer ere ukatuko. Gure irukoa sakonagoa dek. Zuek berexi zerate.

— Ez dakit, bada. Ezbearrak eta eziñak berex-ten gaitu. Iñaki ta ni beti bezela gaude. Zoritxarrez, ezin gerala elkarrekin ibilli. Onen aztarrenak, berriz, nik ez nituen galdu. Bixitatxo bat egin niola ere esan dizut. Au orain sendatuko balitz, zalan-tzik gabe saillekoa izango gendukela. Baiña ni be-tiko etorkizunerako ari naiz lanean.

— Dana dala, ik, Santi, lan eder bat egin di-guk. Zenbat ordaindu bear diagu?

— Ez-ta xentimorik ere. Naiko nekea geratzen zaizute. Emengo berri dakien batek, dena duan uz-ten dit. Berandutu baiño len joan bearko det. Agur, etxeakoak. Baliteke laxter bixitatxo bat egitea.

— Eskerrik asko orduan; ta, nai dekanean, eto-rri. Ik aukeratu dekan bidea, ori dek benetakoa.

GEROA GOGOAN

Iru illabeteko bizia, geienera jota ere, esan zion ango sendagilleak. Bertakoak ere etzion geiagoren itxaropenik eman, eta egunak bata bestearen ondoren bazijoazen, geldi baiña geratu eziñak.

Lenengo egunetan jeikitzen zan. Baiña laxter etorri zitzaion eziña, ta bere gela-txulora bildu bearra izan zuen.

Santik tarte ortan egin zizkion bi ikustaldi. Baiña etzion gerokorik edo aitortu nai zuenik aipatu. Etzezala sermoiak egitera zetorrenik esan, eta orregatik atzeratu etzedin. Ortan asten bazan, beldurrak zegoen zekenago jarriko ote zuen. Ori, gaiñera, bere borondatearen lana zala.

Joxe etzegoen ainbesteraíño itxutua. Baiña arrokeri-puska bat bazeukan.

Oraindik fameli askotan dagoen oitura baze-
goen an ere: arratsero errosario santua esatekoa,
apaldu baiño ordu laurdenen bat lentxeago.

Joxe zegoen oatzetik ederki entzuten zan. Le-
nengoetan, sendi guzia bat bezela batua, goxo-goxo
otoitzean nabaitzen zituenean, garai bateko oroitz
aztu eziñak zetozkion burura ta negarrari ematen
zion. An zegoen zoriona, ta bera igesi joan zan la-
saikerira ta bere osasuna galdu. Orain, eziñaren
mende, bakardadean, aien mende ta il-zori bere
adiñik onenean. Azkenerako amaren agur mariei
apal-apal erantzuten zien.

— Oiek bezelakoa izan banintz, ez niñun gaur
orrela arkituko.

Polliki-polliki, gaizkitzen zijoala igertzen zio-
nean, orduan aterako zituen bere kontuak. Ori bai-
ta egiaren ordua.

Santi, bada, ango ta emengo itz aspertu bat egi-
tera joaten zan. Gelatik ateratzen zanean, ama zai
an edukiko zuen, berri onak ote zituen jakiteko.

— Oraindik nere semea aker dago noski.

— Bai. Ez diot aipatu ere. Olakoak arro-aide
puska bat edukitzen dute; ta, asarretu ez ditezen,
erne ibilli bearra dago. Bere burutik atera bear du.
Orrek berdin badaki oso egun kontatuak dauzka-
la. Baiña ez det itxaropenik galdu. Nork daki orren
biotzean zer egosten ari dan? Gutxiena uste degu-
nean biurtu liteke. Baiña ni ez naiz kargatu ta tira
asiko.

— Ni ere, ordea, ementxe nago zai. Ta, gu ge-
ran fameliarekin, seme bat dena ukatu ta txakur

bat bezela iltzea, samin ta lotsagarria izango litzake.

— Nerekin ikasten ari diran lagun guziak, onen alde otoitz egiten dute, nik esanta. Zuek ere ez aztu zuen otoitzetan.

Azken aurreko bixitan zerbait kezkatua somatu zuen Santik, olakorik esaten etziolako-edo.

— Zertarako etortzen aiz neri ikertxo auek egitera, betiko kontuak berritu besterik ez diagu egiten ta?

— Badakik alako ebanjelioak diona: «Espe-txean nengoen ta bixitatzera etorri ziñaten». Ara ere joan egin niñun. «Gaixo nengoen ta ikustera azaldu ziñaten». Onera ere agertu nauk. Ez dek noski ez etortzea naiko.

— Ez. *Ori ez. Ator, al dekanean, berriro. On egiten zidak ire bixitak.

Oso itxaropentsu atera zan andik Santi: astelenean zeuden, igandea baiño len deitu baietz. Aultzen-aultzen baizijoan, ta igertzen zion bere buruari.

Ama, beti bezela, zai zegoen, eta abian ala esan zion:

— Igandea baiño len onek deitu baietz berriro.

— Zertan antzematen diozu?

— Bere itz batzuetan igerri diot biotza garbitu nai duela. Elizakoak, alegia, artu. Ala iruditzen zait.

— Jainkoak entzungo al dizu orixe!

— Uste det entzun digula.

Bitartean, bost urte Santik etorri zala soldaduskatik. Aurreratua zeukan bere karrera. Urtea bukatzerako, apaizgoa artzeko asmoan. Baiña Joxe lenago ilko zala zerizkion.

Bazijoazen egunak. Otoitzean ari zirala. Gai-xoa, berriz, aultzen-aultzen. Bere konbentuan, abisu-zai, apaizgaia etzegoen etsia.

Goiz batean, gosál ondoan, urrutizkiña ari zan txirrinka. Atezaiak, etorri ta:

— Santi, urrutizkiñera.

Berarekin gosaltzen ari ziran guziak begiratu zioten, denak bizi zuten Joxeren gora-beera ori ta. Bereala biozkadak eman zion:

— Egingo nitek apustu, gaixoaren aldetik datorrela.

Eta ala izaki: Joxeren amak abisatu zion lenbailen joateko, semea zai zeukala ta.

Gosari-legea bukatzera sartu zanean, lagunak urduri arpegira begiratu zioten.

— Bai, bai. Antz eman diozute. Joxe, gure laguna, ari zaidak deika. Ta bazekit, gutxi gora-beera, zertarako. Oraintxe egin otoitz. Gaur edo egundo ez. Au dek, nere iritzian, azkeneko egokiera.

Nagusiaren baimenarekin joan zan. Gurasoak urduri zai zeuzkan.

— Santi, laxter etorri aiz.

— Bai. Garrantzi aundiko abisua da au. Orain edo egundo ez.

— Eta badakik zertara deitzen auan?

— Zuek bezelaxe nago ni ere: urduri, baiña itxaropentsu. Azkena izan nintzanean, igerri nion, nik ori aipatzea nai ote zuen. Baiña ez nintzan ausartu. Bestela, onek ez niñun deituko.

Amak, gelara sartuta, semeari ala esan zion:

— Santi ik agindu zai zegok sartzeko.

— Laxter etorri da.

— Ortan pentsatu zenbat maite auan.

— Datorrela, datorrela! Bestela ez nuen deituko.

Santi sartu zanean, negar-malkoak zerizkion Joxeri. Arek bezela zuzen jokatu balu, agian etzan orain il-zori egongo.

— Egun on, Joxe. Triste ago.

— Nola ez nauk egongo, nere adiñik onenean eriotza laxterka zetorkidak eta?

— Mundu ontan, denen ondorena dek ori.

— Nerea beiñepein gazterik etorri dek. Au al zan gure gurasoak eskeintzen ziguten etorkizun zoriontsu ta oparoa?

— Bein betiko sinistra zak, Joxe: mundu ontan, suerterik onena daukagularik ere, etzegok guretzat negarra ta eriotza besterik. Zabaldutarik itzik sinismenaren begiak, eta begiratu zak aurrerago. An zegok amairik ez duena. Bukatzen denari ezin deitu

bagenezaiokek etorkizuna, egun bat osoa ez diagu zorion betean igarotzen.

— Bai. Ori egia dek. Nik, berriz, nere etorkizuna pixarra neronek galdu dit. Emengo bakardade ontan, ondo pentsatu dizkit nere gora-beera guziak. Baiña berandu. Ik arrazoi guzia, Santi.

— Azkeneko arnasa eman arte, ez dek beranduegirik.

— Gaztetan ondo erakutsi ziguteken, eta ura zetorkidak gogora. Benetan piztu dek nere sinismena. Ortarako deitu aut.

— Bejondeikela, Joxe, ta ekatzak esku ori. Deitu nauteneko, biozkada ori izan dit. Eta, denak utzita, presaka etorri nauk.

— Ez aiz i oraindik apaiz egin?

— Urte onen azkenerako noski sagaratuko nioitek. Aitortu nai badek, apaiz bat ekarriko dit gure konbentutik.

— Bai. Datorrela. Arroegi izan nauk. Ez dit txakur bat bezela il nai.

— Gaur illuntzerako emen izango dek. Ondo preparatu adi.

— Bai. Txintxo asko joaten giñun iru lagunak batera. Obe nin jarraitu banio. Aiek itun ezin aztu litezken urte alaiak.

— Len ere esan dit, azkeneko arnasa eman arte garai dala. Orduan, ere buruari igertzen diok aultzen ari aizela?

— Doi-doi ezagutzeko moduan ikusten aut, eta sendagilleak ondo asmatu ditek.

— Biotz on, bada, Joxe! Jainkoa gure barruan bizi dek. I joan intzan ezkerozko ire amaren otoi-tzak entzun dizkik. Benetan berri atsegiña dek au neretzat, eta etxekoentzat zer esanik ez. Esan bezela, bada, illunbistan etorriko dek. Ez bagera gei-ago mundu ontan elkar ikusten, agur egun aundira arte!

Joxe, gizarajoa, negarrez geratu zan.

Urduri zai zeuden gurasoak, Santi noiz aterako, berri onak ote zekarzkien jakiteko. Baiña azaldu zan orduko, onek, beso zabalik, ala zion:

— Nere itxaropena oso-osorik bete da.

— Zer: amor eman al du? —galdetu zioten.

— Etzuen amor eman bearrik. Nik olakorik aipatu gabe, bera umildu da. Arroegi izan dala esan dit. Orrek ondatu duela.

— Gure otoitzak entzun ditu Jainkoak.

— Gaur illunabarrean ekarriko det konbentutik nagusia bera.

— Etzekiagu nola ordaindu, motell, gure semearengatik egiten ari aizena. Eun milloi loterian erorita baiño berri obea dek gure famelirako. Badakik zenbat aurrera-atzera ta neke daramazkiken.

— Gogozko aldapan nekerik ez. Joxeren onera biurtzea, ori da neretzat saririk onena. Ez det beste ezeren bearrik.

— Bai. Emen bizi bear diagu, baiña gora begira.

— Zerbait jarri bearko dezu Joxeren gelan, elizakoak bezela artu bearko ditu ta.

— Bai. Utzi au nere esku, ez da lenengoa izango ta.

— Orduan, emengo gora-beera guzia zuen esku geratzen da.

— Bai, bai. Konponduko gera.

— Illunabarrean baliteke etortzea. Arazo auen berri dakien lagun batek uzten baidit berebilla. Ta nik nere eskuz ibiltzea naiko du noski.

Gurasoak, beren naigabe guzien artean, konten geratu ziran, goian gero ikusteko itxaropenetan.

Konbentuko nagusia bera ekarri zuen. Beretzat artu zuen Anaidiak Joxeren arazoa.

Ixil-ixilik, etxeakoak besterik oartu gabe, bere gurasoei barkamena eskatuz, artu zituen elizakoak, eta azken igurtzia eta Jauna artu. Azkeneko txan-gorako ondo preparatua geratu zan.

Gurasoak ere naigabez, baiña lasai. Berak eskatu zituen eta ori señale ona zan: benetan damutu zala alegia.

MADALENAK

Madalenak, Errenderi'ko jaiak. Euskalerriko jendeak ondo badaki ori. Aspalditik sona aundi-koak dira. Mutil zaarrak orrera etortzen omen ziran, orko jaietan andregaia billatzeko asmoan.

Orduan olako sona bazeukan, gaur ez dauka gutxiago. Jendeak badu etorrera. Oiña non jarri ezin dala, gaiñezka egoten dira bertako karrikak. Ango suziri-ots, musika ta dantza! Egun batzuetan, denetik aukeran, begiak non asearen paltik ez da izaten.

Gure iru gazteen baserriak mendixka batean zeuden, erria gainbeera artzen zutela. Ango ixkanbilla guziak ederki entzuten zituzten. Garai batean, gaiñera, Santi soiñu-jotzaillearekin ibilliko ziran parrandan.

Gaurko Madalenak, ordea, tristeak dira gure iru gazteentzat. Bat, il-zori zegoen. Arek etzuen ezer entzungo. Bestea, betiko bere balkoian, beeko karrikako zalapartak entzuten. Baiña joaterik ez. Ikusterik ain gutxi. Joandakoak ausnartuz, bere mundu triste au noiz bukatuko zan pozean.

Santi, berriz, bera bakarrik zebillen ondo. Ta, urtero bezela, egingo zuen bere txangoa. Baiña ez erriko zurrunbillora. Ori aspaldi utzi zuen. Bere borondatez, ordea. Ez, beste biak bezela, ezin zutelako.

Bere ezin aztu zuen baserrira joaten zan, egun orixe maiteen artean igarotzeko. Baiña onentzat ere tristeak ziran Madalen-jai auk.

Etorreran sartu zan Joxeren etxera. Amak artu zuen; baiña berri kaxkarrak eman zizkion.

— Alperrik joango zera, Santi, Joxe ikustera, itzegiteko asmoan beñepein. Iru egun badaramazki, mundu ontarako joana dagoela. Illa dirudi. Arnasa artzen duela; ez dauka beste zentzurik. Atzo sendagillea emen zuen. Ostirala degu gaur noski; iganderik etzuela arrapatuko esan zigun.

— Banuen beldurra, iru illabete igaro zirala egunak dira ta. Orduan, jai auk, zuentzat, izan ez balira bezela igaroko zaizkizute.

— Bai. Bazkaltzen zerbait berexi izango degu. Beste gaiñerakoan, ezer ez. Aita, meza nagusia entzun da mendi aldera joana da. Seme-alabak, berriz, emen ikusten nituen. Baliteke bakarren bat erri aldean ibiltzea ere.

— Olakoxea da mundua. Erri batean, askotan etxe berean, batzuk, zuek bezela, naigabetan; eta besteak algaraka ta dantzan. Iñor oroituko ote da zuenean tristura au dagoenik? Senide arteko ta lagun batzuk ezik, iñor ez.

— Gu ere askotan auzoko negarrez ez gera oroitzen; eta besteak ori bera egitea ez da arritzekoa.

— Bitartean, betikoak balira bezela, erriko zurrunbilloan or ibilliko dira, beren etxean olakoren bat gertatzen zaien arte. Batzuentzat poza, besteentzat negarra.

— Alare, eskerrak zuri, Santi, bere lanak ondo eginta dagoela. Orain triste bagaude, zer etzan izango bestela? Ta zu, etxerako asmoan noski?

— Bai; urtero bezela. Gaztetako oroitzak gurasoen artean goxoak izaten zaizkigu. Orduan, agur, Anttoni. Etxerakoan sartuko naiz.

— Zoaz, zoaz, Jaunaren pakean, eta egun alai bat igaro.

Iñakirenean etzan sartu. Arratsalde erdi alde ortan etorriko zan. Bere balkoipetik igarotzerakoan, ikusi zuen betiko lekuan, Baiña etzuen agurtu.

Jaiotetxean, beren erdian, ondo bazkaldu ta igaro zuen egunik geiena. Aspaldiko gora-beera guziak astindu zituzten. Joxeren berri ere eman zien, nola bere amak esan zion azkenetan zegoela.

Arratsalde erdi aldera, Iñakiri bixitatxo bat egi-tera joan zan. Au, beti bezela, balkoian zegoen,

erri aldera begira, baiña transistorrik gabe, erriko ixkanbillak entzuten.

— Kaixo, Iñaki. Ametsetan noski.

— Ongi etorri. Ametsetan edo biotz gaixo au beiñepein negarrez.

— Gaur baiño jai obeak igaro izan dizkiagu.

— Bai, motell. I soiñu jotzen, ta goxoak ibiltzen giñun, erriko gazte jende guzia gure atzetik genduela. Orain, nere ogei ta zazpi urterekin, etxetik orko zalapartak entzuten. Bertara joaterik ez. Zaartzaroak makurtu izan bagiñu, ezer ez. Ori de non azkena dek. Baiña gure sasoirik onenean... Ik, nai badek, joan-aukera daukak.

— Erabat utzi nizkin egun-pasa oiek. Ez nauk izan eta ez joango ere. Lagunak orrela dauzkadala, etzidak gogorik ematen.

— Ik ere borondatez egiten dek. Nik, ordea, ezin detalako. Bonba madarikatu arek ez baniñu itxutu, ni emen egongo nintzakela uste al dek?

— Aurten, bada, nere ustez, irurok baraurik geratuko gaituk; eta urrengeotan ere bai noski.

— Ik gaur ere, nai bauke, ez daukak aukera txarra.

— Baiña len esan diten bezela, nik auek denak utzi dizkit. Datorrenean balitekek etxera ez etortzea ere.

— Aztia al augu, datorrenean zer gertatuko dan jakiteko?

— Ez-ta bearrik ere. Laxter meza berria eman-go dit, eta ziur asko Ameriketa aldera bialiko nio-tek mixiolari, ta gure erriko jaiak ere or geratuko dituk, urte batzuetarako beiñepein, gure Jaungoi-koak ez bagaitu lenagotik eramaten.

— Bizi banaiz ere, nik ez dizkit ospatuko.

— Baiña bai emendik entzun. Ik, martxa on-tan, eun urte arrapatuko dituk: jan, edan ta lo, la-nik egin gabe, errege bat bezela.

— Ez niok ni ortara oitua, baiña pazientzian artu bear.

— Joxeren berririk bai al dek?

— Ez—ta ezertxo ere, ik ez badidak esaten.

— Onuntzean izan nauk, baiña ez dit ikusi. Mundurako illa omen zegok. Bere amak ala esan zidak.

— Gizarajoa! Maite zin, bada, orrek ere bizia.

— Orain baniak berriro, ta nola dagoen abisu txiki bat bialiko dit onuntzean. Nere gurasoak agurtu gabe ezin joango nauk.

Iñaki joandakoak ausnartzen utzita, joan zan Santi Joxeren etxera.

Ama atera zitzaion, baiña triste benetan. Ne-garrez aritutako itxuran, begiak gorrituta zeuzkan.

Ordurako, inguruko etxeakoandreak, oitura za-nez, bazetozen banaka-banaka andik-emendik etxe artara, errosarioa errezatu ta meza baten dirua es-keintzera. Denak emango zuten ori.

— Il dek gure Joxe! —ta berriro negarrez asi zan.

— Emakume oiek onera datozela ikusi ditudanean, antz eman diot, bai.

Santi ikusi zutenean, etxeko guziak urbildu zitzaizkion; eta, banaka-banaka, denei bere dolumiñak eskeiñi zizkienean:

— Mingarria da beti ere maite dan baten eriotza. Baiña batez ere adin ortan. Alare, nere iritzi apalean, orrela luzaro egon baiño, beretzat obe, ta zuentzat zer esanik ez. Tristeia da benetan, sendatzeko itxaropenik ez daukan bat orrela etxean edukitzea.

— Naigabe ematen ziguk. Semea genin, ta oraindik gaztea. Alare, bere lanak ondo eginda joan danean, eskerrak. Ez dik nolanaiko atsegiña ekarri guretzat.

— Orren illetak ixillean eta erdi gordean ospatu bearko dituzute. Erriko jaien zurrunbillo ontan, jende asko ez da oartuko. Jainkoak nai badu, ni beiñepein emen izango naiz, eta elizakoak eman zizkion gure nagusia ere bai noski. An iduki zuen apaizak ere, abisatzen bazitzaion etorriko zala esan zidan. «Gazte gizarajo orri maitasuna artu diot». Bere itzak dira auek. Baiña ori bikarioaren esku geratu zan. Iñaki bera ere, al baneza, eraman erazi nai nuke.

Denak illaren aurrera joan ziran, eta gure aita batzuk errezatu zituzten. Amak, iru edo lau meza ateratzeko ere dirua eman zion. Eta, aiek agurtuz, aldegin zuen andik.

Etxerakoan, etzuen Iñaki balkoian ikusi. Baiña ama arkitu zuen atarian, eta ari esan zion Joxe il zala.

— Il al da? Oso gaizki zegoela esan ziguten, bai. Joan bearko degu.

Etxera joan ta illaren berri eman ondoren, konbentura joan zan, iñon ere etzuela an bezelako pakerik arkitzen.

Iruetako batek aldegin zien mundu ontatik. Ez bazuen bestekoa iritxi, zertan geratzen zan aren etorkizuna?

Erriko jaiak bere artan jarraitu zuten, baserri-tar gazte bat il zanik asko oartu gabe.

Erriko jolasa bete-betea ari zala egin zizkio-ten illetak. Bere inguruko ta adiskideren batzuk joan ziran.

Santi an zan. Beren nagusia ere bai. Etxean artu zuen Naparroa'ko bikarioa zer esanik ez.

Bere arrebatxoaren besotik an azaldu zan Iñaki itxua ere. Santi agurtzera joan zitzaionean, ala erantzun zion erdi desaez:

— Lagun maiteak giñun ta legea betetzera eto-
rri nauk.

Nor izango ote zan urrengoa?

SANTI

Iruetatik bat joan zan. Bestea itxu zegoen. Mundu onek etorkizun eskaxa eskeiñi die auei bie.

Santi bakarra geratzen zan. Onek, bere karre-
ra bukatu ta bere errian lenengo meza emanta, mi-
xioetara joateko deia artu zuen.

Aldegin baiño len, joan zan Iñaki ikustera. Au,
beti bezela, balkoian arrapatu zuen.

— Kaixo, Iñaki. Betiko lekuan ago gaur ere.

— Neretzat, egunak joan ta etorri, ez dek al-
daketarik.

— Neretzat iritxi dek, bada. Mixiolari niek
Amerika alde ortara.

— Zorionekoa i. Zein joan liteken irekin! Ik
bai ikusiko dekala mundua. Ni, berriz, eun metro-
ren inguruan eta illunpean bizi bearra. Araiño joan
gabe, ez al eukan alderago non bizirik?

— Bai. Emen ere, lana obeto arkituko nitek. Baiña ara joateko agindu zidatek, eta badakik: ni bezelako gazte batentzat, atsegiña dek ori.

— Bai. Ez didak bi aldiz esan bearrik. Eta noizko etorriko aiz?

— Bost urteren buruan, bizi banaiz ta emen ez badet ezeren okerrik.

— Ordurako joango gaituk mundu ontatik.

— Ez, motell, ez. Gaizkitxo ago i amaren babesean!

— Arrazoi dek. Zerri bat bezela gizentzen ari nauk. Baiña nere begiak ezin ikusi. Ez dezute orduan an itxu bearrik?

— An ere olakoak obeto izango dituk.

— Beti nere transistore txar au eskuan, eten gabe bere berriketan, nere irudimena etzekit non barrena ibiltzen dan. Bazkal ta apal orduan amak eramango niok sukaldera. Egun bat etorri, bestea joan, nere bizi-moduak ez dik aldaketarik. Bixitak etortzen zaizkidak. Luze ta zabal itzegingo diagu. Baiña nolakoak diran ezin ikusi. Berriro ere, zorionekoa i. Iretzat zegok mundu ontako etorkizuna.

— Orain arteko itxurak ala dituk. Baiña nork baieztu bear zidak neri, egan nijoala ez ote naitzen eroriko? Ez diagu egun bat ere segururik. Eta barrungo sinismen-begi oiek zertarako ez dituk zabalitzen?

— Bonba txar arek itxi zizkidaken, ta geroztik biak illunak zeuzkat.

— Joxeri zabaldu zitzaizkioken, bada.

— Bai. Txotxolotu zanean.

— Ez, Iñaki. Etzak gaizki pentsatu. Iñork ezer aipatu gabe, berak deitu nioken ni, etzuela txakur bat bezela il nai-ta, aita ta amari barkazioa eskatuz. Nere bueltarako argituko zaizkik.

— B^a: ote gero?

— Ezbear orrengatik orrela jarri aizenean, ez uan len ere bero-beroa izango.

— Badakik orrekin nola geratu naizen ni.

— Baiña ez orren aixa sinismena galtzeraiño. Orduan agur, Iñaki, nere bueltara arte, Jainkoak ala nai badu.

— Agur, Santi, agur. Itxogin-aldi luzea.

An igaro zituen bost urte aietan, etzizaion itxu zeukan bere lagun maitearen alde eguneroko mezan otoi egitea aztu.

Bost urteak joan zitzaizkion, eta asi zan etortzeko moldaketak egiten. Bere gurasoak bazekiten ori. Iñoizka bialtzen baizizkien, ango berriak eman ez, eskutitzak, Iñakirentzat beti goraintziak bializ. Onek ere bai, etxetik egiten zizkieten kartetan.

Baiña andik erten baiño egun batzuk lenago, igorri zizkion Iñakiren amari bertso batzuk, ura etorri baiño len semeari kantatzeko aginduz:

Maite detan lagun itxu bati.

Lagun maitea, urteak dituk
itxua bizi aizela,
bertso txar auek bialtzen dizkit
oroipengarri bezela.

Berdin bazekit ama gaixoak
kantatuko dizkikela,
jakin dezaken bixitatxo bat
egitera natorrela.

Soldaduskara deitu iñuten,
argi biali iñun amak;
andik itxua biurtu intzan,
gero etxerako zamak.
Gizarajo orrek geroztik bizitz
negargarria daramak,
amaika gazte ondatutzeko
sortu zizkitek en armak.

Pakean bizi giñun guziok,
ez uan guda-ordua,
baiña norbaitek egin zin iri
bista kentzeko modua,
orren gazterik illun eraziz
betiko ire mundua;
geroztik etxe-txuloan abil,
mutil gazte bat galdua.

Betiko ire begietara
ixuri ditek illuna,
geroztik ezin igerri noiz dan
arratsa edo eguna.
Geroztik doi-doi ibil bearra
etxe-txuloak barruna,

bonba txar batek moztu zin ire munduko etorkizúna.

Ire ordez gaur egingo ditek len lagun itunak pesta, zorabioka dantza ta oiú ainbat mutil eta neska. Bakar-aroan bizi bearra, beti biotzeko kezka, balkoi gaiñean zer pesta duten ire amari galdezka.

Iretzat jaia edo astegun noski beti berdintsua, beste norbaitek izan bearko ire txangoen maisua. «Ai zer mutilla —esango ditek batzuek—, baiña itxua!». Urrikal-itzak entzuten bizi bearra daukak, gaixua.

Amak, berea au ta, jakiña, maitatuko au benetan, baiñan amarik ez dek izango betiko mundu onetan. Biotz ori nork poztuko dik? Nork lagundu ire penetan? Enbarazutat artuko aute abillen leku denetan.

Anaiak edo ire arrebak, etxera artzen auanak, dudarik gabe emango dizkik bear ain jantzi ta janak. Denean traba egingo baidek an izango dituk lanak,

etxe-kaltetzat artuko aute
ire inguruko danak.

Kanpora ezin dekan ezkeru
argitu ezak barrena,
begira ondo illun ortara
eta piztu sinismena.
Seguruago ikusiko dek
ire urteen azkena,
poz orrek asko arinduko dik
mundu ontan ire pena.

Irratitik, au edekia baizeukan bertso auek irakurtzen ari zala, entzundako berri tristeak zearo naigabetua utzi zuen. Eskuan zeukan eskutitza mai gaiñean lagata, malko garratzak asi zitzaizkion. Ezin eraman izan zuen amak.

— Au da mundua, au! —zion berekiko.

Pixar bat lasaitu zanean, joan zan semearengana, esanez:

— Iretzat Santik bertso batzuk biali dizkik, bere bixitaren aurretik neri kantatzeko aginduz.

— Aren berri guziak neretzat onak dira. Kantatu, kantatu!

Kantatzea bukatu zuenean, ala esan zuen amak:

— Bertso bikaiñak dituk auek. Kupidagarriak. Begiak itxita dauzkan bati sinismena pizteko modukoak.

— Bai. Bertso-jartzaille ona da Santi. Doai bikain askoren jabe.

— Auek beiñepein dotore egiñak zeudek.

— Badakit, agian, etortzean, sermoi txikiren bat egingo didala, bertso oietan bezela. Alare, zorutzen nago ango berriak jakiteko ta arekin itz aspertu bat egiteko. Bere droga ta guzi ere, atsegiña izan zan. Arentzat da, arentzat, mundu ontako etorkizuna.

— Ala uste al dek? —galdetu zion amak.

— Zergatik ez? Osasun bikaiña, ezeren kezka txarrik ez, txorakeri asko utzita, griña gaiztoak mendean, mundu guzia ikusteko aukera, onera etortzean egundoko arrera egingo diote... Zoriontsu izateko, gizon batek zer geiago eska lezake?

Ama triste jarri zan ta, negarrari ezin eutsirik, ala erantzun zion:

— Ez dek ordu bete oraindik, irratiak berri negargarri au eman duela: Ameriketatik onera zetorren egazkin bat, itxas gaiñean datorrela, aidean lertu ta aize-kolpeak orbela bezela aidatu duela. Egazkiñeko pusken artean, an zetozen guziak, batzuk oraindik bizirik, besteak txikituak ere bai, itxasora erori dirala. Aien artean, zoritxarrez, Gipuzkoa'ko mixiolari bat, berez Errenderi'koa, bere erri aldean oso maitea. Nor izango ta Santi gaztea!

Bi esku zabalakin jo zituen indarrean Iñakik bere belaunak, eta betaurreko beltz aiek aidean joan zitzaizkion. Baiña bereala amak jarri zizkion berriro.

— Ez al zenduen neri berri gaizto au emateko beste modurik? Ia lertu ta bertan illa geratu nintzan.

— Barkatu, barkatu, Iñaki. Ez dit ortan pensatu. Neri ere, entzun detanean, etzidak onik egin.

Alako zarratada bat eman zidak. Baiña irratiak berri ori eman dik, eta zoritxarrez egia izango dek. Askoren gorpuak billatu omen dizkitek. Baiña Santiren aztarrenik ez ditek oraindik.

— Bein il ezkeru, berdin dio. Nik arekin itzegiteko neukan zoramena! Jainkoak ez dit mundu ontan atsegin pixar bat ere eman nai.

— Ikaragarriak gertatzen dituk, eta au ere ala dek. Ainbeste gizon ta andre betiko ur-pean galduak! Esku gaizto baten lana dala ziotek.

— Ori egin duena baiño gaiztoagoko deaburik ez da inpernuan.

— Bere gurasoentzat ere ez dek nolanaiko zarrasta izango.

— Olakoa bada gure etorkizuna, obe genduen txakur jaio bagiña. Iñoren gaizki esakaren beldurrik gabe, lotsa guziak utzita, beren atsegiñak betetzen saiatzen dira. Dutenean ponpon, ez dutenean or konpon. Gure etorkizun txoro ontan asko pentsatu gabe, ordua datorrenean, gu bezelaxe, il da kito. Gu, berriz, ezer egiteko beldurrak. Bate-tik, pekatu dalako; bestetik, ikusten bagaituzte zer esango duten lotsa ematen digulako. Baiña ez, ama. Au ez da orrela bukatuko. Santik zuen arrazoi guzia.

— Zertan? —galdetu zion urduri amak.

— Gure etorkizuna ez dagoela mundu ontan; aurrerago begiratu bear degula. Iru giñan lagun maiteak; ta, ogei ta amar urte baiño len, bi joan dira betiko. Ni, errukarri au, bakarrik geratzen naiz eta itxu. Aiek onuzkero elkartu dira. Ni palta saillean. Eraman nazala lenbailen, irukoa osatzeko.

Nik dakit, Santik, soldaduskatik etorri zanean, amets goxoak zebilzkiela buruan. Eta arrazoi ere bazuen: gazte bikaiña, bikaiñik bazan; edozer lanetarako tajutsua; musika-tresna guziak bazekizkien jotzen, batez ere eskuetako soiñua; erriko gaztedi guzia atzetik zebilkien; osasuna, saltzeko ere bai; borondate iraunkorra ta okertzen etzana. Zer sendagai zan ona droga zikin ura menderatzeko galdetu zion sendagilleari. «Bakarra dek — erantzun onek—: ire borondatea». Azkenean garaitu egin zuen. Andik etorri zanean, erdi galduak arkitu giñuzen. Gu bide zuzenera eramatearren, dena utzi ta konbentuan sartu zan, bere emengo etorkizuna guregatik Jainkoari eskeiñiz, eta biziarekin iritxi du berea. Olakoxea zan Santi, droga-artzaillea. Bere illetak ospatzerakoan, biotz au aitortz on batekin garbitzeko an izango naiz elizan. Gure emengo neke ta oiñazeak balio dute. Jainkoa berbera da gure etorkizuna. Ez mundu triste au.

Egundoko naigabea eman zuen errian berri gaizto arek, batez ere elkartuak bizi ziran iru sendi aietan.

Aundiena, jakiña, Santirenean. Zoratzen zeuden semea etortzeko, bost urteren buruan elkarrekin egun batzuk igaro nairik. Etzan ala komeniko.

Bere illetan eliza gaiñezka zegoen. Itzaldi gozoa egin zuen apaizak, Santi praille gaztearen birtuteak gorai patuz.

Bukaeran, gure iru auzoko gurasoak elkarrekin zetozen. Ordurako aiton egiñak, baiña oraindik sasoikoak.

Betiko ardangelan eskatu zituzten iru txuri. Lengo Joxpiñaxi xaarrak serbitu zizkien.

— Zaarrak arrastaka emen gabiltz, eta gazte sa-soikoak dijoazkigu aurretik —zion Joxpiñaxik, Santiren aitari dolu-miñak eskeiñiz—. Erri guzian eman du min eriotz onek.

— Nere seme bat aiña maite nuen nik ori. Orri eskerrak, gure Joxek munduko egunak ondo bukatu zituen.

Iñakiren aita ere etzan ixilik geratu:

— Nere semeak dionez, berriz, bere bi lagunak zuzentzeagatik utzi zituela mundu ontako atsegin guziak, eta konbentuan sartu zala, bere bizia eskeiñiz.

Santiren aitak ere, bada, pazientzia osoan Jaunaren borondatera makurtua, ala erantzun zien bere bi lagunei:

— Goratzarre gozoak dituk oiek. Baiña nik semea palta. Alare, zergatik negar egin? Gaizki asitakoa zuzendu ta ondo bukatu baidu bere eginkizuna. Jainkoak ar dezala bere atsedenean.


Iñaki ere an zan lagunaren illetan, bere arre-baren eskutik. Aitortz on bat egin zuen; ta, Jauna artu ondoren, etxera etorri.

Geroztik an ikusiko dezute etxeko balkoian, asper-asper egiña, baiña itxaropentsu, Jainkoak noiz deituko zai, bere lagun maiteetara bildu ta, Santik esaten zion bezela, betiko etorkizunean bititzeko.

AURKIBIDEA

Iru gurasoak.....	7
Iru gazteak.....	19
Neurketa.....	29
Agur-aparia.....	37
Amonatxo baten eraso.....	49
Joxe.....	57
Iñaki.....	63
Aita-semeak.....	73
Joxeren igesa.....	81
Santi.....	87
Gurasoen artean.....	101
Itxua argitu nairik.....	109
Seme galdua.....	117
Azokan.....	123
Begia luze.....	135
Zubi gaiñean.....	143
Bigarren bixita.....	153
Geroa gogoan.....	165
Madalenak.....	173
Santi.....	181

AZKUE NBL. 10/10
EU. 10/10/10/10/10
BILBO
67628
1990 URR. 5
1003002



AUSPOA
LIBURUTEGIA



1003002
BO-Li/ATA-eto